



2020ko memoria

Informazio
ez-finantzarioaren
egoera



EROSKI

zurekin



HUMANITY
AT WORK

MONDRAGON

**2020ko
memoria**

**Informazio
ez-finantzarioaren
egoera**



EROSKI

zurekin

- Lehendakariaren gutuna
- Kontseilu Errektorearen gutuna
- 2019ko datu nabarmenak



1	EROSKI	Gizartearen zerbitzura jarraitzen dugu	12 orr.
2	"Zurekin" konprometitua dagoen negozio eredu bat	Gure bezeroen zerbitzura dagoen sare komertziala	34 orr.
3	Ahalegina eta erabakitasuna	Dena ematen duen giza taldea	48 orr.
4	Gure produktuen kalitatea eta elikadura osasungarria	Lanean ari gara dieta orekatua egiteko aukera izan dezazun	76 orr.



5	Balio kate indartua	Babesa ematen diegu gure hornitzaileei eta haiekin lankidetzan ari gara	86 orr.
6	Ingurumenaren hobekuntzarekin inplikaturata	Garapen jasangarriaren bultzada	100 orr.
7	Lankidetzan ari gara gizartearekin	Babesa eta elkartasuna gure inguruarekin	123 orr.
8	Gardentasunarekin konprometituak	Prestatzeko irizpideak eta informazio gehigarria	132 orr.




Lehendakariaren gutuna



2020. urteko 12 hilabeteak guztiz bereziak izan dira gizarte osoaren bizitzan. Beste hainbat eremutan bezala, enpre-setan ere eragina izan du COVID-19ak eragin duen pandemiak, bai egunez egun egin beharreko kudeaketan eta bai epe luzeko planifikazioan. Gaurkotasunak agintzen duenari lotuta bizi gara beti, baina egoera honek behartuta, are lotuagoak bizi behar izan dugu.

Uzten badidazue, mezu hau hasi nahi nuke Eroski egiten dugun pertsona guztiei eskerrak emanez. Pertsona horiek, bai norbanako gisa eta bai modu kolektiboan, gizarteak eskatu duenaren neurria egon dira, eta erabakitazue eta eraginkortasunez egin dute hori, bakoitzak bere onena emanez kolektiboaren mesedetan. Gutako inor ez da harritu erantzun paregabe horrekin. Baina ezinbestekoa da aitortza egitea, batez ere hainbeste eman ondoren.

"Oinarrizko zerbitzu" gisa sailkatu dute gurea, eta horrek behartu egin gaitu arintasunez eta azkar erantzutera sortu diren errorekei.

Gauza guztien gainetik, segurtasuna eskaintzea izan da gure lehentasuna, bai langileei eta bai bezeroei ere. Hasieran zaila izan zen, baina, azkenerako, Bureau Veritas etxearen ziurtagiria eskuratu genuen eta Denda Segurua-goak zigiluak lortu ditugu.

Eta bitartean, ziurtatu egin behar genuen dendak ongi hornituta egongo zirela egunero. Balio kate guztiak bikain funtzionatu du, eta eskaria nabarmen handitu bazen ere krisiaren lehen uneetan, egoki erantzutea lortu dugu.

Pandemiak kalte egin die kolektibo batzuei, eta, zorionez, gai izan gara horietako batzuen beharrian larriei erantzuna emateko. Milioi bat musuko eman dizkiegu udalei eta gizarte eragileei. Oinarrizko produktuak eskura jarri ditugu Elkartasun Txartelaren bidez, zeina erakunde publikoen esku jarri dugun, eta 6,5 milioi otordu baino gehiago eman dizkiegu Elikagai Bankuei. Erosketak egin eta etxera eramanez dizkiegu adin handiko milaka pertsonari. Zailtasun gehien sortu duen urteak elkartasuna ere sortu du inoiz baino gehiago.

Kontsumitzaileak aldatu egin ditu erosteko ohiturak, eta guk laguntza eman nahi izan diogu bide horretan. Beste modu batzuk bilatu ditu gurekin harremanetan jartzeko eta oso erabilera handia eman die on-line kanalari eta Interneti. Hori erronka handia da bai orain eta bai etorkizunari begira, une jakin bateko joera zena egiturazko ez-augarri bihurtu baita. Asko hitz egiten da berrikuntza eta eraldatze digitalaz negozioaren ikuspegitik, eta ikusi dugu hori zer den: bezeroari gauzak erraztea, produktu berri-tzaileak, desberdinak aurkitzeko modua ematea, erosketaren esperientzia ona, arina eta eraginkorra eskaintzea.

Gurpilak aurrera jarraitzen du, eta 2021. urtea ere badoa. Alderdi korporatiboari eta barne antolaketari dagokionez, EROSKIko pausoak eman ditu bere egitura egoera berrira egokitzeko. Rosa Carabel da taldeko zuzendari nagusi berria. Harekin lan egiteko zortea izan dugunok badakigu zenbateko talentua eta adorea dituen eta nolako gaitasuna taldeak gidatzeko. Rosa buru izango duen Zuzendaritza Kontseilua handitu egingo da eta etorkizun hurbilean funtsezkoak izango diren arloak hartuko ditu barnean, adibidez berrikuntza eta garapena. Aldaketa horiek koherenteak dira eraiki asmo dugun EROSKIren errorekin: denda gehiago zabaltzea eta eraldatzea, logistika eraginkorragoa eta jasangarria lortzeko inbertsioak egitea; eta produktu fresko eta hurbilekoaren aldeko apustu jarraitua egitea. Ez ditugu ahazten, halaber, Nazio Batuen Erakundeak Garapen Jasangarriko jarri dituen 17 Helburuek (GJH) ezartzen diguten bide-orria, eta erabakita gaude gure ekarpena egitera; 2002. urtean gure atxikimendua eman genion Mundu mailako Itunari, eta urtez urte berretsi egiten dugu Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartu ditugun konpromisoak eguneratuz, zeinak 2018an zehaztu genituen, 8.000 bazkide bezerok egindako ekarpenekin.

Alderdi korporatibotik egin dugun azken pausoetako bat izan da bazkide berri bat erakartzea Katalunian eta Balear uharteetan gure negozioak kudeatzeko. Eragiketa horrek oso egoera onean jartzen gaitu gure negozioak lurralde horietan sendotzen jarraitzeko, eta, zalantzarik

gabe, pauso erabakigarria da zorra berregituratzeko prozesuan, zeina 2009an hasi genuen.

Eskuetan duzuen urteko txosten honek datu interesgarriak eta xehetasun alpagarriak biltzen ditu, eta lerro hauen bidez helarazi nahi izan dizuedana berresteko aukera emango dizue. Irakurraldi argigarria izango delakoan.

Agustín Markaide

EROSKI Taldeko Lehendakaria

EROSKiko Kontseilu Errektorearen gutuna



Orain dela urtebete ere idatzi nituen lerro batzuk txosten honetan, 2019. urteko jardunari buruzko argibideak emateko; COVID-19ak eragindako krisi bete-betean geunden orduko hartan. Geroztik gaur arte zer gertatu den, eta oraindik nola gauden, aski ongi badakigu denok. Osasun krisiak krisi ekonomikoa ekarri du, eta tentsioa eragin du gizarteko sektore askotan eta profesional askorengan, zeinak zubiak eraikitzen eta behar-beharrezko guneetan hutsuneak betetzen aritu diren gizarte kohesioari eusteko.

Sekula ez dugu behar bezainbeste eskertuko EROSKI osatzen dugun pertsona guztion ahalegina. Ez zaigu egoera erraza egokitu, baina gure hautuak egin ditugu bidegurutze horretan: Beti lehenetsi dugu interes kolektiboa norberaren ongizatearen gainetik. Hor ez dugu zalantzarik izan. Mila esker hori posible egin duzuen guztiei, zuen inplikazioa, profesionaltasuna, sentiberatasuna eta lankidetzaren paregabeak izan dira.

Eroskiren kultura kooperatiboaren zati dira ezaugarri horiek. Ardatz horietan oinarritzen gara gisa honetako krisiei aurre egiteko. Enpresa ulertzeko modu horretatik sortu dira gure erantzunak: babes neurriak hartu ditugu gure dendak eremu seguruak izan daitezen lanerako eta erosketak egiteko, elkartasun ekintzak abiarazi ditugu, sentiberatasunez jokatu dugu ekoizle txikiekin haien salmentan bide garrantzitsuenetako batzuk desagertu direnean. Elkartasuna eta lankidetzaren balio horiek hartu dute lekuri handiena gudan, eta horiek gailendu dira eta indar handiz egin dute distira gizartea unerik zailenetan egon denean, sekula baino beharrezkoagoak zirenean.

Orainaldia erronka handiz betea dago eta etorkizuna, berriz, zehaztu gabea. Baina ziurtasun bakarra da EROSKIn fidelak izaten jarraituko dugula kooperatiben printzipioekin, horiek eraman gaituzte eta geure buruarekin zorrotzak izatera. Gure proiektuaren oinarrian, proiektu kooperatiboa osatzen duten pertsonen hurbiltasuna dago, horiek izan baitira gure lanaren eta jardunbideen katalizatzaileak eta elkarrekin egokitu gara gure gizarteak eskatzen dituen kontsumo ohitura eta beharrezanetara.

Lanean jarraituko dugu kontsumitzailea egon dadin erdigunean, Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 Konpromisoetan pausoak ere sendo emanaz. Behar duen formazio eta informazio guztia eduki dezan eta erabakirik onenak har ditzan erosteko garaian. Eta gure kanalak egokituko ditugu, modu telematikoan eta seguru egiteko aukera eduki dezan. Jarraitu egingo dugu elikadura osasungarri eta jasangarria sustatuz, eta produktu ekologikoak eta ontzien ekodiseinua txertatuko ditugu. Mantendu egingo dugu neska-mutilak bizi ohitura osasungarrietan hezteko apustu sendoa ikastetxeetan lantzen ditugun heziketa programen bidez. Hori guztia, gainera, ikuspegi berritzaile batekin, erosketa esperientzia erakargarriagoa, arinagoa, seguruagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Bezerearen mesedetan izaten da egiten dugun guztia, kontsumitzaileen mesedetan, zeinak kooperatibako bazkide baitira gehien-gehienak. Guk horrela ulertzen ditugu harreman komertzialak; guretzat transakzio soil bat baino askoz garrantzitsuagoa da, eta horrek garrantzi berezia hartu du pandemia garai hauetan.

Harro esan dezakegu, gainera, gure lanak aitortza jaso duela kanpotik eta halaxe adierazi digutela hainbat alditan urtean zehar. Bi nabarmenduko ditut: Herriarren Saria eman digute, osasun krisia kudeatzeko garaian izan dugun konpromiso eta arduragatik, eta Europako Ingurumen Saria, arrantza jasangarria sustatzeko agertu dugun konpromisoagatik. Osasuna eta jasangarritasuna. Gure ibilbide orria.

Arlo sozietarioan ere mugarri garrantzitsuak jarri ditugu, eta, besteak beste, ERLAN abiarazi dugu, Batzar Nagusiak onarturiko elkartasun funts bat, zeinak lagundu egin dien laneko bazkideei, etorkizunean behartuko balira kapital sozialari ekarpena egin diezaioten kooperatibaren estatutuetan ageri den bezala. Adibide horrek ere argi erakusten du kooperatiben ereduak bere-bereak dituela elkartasuna eta kooperazioa.


EROSKik bere lekua dauka pertsonen egunerokoan, eragin zuzena du hirien, herrien eta auzoen eraikuntza sozialean; ardurak ditugu jarduten dugun inguruan, eta jarraitu egiten dugu horren aldeko konpromisoarekin. Bizi izatea egokitu zaigun garai zail honetan, milaka familieren euskarri eta laguntza izan gara. Jarraitu egingo dugu zurekin lanean, elkarrekin, gure kontsumo kooperatibak ereduzkoa izaten jarrai dezan.

Leire Mugerza

EROSKiko Kontseilu Errektoreko lehendakaria



2020ko datu nabarmenak





1

EROSKI
Gizartearen zerbitzura
jarraitzen dugu

EROSKI gara 102-1; 102-2; 102-5; 102-7



Orain dela 50 urte baino gehiago sortu zen EROSKI, kontsumo arloko zazpi kooperatiba txiki batu zirenean kalitatezko produktuak merke eskuratzeko eta kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko

Gaur egun, kooperatiba izanik, kontsumo handiko ondasunak eta zerbitzuak banatzen dituen txikizkako lehen banaketa taldea gara Espainian, eta erreferentziatzeko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. Gure esentzia ez da batere aldatu eta, horregatik, jarraitu egiten dugu baldintzarik onenak eskainiz gure bazkide eta kontsumitzaileei.

Gure helburu sozialak eta negoziaren ezaugarriek aurrera ematen digute negozio eredu bakana lantzeko, non lehenetsunezko zat jotzen dugun kalitatea eta gure bezeroei zerbitzurik onena eskaintzea. Gure bazkideen zerbitzura jarraitzen dugu eta, oro har, gizarte osoaren zerbitzura, eta helburua da beharizan berriei erantzutea eta erraztasunak ematea inguru gero eta aldakor batera egokitzeko.

EROSKI, Koop. E. gure sozietate nagusiaren kooperatiba-izaerak hiru oin ezartzen dizkio gure jarduerari, hiru gauza baikara aldi berean:

- Banaketa enpresa.
- Kontsumitzaileen elkarte.
- Proiektu kooperatiboa.

Kooperatibaren egitura, bi eratako bazkide komunitateak ditugu. Alde batetik, kontsumoko bazkideak daude, eta bestetik, laneko bazkideak. Bi komunitateak lankidetzan ari dira gure jomugak eta helburu soziala lortzeko, eta elkarrekin parte hartzen dute erakundearen gobernuan eta kudeaketan dagokien organo sozialen bidez.

Kontsumoko Bazkideak

1.310.976

Pertsona kontsumitzaileak dira, kooperatiban inplikatzeko erabakitzen dutenak

82.146

gehiago 2019arekin alderatuta

Laneko Bazkideak

8.954

Kapitala eta lana jartzen duten pertsonak, erakundearekiko konpromiso gisa


259

gehiago 2019arekin alderatuta



Gobernatzeko eta erabakiak hartzeko darabilgun eredu koherentzia oinarritzen da, eta gure estrategiak estu-estu jarraitzen dio sortzetik izan dugun asmoari. Gure eredu bakanari bultzada emateko, kooperatibak eta haren mendeko beste 22 sozietateek kudeatzen dute sare komertziala; EROSKI Taldea osatzen dute horiek, eta berak kontsolidatzen dira finantza egoeretan¹.

EROSKI Taldearen 23 sozietateen organigrama eta EROSKI, Koop. E.- en duten partaidetza, ehunekoetan emana, 2020ko ekitaldia bukatzean



¹ Sozietate horien zerrenda ikusi nahi duenak memoria honen 8. atalean dauka, Gardentasunari dagokionean.

Inplikaturik erronka berriak lortzeko

COVID-19aren pandemiak aurten eragin duen osasun krisiak eta krisi sozioekonomikoak agerian utzi du beharrian berrietara egokitu beharra dagoela eta horiei erantzuna eman maila guztietan. Era berean, testuinguru berri honek bultzada eman die lehendik poliki-poliki indartzen ari ziren joerei, adibidez zerbitzuen digitalizazioari, eta agerian utzi du garapen jasangarriaren gaiari konpromisoa eta ikuspegi proaktiboak heldu behar zaiola.

Garapen jasangarriaren aldeko ekarpena eta konpromisoa 102-12

EROSKIn, sortu ginenetik 50 urte honetan, kalitatezko elikaduraren alde jardun gara, eta etengabe igo ditugu geure buruari jartzen genizkion eskakizunak produktu jasangarriago bat eskaintzeko eta hala gure kontsumitzaileen premiak betetzeko.

Gure jarduerak eragina duenez ez bakarrik tokikoan baizik eta maila globalean ere, uste dugu gure konpromisoak le-rrokatu egin behar direla Garapen Jasangarriaren 17 Helburuekin (GJH), Nazio Batuek 2015ean ezarriak, eta lankidetzan ari behar dugula gainerako eragile ekonomikoekin, sozialekin eta ingurumenaren aldekoekin. Hori dela eta, Nazio Batuek 2002an proposatutako nazioarteko ekimenaren fundatzaileetakoak gara, Mundu Itunarenak, alegia, eta urtero berritzen dugu haren aldeko konpromisoa. Itun horrek unibertsalki onartuta dauden hamar printzipio zabaldu nahi ditu enpresek gizarte erantzukizunez joka dezaten ho-

EROSKItik aurrera jarraitzen dugu Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko Konpromisoekin, kokapen sendoa daukagu pandemiatik sortu diren beharrian berrien aurrean eta lanean ari gara inguruak dituen eskakizun berrietara egokitzeko.

nako eremu hauetan: giza eskubideak eta enpresa, laneko arauak, ingurumena, eta ustelkeriaren aurkako borroka ne- gozio jardueretan eta estrategietan.

Espiritu horrekin berarekin, eta sortzetik beretik geure buruari jarri genion asmoari jarraituz, modu integralean txertatzen ditugu garapen jasangarriko printzipio horiek gure erakun- dean, eta gure plan estrategikoak eta kudeaketa planak bideratu egiten ditugu eragin kaltegarriak murriztera eta onuragarriak sustatzera. Horregatik, 2018. urtean EROSKlren 10 Konpromisoak landu genituen Osasunaren eta Jasan- garritasunaren alde, 8.000 pertsonarekin baino gehiagorekin lankidetzan, eta horiek dira gure iparra eta gure ibilbide orria kontsumitzaileen eta gizartearen eskari eta itxaropenei egoki erantzuteko; 2019an, CAPRABOK ere bat egin zuen konpromiso horiekin.



Sartu egin dute Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko konpromisoa



Europako Ingurumen Sariak 2020

Europako Ingurumen Saria eman diote EROSKlri Enpresen atalean, Euskal Autonomia Erkidegoa eremutzat hartuta, eta tokiko arrantza jasangarri eta egiaztatua- ren aldeko konpromisoagatik, berriz, accesita eman diote, Espainiako Estatua aintzat hartuta. Europako Batzordeak antolatzen du sariketa hori, beren negozioen bideragarritasun ekonomikoa eta ingurumenaren babes- a arrakastaz konbinatzen dituzten erakundeei aitortpena egiteko.

Berrikuntza Behatokiaren Saria Kontsumo Handiaren arloan

EROSKIk proiektu aitzindaria landu du ingurumen adierazpena ezartzeko bere markako produktuetan, eta Cerdà Institut erakundeak aitortza egin dio; 2020an sektorean egin diren hoge berrikuntza alpagarrienen artean sartu du. Kontsumo handiko banaketa kateetan, EROSKI lehena bihurtu da aurten bere markarekin Euskal Autonomia Erkidegoan ekoitzi dituen esnearen eta arrautzen ingurumen adierazpenak argitaratzen.

EROSKI Fundazioaren Batzorde Zientifikoa berritzea

Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde EROSKIk har- tu dituen Konpromisoen artean, Batzorde Zientifiko aditu eta independente bat izatea agertzen da, aholkularitza eman dezan osasunaren eta jasangarritasunaren es- parruetan. Organo hori berritu egin da 2020an, eta bi espezialista gehitu zaizkio: Marta Arroyo doktorea (EHU) eta Juan Carlos del Olmo (WWF). Lehendik beste bi zeu- den: Jordi Salas doktorea (URV) eta Bittor Rodriguez dok- torearen (EHU). Sartu diren kideek eskumen berriak eman dizkiote Batzordeari Osasunaren eta Jasangarritasuna- ren esparruetan, eta lagundu egingo digute arrakasta handiagoz heltzen Osasun eta Jasangarritasun strate- giei hurrengo urteetan. Batzorde Zientifiko berrituaren le- hen bilera 2020ko abenduaren 1ean izan zen, eta gizar- tean eragin nabarmena duten joerak eta gaiak aztertu zituzten, EROSKlren jardueran ere eragiten dutenak, jaki- na. Honako hauek, besteak beste:

- Nutri-Score eta beste nutrizio-etiketa batzuk on- tzien aurrealdean ezartzeak etorkizunean ekarriko dituen jokalekuak.
- Elikadura pertsonalizatua: mikrobiota eta dieta pertsonalizatuak.
- Haurren gizentasuna.
- Digitalizazioak familien bizimoduan eta ohitura osasungarrietan izango duen eragina.
- Ontzien ekodiseinua, plastikoek eragiten duten ku- tsaduraren aurka egiteko.
- Ingurumen etiketak, kontsumitzaileei erraztasunak emateko erosketa arduratsua egin dezaten.
- Elikadura jasangarria eta etorkizuneko joerak dieta jasangarrietan.



Aurrera eginez jarraitzen dugu Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 Konpromisoekin

Konpromisoak Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde	Aurrerapen aipagarriak	Garapen Jasangarriako Helburuak (GJH)
1 Elikagaien segurtasunean inplikatzeko gara Konpromisoa dugu elikadura arloko segurtasunarekin, eta prebentziozko kalitate plan bat egiten dugu horretarako, kontrolatu egiten dugu produktuen trazabilitatea eta elikagai freskoen hotz katea.	15.427 kontrol analitiko produktuei eta zerbitzuei 318 ikuskapen hornitzaileei 918 ikuskapen saltokiei	3 8 17
2 Elikadura orekatua sustatzen dugu Sustatu egiten dugu modu orekatuan elikatze behar ditugun elikagaien kontsumoa, murriztu egiten ditugu gehiegizko kopuruetan osasunari kalte egiten dioten mantenugaiak eta hobetu egiten dugu gantz saturatuen kalitatea.	183 produktu birformulatu ditugu gure markakoen artean, horien nutrizio profila hobetzeko 86 produktu birformulatu ditugu gure markakoen artean palma eta koko olioak kentzeko osagaietatik, eta 2021ean lortuko dugu gure markako guztiei kentzea	3 4 8 17
3 Haurren gizentasunari aurrea hartzen diogu Lanean ari gara haurren gizentasunari aurrea hartzeko, eta elikadura orekatua sustatzen dugu haurtzarorako, lehenetasuna ematen diogu haurrentzako gure produktuen nutrizio kalitateari, eta bi milioi haur eta haien familiak trebatuko ditugu bizi ohitura osasungarrietan 2025erako.	126.002 ikasleri eta haien familiei eman diegu heziketa 2020an Elikadurari eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programaren bitartez.	3 17
4 Nutrizio premia espezifikoei erantzuten diegu Premia espezifikokoak dituzten pertsonen geure dendan elikagai orotatik izan dezaten lan egiten dugu, eskaintza handituz eta alternatibak eskainiz, hala nola eskariak egiteko zerbitzua eta geure on-line denda.	3.000 produktu dira glutenik gabeko gure dendetan, eta 530 baino gehiago gure markakoak. - Euskadiko, Nafarroako, Kataluniako eta Errioxako zeliakoen elkarteetako 1.600 bazkidek baino gehiagok eskuratu dituzte %20ko deskontuak glutenik gabeko 200 produktu espezifikoetan.	3 17
5 Lagundu egiten dugu arduraz kontsumitzen EROSKIn elikadura jasangarria errazten dugu, eta murriztu egiten dugu gure prozesuek, dendek eta produktuek ingurumenean duten eragina. Gainera, sustatu egiten ditugu produktu ekologikoak eta ekoizpen modu iraunkorragoak darabiltenak, eta murriztu egiten dugu gehigarri artifizialen erabilera eta babestu egiten dugu animalien ongizatea.	%9 murriztu ditugu CO2 isuriak 2020arekin alderatuta 145 ontzi eta bilgarri baino gehiago ekodiseinatuta - Erabilera bakarreko plastikozko poltsak desagerrarazi ditugu denda guztietatik 9 milioi otordu baino gehiago eman dizkiegu gizarte erakundeei Zero Hondakin programaren bidez	1 2 6 7 8 9 11 12 13 14 15 17

Konpromisoak Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde	Aurrerapen aipagarriak	Garapen Jasangarriako Helburuak (GJH)
6 Tokian tokiko produktu gehiago eskaintzen dugu Lagundu egiten dugu gure denden inguru sozial eta ekonomikoak aurrera egin dezan eta sustatu egiten dugu tokikoan tokiko komunitateen kultura, ekitaldi gastronomikoak eginez, ekoizpen guneetara bisitak antolatuz eta erro sakonak dituzten festa tradizioaletan lagunduz.	20.692 produktu eskaintzen ditugu tokian-tokian ekoiztiak 2.404 ekoizle txikirekin lankidetzan 12 milioi euro baino gehiago bideratu ditugu gizarte ekintzetara jarduten dugun inguruetan - Elkartasun Zentimoak programa berriak milioi bat euro baino gehiago bildu ditu	10 12 13 17
7 Ongi eta merke jatea errazten dugu Prezioak hobetu egin ditugu modu orekatu eta arduratsuan elikatze beharrezkoak diren produktuetan, eta aurrezteko proposamen pertsonalizatuak egiten dizkiegu gure Bazkide Bezeroei.	326 milioi euro transferitu dizkiegu aurrezki gisa bezeroei, eskaintzen, sustapenen eta beste kanpaina batzuen bidez.	3 8 12 17
8 Entzun egiten dugu, eta garbi eta garden jokatzen dugu Modu garbi eta gardenean jokatzen dugu, eta parte hartzeko bideak irekitzen dizkiegu Bazkideei langileei eta Bazkide bezeroei, eta baita intereseko beste talde batzuei ere. Gainera, ahal den argiena eta gardenena izaten saiatzen gara ontzietan ematen den informazioan.	64.200 Bazkide Bezerok parte hartu dute entzute saioetan - Gure markako produktuen %100ek daukate Nutri-Score nutrizio etiketa aurreratua dendetan, 1.700ek baino gehiagok berezko ontzian. - Proposatu ditugun plater osasungarrien errezetetan, %100ek daramate Nutri-Score balorazioa	16
9 Geure burua zaintzen dugu langile garen aldetik Osasunaren, ongizatearen eta kontsumo arduratsuen arloko prestakuntza sustatzen dugu, xede jakin batekin: gure langileen bizi kalitatea hobetzea, prestakuntza eskainiz haien eta haien familiei, baita aholkularitza, jarduerak, programak eta tresnak ere.	- EROSKiko 429 langilek parte hartu dute elikadura orekatuari eta osasunari buruz eman ditugun 2.826 formazio orduetan 109.549 formazio ordu eman dizkiegu guztira langileei	3 8 5 12 17
10 Bizimodu osasungarriagoa bultzatzen dugu Osasunaren eta Jasangarritasunaren gaineko kalitatezko informazioa bultzatzen dugu zenbait kanalen bitartez, hala nola CONSUMER EROSKI aldizkaria eta www.consumer.es webgunea. Horretaz gain, aholkularitza programa pertsonalizatua eskaintzen diegu EROSKI club-eko Bazkideei.	47,9 milioi bisita www.consumer.es webgunean 25.000 Bazkide Bezerok baino gehiagok parte hartu dute modu aktiboan elikadura osasungarriarekin zerikusia duten erronketan 29.000 Bazkide Bezerok baino gehiagok jaso dituzte Ekilibria programako txostenak hilerro.	3 4 12 17

Sektorean agertu diren joera berrietara egokitzea

2020. urteko ekitaldia erabat baldintzatu du pandemiaren bilakaerak. Egoera horrek eragina dauka bai gaur egungo bilakaeran eta bai sektoreak etorkizunean izango duen bilakaeran ere.

Hori dela eta, EROSKI egokitu egin gara sektoreak identifikatu dituen joeretara eta kontuan hartzen ditugu gure erabaki estrategikoetan, baita eguneroko ekintzak erabakitzeke garaietan eta gure interes taldeei erantzutean era

- **Zerbitzuak digitalizatzea.** Aurrera egin dugu hazkunde organikoarekin, baina bultzada handiagoa izan du COVID-19aren eraginez. Lanean ari gara kontaktu fisiko gutxiagoko zerbitzuak eskaintzeko, eta handitu egin ditugu on-line salmentak.
- **Higiene protokolo gehiago segurtasuna eta osasuna bermatzeko.** Sendotu egin ditugu dendetako garbiketa eta jokabide protokoloak, eta lanean ari gara gure bezeroei eta langileei inguru seguru bat bermatzeko.
- **Kontsumitzaileek gehiago hautatu dituzte produktu freskoak eta tokikoak,** eta arreta gehiago jarri diote elikadura osasungarriagoarekin eta jasangarriagoarekin zerikusia duten gaiak.
- **Homidura kate** sendagoak, seguruagoak, arinagoak eta hobeto egokitzen direnak eskaria bat-batean aldatuz gero.
- **Etxeko kontsumoa handitzea,** HORECA kanaleko kontsumoa apaltzearen ondorioz; horren eraginez, apalategietan egokitu egin behar izan dira zenbait produktu, baina ezin izaten da ziur jakin zenbat denboran mantendu behar den.
- **Hurbil erosteko ohitura,** joan-etorri txikiagoekin.
- **Gizartearen gainerako eragina** eta zeresan handiagoa tokiko komunitateen garapenean.

2020an berrikuntza proiektu aipagarriak

Aurten **1,4 milioi euro** bideratu ditugu berrikuntza eta garapen proiektuetara, eta horien artean nabarmentzekoak dira aipatu ditugun joerekin zerikusia duten batzuk:



Zerbitzuak digitalizatzea

- **Bidelagun:** Plataforma digital bat diseinatu, garatu eta balioztatu dugu bezeroen komunitate tematikoak kudeatzeko elikadura orekatuaren eta bizimodu osasungarriaren eremuan.
- **OnOff (Tagenea):** Etiketatze sistema adimenduna on-line eta off-line salmenta kateak integratzeko.
- **Xperiens:** 4.0 teknologiak, etorkizuneko denda fisikoak berrasmatzeko bezeroaren esperientziaren bidez.
- **Datadriven:** Monitorizazioan eta datu-analitika aurreratuan oinarritzen diren 4.0 teknologien aplikazioa.
- **RPA:** Prozesuak eta zereginak robotizatzeko pilotu demostratzailea (RPAK).



Segurtasuna eta osasuna

- **Matching Platform:** Plataforma horretan, COVID-19a pasatu eta suspertzen ari diren pazientek harremanetan jartzen dira nutrizionistekin eta aholkuak eta laguntza ematen diete indarberritzeko prozesuan, nutrizio arloko gomendio pertsonalizatuak.
- **Covicoat:** Jangarria den estalgarri bat landu dugu, zeinak belarren estraktu aktiboak izango dituzten fruta eta berduetan egon daitezkeen patogenoen aurka egiteko.



Aldaketak erosteko jokabideetan

- **Know me:** Analitika aurreratua darabilen plataforma kolaboratiboa da, bezeroaren ezagutza txertatzeko banaketa arloko balio katean.
- **Retail +:** Bezeroen jokabidea aztertzen du inguru komertzialetako esperient



Ingurua eta jasangarritasuna garatzea

- **Nutraceutical Omniu:** Enpresa espezializatu bat sortu dugu Nutrazeutikoak ekoizteko elikagaien hondakinetatik abiatuta.
- **Robin Food:** Gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak lan munduan txertatzea, sobera gelditu diren elikagaiak balioa emateko prozesuetan ari daitezkeen eta berriz merkaturatzeko prestatu dituzten.

COVID-19ari emandako erantzunak

2020. urtea COVID-19aren pandemiak markatu du, hark eragindako osasun egoera kezagarriak eta ziurgabetasunak. EROSKI ondasunen eta zerbitzuen txikizkako banaketaren arloan dihardu, eta funtsezko zeregina eduki dugu sortu den krisiari erantzuteko eta irtenbideak emateko orduan, bai negoziari eta antolamenduaren egokitzapenari dagokionez, eta bai gizarteari egindako ekarpenari eta emandako laguntzari dagokionez.

EROSKI osatzen duten pertsona guztiek barnean zeukaten onena eman dute gure produktuak eta zerbitzuak eskuragarri egon zitezen inguru seguru eta eroso batean.

Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiogu jende guztiari EROSKIrekin izan duten konpromisoarengatik. Alde batetik, gure gizatalde guztiari, ahalegin eta erabakitasez handiak agertu dituelako une bereziki garrantzitsuetan eta, bestetik, bezero guztiei, gudanako konfiantza izaten jarraitu dutelako eta modu eredugarrian jokatu dutelako.

Guretzat lehenetsunezkoa da denda eta establezimendu guztietan desinfekzioa eta garbitasuna zaintzea. Horren erakusgarri, Clean Site ziurtagiria lortu dugu gure saltoki guztietan. Gainera, jende kopurua kontrolatzeko sistemak ezarri ditugu, eta gure bezeroei informazioa eman diegu erosketak nola egin jakin dezaten.

Pandemia hasi zenetik, lan nekaezina egin dugu EROSKIrekin lan harremanen bat edo harreman komertzialen bat duten pertsona guztien osasuna eta segurtasuna bermatzeko. Beharrezko neurri guztiak hartu ditugu gure bezeroen eta gure gizatalde osoaren osasuna eta segurtasuna zaintzeko.

Gainera, jokabide berriak agertu direnez produktu jakin batzuekin eta kontsumo ohiturekin, EROSKI ahalegin guztia jarri dugu gure bezeroen beharrezko berrietara egokitzeko, nagusiki alarma egoerak eta horrek ekarri dituen murrizketek eragindakoetara.

Era berean, gure plataforma logistikoek azkar egokitu behar izan dute denda bakoitzaren beharrezko espezifikotara, eskariak asko handitu baitira zenbaitetan, egun bakarrean hirukoizteraino ere bai.

Erosketa prozesua egiteko erabiltzen diren kanalen inguruko ohiturak ere aldatu ditu Covid-19ak, eta asko indartu dira on-line egindako eskariak. EROSKI ahalegin handia egin dugu gure zerbitzu digitalak indartzeko, eta erosketak emateko eta jasotzeko protokolo seguruak ezarri ditugu.

Era berean, gogotik saiatu gara lehen sektorea laguntzen, nekazariak eta abeltzainak, eta lankidetzaren estuan aritu gara krisiak eta jardura gelditzeak HORECA kanalean izan duten eragina arintzeko. Horrela, lankidetzaren sistema bat ezarri dugu ohiko salmenta kanalak galdu dituzten tokiko ekoizleak laguntzeko.

Horretarako, laguntzeko ekintzak sustatu ditugu eta gure bitartekoak eskaini dizkiegu ekoizle txikiak eta haien eskura jarri ditugu gure dendak ohiko merkaturatze kanalak galdu dituztenean. Gure ohiko hornitzaileen lankidetzari esker, gure dendetarako bideratu ahal izan ditugu ekoizpen horietako asko.

Testuinguru horretan, ezin ditzakegu ahaztu tokiko komunitateak osatzen dituzten pertsonak ezta, zehazki, krisi sozial eta ekonomikoak laguntza premian utzi dituen pertsonak ere. EROSKI eutsi egiten diogu gehien behar duten pertsonen aldeko konpromisoari, eta zabaldu egin dugu pertsonen oinarritze beharrezkoak asetzeko eskaintzen dugun laguntza eta lankidetzaren, une hauek sekula baino garrantzitsuagoa baita.

Horretarako, jarraitu egin dugu elikagaiak, arropa eta higie-ne produktuak emanez gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden familiei, adineko pertsonak eta beren beharrezkoak ase ezin dituztenei.



Ciudadanos Sarrieta

Pandemian hornidura eta segurtasuna bermatzeko konpromisoa dela eta, aitortpena egin digute. Ciudadanos Sarrieta; bertan, sarria eman digute 2020ko gertaera, COVID-19a, entitate pribatu solidarioa kategorian. Asociación Premios Ciudadanos (Ciudadanos Sarrieta Elkarteak) elkarteak eman digu sarria (irabazteko asorik gabea da), aitortza egin nahi izan diolako koronabirusak eragindako egoeran EROSKI agertu duen konpromisoari eta gure dendetan gauzatzen ari garen ekintzei, bai langileen eta bezeroen osasun zaintzeko, eta bai oinarritze salgaien hornidura bermatzeko.



COVID-19

ari emandako erantzunaren mugarriak

Orain, sekula baino gehiago, "zurekin"



Bezera

32 or.

Gizataldea

48 or.

Erosketa kalitatezkoa eta segurua

76 or.

Hornidura katea

86 or.

Ingurumena

100 or.

Gizartea

123 or.



On-line zerbitzua indartzea:

- Indartu egin ditugu gure zerbitzuak eskari gero eta handiagoari erantzuteko.
- Erosketak etxera eramateko protokoloa segurua.



Lehentasunezko kolektiboak laguntzea

- Lehentasunezko ordutegiak adinekoentzat, osasun langileentzat eta beste kolektibo zaurgarri batzuentzat.
- Laguntza eman dugu adinekoek erosketak on-line egin ditzaten.



Bezeraekiko komunikazioa

- Indartu egin dugu gomen-dioen inguruko komunikazioa.
- Dendan zenbat jende zegoen jakinarazi dugu osasun krisiaren unerik kritikoenetan aplikazioaren bidez.



Babesa eta adorea ematea

- Gure bezeroek babesa adierazi dute eta adorea emateko mezuak helarazi dizkigute unerik zailenetan. Eskerrik asko!



Gizatalde konprometitua

- Gure gizataldearen ahalegina eta erabakitak.
- Konpromisoaren balio eta bermea. Gure harrotasun!
- Dendako taldeak indartu ditugu egoitzako eta beste negozio batzuetako langileekin.



Lan segurua

- Jardunbide protokolo zorrotzak bete ditugu.
- Indartu egin dugu garbitasuna eta desinfekzioa.
- 26.000 ordu gehiago garbiketan.
- 4.000 babes pantaila eta desinfektatzeko protokoloa.



Laguntza psikologikoa

- Doako telefono zerbitzua laguntza psikologia emateko.



Erosketa segurua

- Clean Site ziurtagiria denden %100ean.
- Jende kopurua kontrolatzeko sistemak.
- Dendei laguntza emateko sistemak ordutegi tartetean.



Produktua manipulatzea

- Prebentzio gisa, produktua ez dugu manipulatatu poltsan sartzean.
- Desinfekzioa eta garbiketa egokitu egin ditugu produktuen osakeraren arabera.



Birusaren kontrako musukoak

- COVID-19aren birusa ez-aktibo uzten duen lehen musukoa merkaturatu dugu.
- Jaitsi egin dugu musukoaren prezioa.



Lehen sektoreari laguntzea

- Lankidetzazko sistemak tokiko ekoizleei laguntzeko.
- Balioa ematen diogu tokiko ekoizleari eta gertuko produktuari.



Egokitzapen logistikoa

- Azkartasunez jokatu dugu denda bakoitzaren beharrian zehatzetara egokitzeko.
- Egokitu egin dugu gure produktu sorta bezeroen erosteko modu eta beharrian berrietara.



Zero hondakin balio katean

- Tokiko ekoizleen esku jarri ditugu gure dendak ohiko merkaturatze kanalak galdu dituztenean.



Informazioa eta sentsibilizazioa

- Eskularruen, musukoaren eta abarren hondakinak leku egokian bota.



EROSKI aplikazioa

- Aukera ematen du aurrezki-kupoak trukatzeko eta erosketen tike digitala eskuratzeko, paperean eman gabe eta, beraz, elkar ukitu gabe.



Elkartasuna ahulenekin

- Elkartasun kanpaina bereziak egin ditugu.
- Gurutze Gorriarekin eta Elkaragai Bankuekin. Musukoak eman dizkielegu gizarte bazterketa pairatzeko arriskua duten pertsonen.



Babesa tokiko merkataritzari eta HORECA sektoreari

- Lankidetzan aritu gara tokiko merkataritzarekin eta errestaurazioaren sektorearekin, deskontu gehigarriak eskainiz gure Bazkide Bezeroei.

Gobernu korporatiboa

102-10; 102-18; 102-30; 102-31

EROSKIn Kontseilu Errektoreak hartzen ditu konpainiari dagozkion erabakiak, eta Zuzendaritza Kontseiluak ere bai, lehenbizikoak haren gain uzten dituen arloetan. Gure gobernu ereduaren ezaugarria da egitura oso ongi zehaztua eta berezia duela erabakiak hartzeko, eta bermatu egiten du kudeaketa eraginkorra izango dela, alde guztiak koordinatuta baitaude.

Taldea osatzen duten sozietate guztiek bete egiten dituzte EROSKI Koop. E.-en Gobernu Korporatiboak ezartzen dituen jarraibideak.

Estatutu Sozialek (2020ko uztaillean eguneratu eta onartu ziren, nagusiki kooperatiben lege berrira moldatzeko) biltzen dute zer-nolako bateraezintasunak dauden Kontseilu Errektorearen eta Zuzendaritza Kontseiluaren artean besteak beste, eta webgune korporatiboan ikus daitezke (<https://corporativo.eroski.es/eu/nor-gara/erakundearen-gobernua/>).

Estatutu horiek bete nahian, eta egitura inguruko baldintza berrietara egokitzeko asmoz, 2020an berriro egin dira Kontseilu Errektoreko kideen erdiak, eta onartu egin zen Zuzendaritza Kontseiluaren osaera berria.

Kontseilu Errektorea

Kideak		Bokalak	
	Leire Mugerza Gárate Bazkide Kontsumitzailea (independentea) Lehendakaria		Oskar Goitia Zubizarreta Bazkide Kontsumitzailea (independentea)
	Nerea Esturo Altube Bazkide Langilea		Javier Pascual Sánchez Bazkide Langilea
	Iñigo Arias Ajarrieta Bazkide Langilea Lehendakariordea		Lander Beloki Mendizabal Bazkide Kontsumitzailea (independentea)
	Mª Carmen Iñurria Landeras Bazkide Kontsumitzailea (independentea)		Ana Isabel Zariquiegui Asiain Bazkide Langilea
	Sonia Ortubai Balanzategui Bazkide Kontsumitzailea (independentea) Idazkaria		Edorta Juaristi Altuna Bazkide Langilea
	Mª Asunción Bastida Sagarzazu Bazkide Langilea		Eduardo Herce Susperregui Bazkide Kontsumitzailea (independentea)


Zuzendaritza Batzordea



Gobernu Egitura

Kontseilu Errektoreari dagokio jasagarritasunaren arloan erabaki estrategikoak hartzea eta onartzea, Batzar Nagusiak ezarritzen dituen politika orokorrak oinarritzat hartuta, eta Zuzendaritza Kontseiluaren esku uzten ditu egoki ikusten diren funtzioak.

Gainera, organo kolegiatu gisa barnean sortuta dauden batzordeak honako hauek dira: Auditoretza eta Betetze Batzordea, zeinak gainbegiratu egiten dituen barne kontrolaren eraginkortasuna, arriskua kudeatzeko sistemak eta gobernu korporatiboaren politikak eta horien bete maila; Izendapen eta Ordainsarien Batzordea, zeina arduratzen den interes gatazkak eragozteaz eta kontuan hartzen ditu genero aniztasunaren inguruko gaiak; eta Batzorde Beteazlea.



```
graph TD; ZB[Zuzendaritza Batzordea] --> KS[Kontseilu Kontsumerista]; ZB --> TB[Tokiko Batzordeak]; KS --> KSZ[Kontseilu Soziala]; KS --> BE[Batzorde Eskudunak]; KS --> ZBZ[Zentroetako bilerak]; TB --> BL[Bazkide Langileen Prestakuntza Batzarrak]; TB --> BK[Bazkide Kontsumitzaileen Prestakuntza Batzarrak];
```

Zuzendaritza Batzordea
Kooperatibako Zuzendaritza Nagusiari aholkularitza ematen dion organoa.

Osaera
Taldearen erronka eta beharrian berriei aurre egiteko, 2020an Zuzendaritza Kontseiluaren osaera berria onartu zen, eta 2021eko otsailaren 1ean sartu da indarrean. Gainera, Rosa Carabel izendatu da EROSKI Taldeko zuzendari nagusi, eta zuzenean egongo da taldeko lehendakariaren mende, zeina Agustin Markaidek gidatzen duen.

Funtzionamendua
Se reúne mensualmente con el Consejo Rector.

Eskumenak

- Plan estrategikook eta kudeaketaren gainekoak prestatzea.
- Exekuzio planak onartzea eta garatzea.
- Kolaboratzaileen jardueraren segimendua eta kontrola egitea.
- Aliantzak negoziatzea.
- Erakundean kultura kooperatiboa sartzea..

Kontseilu Soziala
Kontseilu Errektorearen aholkularitza organoa da, langileen arloa lantzeko.

Osaera: 16 Bazkide Langilek osatzen dute.

Batzorde Eskudunak
Bazkide langileen ordezkariitza organoa da, eta aholkularitza eta informazioa ematen dizkio Kontseilu Sozialari eta zentroetako Bazkideei. Eskualdeka antolatuta daude.

Zentroetako bilerak
Hileroko bilerak dira, non ordezkari bakoitzak Bazkide Langileei sozietatearen informazio garrantzitsua ematen dien eta haiek funtsezko gaien inguruan duten iritzia jasotzen duen, baita eduki ditzaketen zalantzak edo iradokizunak ere.

Kontseilu Kontsumerista
Kontseilu Errektoreak pertsona kontsumitzaileen inguruko kontsultak egiteko organoa da.

Tokiko Batzordeak
Bazkide Kontsumitzaileen ordezkariitza organoa da, Kontseilu Kontsumerista aholkatu eta informatzen duena.

Bazkide Langileen Prestakuntza Batzarrak
Langile jabeek informazioa emateko urteko bilerak dira, Batzar Nagusian lantzen diren gaien berri emateko eta ordezkariak berresteko.

Bazkide Kontsumitzaileen Prestakuntza Batzarrak
Bazkide diren kontsumitzaileei informazioa emateko urteko bilerak dira, Batzar Nagusian lantzen diren gaien berri emateko eta ordezkariak berresteko.

VEGALSA-EROSKIren gobernu egitura

2020an zehar ez da aldatu gure araudia. Pandemiak eragindako egoerak behartuta, arlo operatiboan eta antolakuntza arloan bildu behar izan ditugu gure ahalegin guztiak gure bezeroen beharrezan erantzuteko. Vegon-sa Agrupación Alimentaria, S.A. (VEGALSA) sozietatean

%50eko partaidetza du EROSKik, eta horregatik, mendeko 22 sozietateen artean horrek bakarrik dauka bestelako gobernu eredu korporatiboa gai batzuetan, nahiz eta oso antzekoak diren eta Taldearekin adostuak.



Administrazio Kontseilua

- Javier Amezaga. Presidentea
- Rosa Carabel. Bokala
- Jorge González. Bokala
- José Alonso. Bokala

Administrazio Kontseilua

- Órgano superior de toma de decisiones de VEGALSA-EROSKI

Osaera
- 4 kide

Funtzionamendua

- Hilero biltzen da ohiko deialdi bidez.

Eskumenak

- Establezimendu komertzialak irekitzeari, itxeari eta lekuz aldatzeari buruzko erabakiak baimentzea.
- Inbertsio garrantzitsuak baimentzea.
- Zuzendaritza taldean aldaketak onartzea.
- Kudeaketa Planeko jarraibideak ezartzea.
- Urteko aurrekontu ekonomikoa lantzea.

Zuzendaritza Batzordea

- VEGALSA-EROSKIren kudeaketaz arduratzen den organoa

Osaera
- 10 kide

Funtzionamendua

- Hamabost egunetik behin biltzen da.

Eskumenak

- Administrazio Kontseiluak haren esku uzten dituen gaiak.
- Plan estrategikoak eta kudeaketaren gainekoak prestatzea.
- Exekuzio planak onartzea eta garatzea.
- Ekintzen jarraipena eta kontrola egitea.
- Erakundearen kultura kooperatiboari bultzada ematea.

Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa 102-16

EROSKIn konpromiso sendoa hartu dugu gure jarduerak modu arduratsuan kudeatzeko. Hori dela eta, gure araudiak ezartzen du zein diren zuzemen arauen mekanismo egokiak gure jarduerak legearen barnean gauzatu daitezzen eta printzipio etikoekin eta gizarte erantzukizunarekin bat egin dezaten.

Gure kulturak aukera ematen digu maila guztietan modu estrategikoan lerrokatzeko gure jokabideen printzipioak, zeinak gure politika nagusietan bilduta dauden, eta gure jokamolde arduratsua.

EROSKI kultura

EROSKI kulturak gidatzen ditu gure ekintzak, erantzukizuna eta zintotasuna oinarri hartuta, interesa duten alde guztien eskari erantzuteko eta guztien itxaropenak betetzeko.

Misioa

Gizarteari ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea, zertarako eta kontsumitzaileen bizi kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetzeko, kalitate, informazio eta prezio baldintzarik onetan, kontsumo jasangarria sustatzeko konpromisoarekin.

Bisioa

1. Kontsumitzaileen beharrak eta eskariak txertatzea gure estrategia komertzialean, gure dendak haien gogokoenak izan daitezzen.
2. Langileak jartzea gure jardueraren erdigunean: enplegu jasangarria eta kalitatezkoa sortzea bilatzen dugu.
3. Etekinak eskuratzeko lan egitea, aberastasun gehiago sortu eta modu solidarioan banatu dezagun.
4. Estrategian txertatzea gizartearen osasunaren, ongizatearen eta jasangarritasunaren aldeko konpromiso sendo bat. Horrekin bilatzen dugu:
 - Bezeroei soluzio egokiak ematea etengabeko berrikuntzaren bitartez.
 - Pertsonak integratzen dituen enpresa proiektu eta eredu bat sortzea.
 - Langileen garapen pertsonala eta profesionala sustatzea.
 - Espainiako merkatuan lidergo posizioak lortzea.
 - Etekinak lortzea aberastasuna sorrarazteko modua emango duen hazkunde bat ahalbidetzeko.
 - Gure inguruneko ekonomia indartzea tokian tokiko hornitzaileekin.
 - Kontsumitzaileen defentsarekin konprometitzea.
 - Ingurumena errespetatzea eta horren aldeko kudeaketa bultzatzea.
 - Gu gauden komunitatea hobetzen laguntzea.

Balioak

Kooperazioa

Langileak protagonista dira EROSKIn, ez bakarrik beren jabetzakoa den kooperatiban, baita gainerrako sozietateetan ere, erakundearekiko konpromisoa dela medio.

Partaidetza

Kontsumitzaileen iritzia txertatzen dugu kooperatibaren estrategian haien partaidetzarekin eta geure bezeroei era aktiboan entzunda.

Gizarte erantzukizuna

Jarduten dugun komunitatearen ongizateari laguntzen diogu, eta, aberastasunaren banaketa solidarioaren bitartez, haren garapen sozialean, kulturean eta ekonomikoan eragiten dugu.

Berrikuntza

Gure ustez, ezinbestekoa da gure jarduera eremuetan etengabe berrikuntzak egitea bai enpresak aurrera egin dezan eta bai gure jarduerak gizartean eta kontsumitzaileengan eragiten dituen itxaropenetara egokitu gaitzen.

Konpromiso

Gure egunerokoan aintzat hartzen dugu kontsumitzaileen osasunaren eta segurtasunaren defentsa, nola eta produktu sano, seguru eta osangarrien eskaintza eginez eta informazio garden, baliagarri eta oso bat emanez. Era berean, gure jarduerak ingurumenean duen eragin ezkorra gutxitzeko lan egiten dugu.

Jardunbide arduratsua eta kudeaketa mekanismoak

Gure kulturarekin bat eginez, eta printzipio etikoetan oinarritzen den kudeaketa moduarekin dugun konpromisoaren barnean, bete beharreko erreferentziazko marko bat ezartzen da EROSKI osatzen duten pertsona guztientzat edo gurekin harremanetan daudenentzat.

Marko horretan, gure Jokabide Kodeak agintzen du, zeina 2011. urtean onartu zen lehenik eta 2018ko martxoan berriz, berrikusi ondoren; horren helburua da EROSKIren jarduerak eta harremanak zintotasunez eta modu etikoan egingo direla bermatzea. Era berean, identifikatu egiten ditu printzipio eta konpromiso nagusiak eta agerian uzten du zein den erakundearen zuzemen arau egokia etikaren eta integritatearen arloan jokabide irregularrak prebenitu, antzeman eta desagerarazteko.

Ezinbestean, giza eskubideak errespetatzeko jarrera ere barne hartzen du gure konpromisoak, gure jarduera guztietan gainera, nazioarteko araudiak eta neurriak oinarri hartuta, eta horrek bat egiten du askatasun publikoen errespetuarekin eta unean-unean indarrean dagoen legegida zorrotz betetzeko nahiarekin.

Hori dela eta, EROSKI n aitortu egiten dugu Giza Eskubideen Nazioarteko Itunaren eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko hitzarmenen garrantzia eta eredutzat hartzen ditugu laneko jardunbideetan, eta ez ditugu onartzen hitzarmen horien aurka doazen jardunbideak. Gure hornitzaileetara ere zabaltzen da konpromiso hori eta, oro har, enpresa kolaboratzaileetara ere bai.

Bestalde, Jokabide Kodearen berri eman zaie gure langile, bazkide eta hornitzaileei, eta, beraz, jabetuta daude zer-nolako konpromisoen arabera jokatu behar duten. Horretaz gain, Salaketa kanal bat ere badaukagu gure printzipio etikoen eta bete beharreko araudien aurkako jokabideetarako. Horren funtzionamendua arautzen duen araudia 2011. urtean onartu zen lehen aldiz, eta 2018ko martxoan berriz, berrikusi ondoren.

Ustelkeriaren eta interes gatazken aurkako borroka 205-1

EROSKI n beharrezko diren mekanismoak ditugu gure printzipio etikoekin eta arautzaileekin bat ez datozen jokabideei aurre hartu eta horiek kudeatzeko.

Hori dela eta, lanean ari gara eta beharrezko bitartekoak jartzen ditugu gure printzipioekin bat egiten ez duten jarduerak eragozteko; legea zorrotz errespetatzen dugu gure jardunean eta baztertu egiten ditugu interes gatazken eragile izan litezkeen ekintzak. Era berean, zigorrei dagokienez, EROSKI Koop. E.-en Barne Erregimeneko Araudia dugu, Talde osoari aplikagarri zaiona.

Bestalde, zehazki ustelkeriaren eta kapital zuritzearen aurkako borrokan, Compliance Politika eta Ustelkeriaren aurkako Politika betearaziz gauzatzen ditugu gure ekintzak (2018ko abenduan onartu genuen Ustelkeriaren aurkakoa).

Era berean, Zigor Arriskuei Aurre Hartzeko planak zehazten ditu prebentziozko politikaren nondik norakoak eta barne kontrolerako neurriak. Alde horretatik, Zigor Arriskuei Aurre Hartzeko Eskuliburua landu da (2017ko urrian onartu zen), honako alderdi hauekin:

- Taldeak noiz edo noiz izan ditzakeen arrisku egoerak zerrendatzea.
- Delitu arriskua izan dezaketen operazioetako jardueraren protokoloa ezartzea.
- Delituei aurre hartzeko politika efikaz baten diseinurako beharrezkoak diren gomendioak formulatzea, non berebat definitzen baitira Taldeak zer-nolako ordezkaritza- eta kontrol-eredua izango duen honako alderdi hauei dagokienez: gorabeheren jakinarazpenak, neurrien ezarpena edo lehendik daudenen hobekuntza, eta Administrazio Kontseiluarentzako delituzkoak diren jarreraren jakinarazpena.

Horrekin batean, kapital zuritzea eta jarduera terroristari aurre hartzeko garaian, honako ekinaldi hauek egin dira 2020an:

- 2019ko abenduan onartu zen Eskuliburuko edukia landu eta ezartzea zuzendaritzetan. Plana jakinaraztea haren eraginpean dauden zuzendaritzei, Auditoretza eta Betetze Batzordeari eta Barne Kontrolerako Organoari.
- Dibertsifikatze negozioetan kapital zuritzeak eragozteko politikak ezartzea.
- Eskudirutan ordaintzeko bitartekoetarako protokoloak ezartzea saltokietan.
- Auditoretzak egitea frankizia erako negozioetan.
- Kapital zuritzeak saihesteko protokoloa ezartzea EROSKI Fundazioan.
2020. urteko Memoria lantzea, zeina 2021ean onartu behar den.
- Zuzendaritzei dagozkien euskarriak ezartzea alderdi hauetan: gai bakoitzaren egiazko jabetza egoki kudeatzea; negozio harremanak identifikatzea; bezeroen negozioari buruzko informazioa ematea, haren negozioaren jarraipenari buruzkoa, kanpo utzitako eragiketei buruzkoa; eragiketa susmagarrien azterketa fitxa egitea, alerfa zerranda, bezeroen arrisku fitxa.
- Abstentzio eskubidea arautzea.

Arriskuak kudeatzea 102-15; 102-30; 102-31

Arriskuen kudeaketa berezko prozesua da EROSKI Taldean, eta bermatu egin nahi du ezarritako helburuak lortuko direla negozioaren maila guztietan; identifikatu egiten ditu helburu horiek lortzeko traba izan daitezkeen faktoreak eta, behar denean, mekanismo egokiak ezartzen ditu kontrako eraginak gutxitzeko.

EROSKI Taldeak arriskuak kudeatzeko erabiltzen den metodologia COSO txostenean oinarritzen da; Committee of Sponsoring Organizations of the Treadway Commission delakoak argitaratua da metodo hori eta oso onartua dago maila globalean, eta marko orokor bat ezartzen du arriskuak modu integralean administratzeko. EROSKI Taldean araudia betetzeko markoa kode eta politika korporatiboek eta gainerako prozedurek osatzen dute, eta behar diren jarraibideak ezartzen ditu gure jarduerak berezko dituen arriskuak murrizteko eta horien eraginak arintzeko.

Arlo ekonomikoari, sozialari eta ingurumenari dagozkien inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu, ebaluatu eta kudeatzeko zeregina gure **Auditoretza eta Betetze Batzordearena** da nagusiki, eta zigor arriskuak daudenean, **Barne Kontrolerako Organoarena**. Horien ardura da komeni denean Kontseilu Errekoteari informazioa helaraztea, eta organo horrek zaintzen du erakundea mehatxatu dezaketen arrisku guztien kudeaketari dagozkion barne arauak egoki betetzen direla. Kontseilu Errektoea da arriskuak kudeatzeko ardura duen azken organo betearazlea.

Auditoretza eta Betetze Batzordearen ardura da arriskuak kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna gainbegiratzea, zeinak aztertu egiten dituen barne kontrolerako sistemaren ahultasun nabarmenak eta zaindu egiten duen arrisku politiken eraginkortasuna, eta, era berean, erakundearen arrisku mapak landu eta berrikusten ditu.

Compliance penal arloko betebeharrak betetzeko ardura **Barne Kontrolerako Organoarena da**, zeina Auditoretza eta Betetze Batzordearen mende baitago. Barne Kontrolerako Organoaren ardura da arrisku penalen prebentzioa eta kontrola egiteko neurriak lantzea, ezartzea, gauzatzea

eta jarraipena egitea. Gainera, Betetze Bulegoaren bidez, Zigor Arriskuei Aurre Hartzeko Plana kudeatu eta betearazteaz arduratzen da.

Plan horrek identifikatu egiten ditu gure jardueretan gertagarrienak diren delituak. Identifikatu den arrisku potentzial bakoitzari dagozkion neurriak ezartzen dira prebentziorako, monitorizaziorako eta ekintzarako. EROSKI osoa harrapatzen du, VEGALSA-EROSKI izan ezik, hark bere plana du eta.

COVID-19ak munduan eragin duen pandemiaren testuinguruan, Betetze Bulegotik txosten bat egin dugu ikusteko 2020ko ekitaldian zer-nolako eragina eduki ahal izan duen arrisku penalak kudeatzeko darabilgun sisteman.

Illo horretan, etorkizunean eremu penalean eragin nabarmena eduki lezaketen hainbat egoeraren analisia egin da. Egoera horiek izan daitezke pandemiak zuzenean eraginak edo alarma egoerak ekarritako araudi berriaren ondorioz sortuak.

Prebentzio testuinguru honetan, Kontseilu Errektoeak urtero sakon aztertzen ditu korporazioaren arriskuak oro har. Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean (E atala) --eskura dago EROSKIren webgunean-- arriskuei buruzko informazioa dator (arriskuak kudeatzeko sistemaren irismena, arriskuak kudeatzeko sistemaz arduratzen diren organoak, gauzatu diren urteko arriskuak, etab.).

EROSKI n ezarritako sistemak barnean hartzen du gure Arriskuen Mapa lantzea eta aldia behin eguneratzea, zeina konfidentziala edo isilpekoa baita. Dena den, orain ageri den taulan laburbiltzen da sektoreko enpresek nolako arrisku generikoei egin behar dieten aurre eta EROSKI k zer-nolako mekanismoak dituen horiei erantzuteko:

Kode Etikoa

Gure Kode etikoa eguneroko kudeaketaren ardatza da, eta praktikan honako lerro hauei jarraitzen die:

- Zuzendaritzaren helburu nagusien artean kudeaketa etikoa txertatzea.
- Bere gain hartzea eta laguntzea legerian jasotako gizarte erantzukizuneko mailak etengabe hobetzen.
- Adierazleen bitartez erakundearen jarrera etikoa egiaztatzea, alderdi hori hobetzeko premia duten jarduera eremuak zehazteko.
- Kudeaketa etikoaren aldetik hobekuntza helburuak finkatzea eta horiek lortzeko planak egitea edo hartzea.

- Kudeaketa sistemaren aplikazioan inplikaturik dauden pertsona guztiak behar bezala formatzea eta informatzea eta gizarte erantzukizunera begira jardunbide onak hartuko direla sustatzea.
- Hornitzaileak eta azpikontratatuak Kode Etikoa buruz behar bezala informatzea eta gizarte erantzukizunari buruz jakintza transferitzeko mekanismoak sortzea.
- Gure portaera sozialaz galdetzen diguten eta kanpokoak diren alde interesdunei kasu egitea (kontsumitzaileak, etxetxabe elkarteak, Administrazioa, bezeroak, hornitzaileak, etab.).
- Gure Kode Etikoa, haren arauak eta helburuen betetze maila era irekian eta efikazean jakinaraztea gizarteari.

Sektoreko arriskuak eta EROSKI dituen mekanismoak horiek kudeatzeko

Arriskua	Deskribapena	Kudeaketa Mekanismoak
Ekonomiaren eta merkatuaren bilakaera	Adierazle makroekonomikoen bilakaera: langabezia, kontsumoa, KPIa, interes tasak, truke tasa, etab, eta horiek kontsumo pribatuan eta konpainiaren salmentetan eduki dezaketen eragina. Prezioak gero eta garrantzi gehiago hartzea kontsumitzaileen erabaki faktore gisa	"Zurekin" eredua, zeinak indartu egiten duen bezeroen fidelizazioa EROSKI club-en bidez. (42. orr) Eskaintza eta deskontu berezien kanpainak Urrezko Txartelarekin eta EROSKI erosketa txartelen jabeentzat. (46. orr.) Kontsumitzaileen bilakaera aztertzea gure EROSKI 3C plataformaren bidez. (20. orr.)
Elikagaien kalitatea eta segurtasuna eta osasuna	Pertsonen segurtasuna edo osasuna arriskuan jartzea gure produktu bat edo hirugarren batena kontsumitu duelako, arreta berezia jartzen zaiela produktu freskoei.	Kalitatea Kudeatzeko Eredu sendoa. Urtean 15.000 kontrol analitiko baino gehiago egiten ditugu, 900 ikuskatze baino gehiago saltokietan eta 200 ikuskatze hornitzaileei. (79. orr.)
Arauak betetzea eta arau aldaketak	Lege aldaketak eta betekizun eta araudi berriak zenbait arlotan: jasangarritasuna; gardentasuna; datu babesa; eta diru-zuritzea, iruzurra, ustelkeria eta antzeko delituen kontrako neurriak.	Kapital zuritzeari aurre hartzeko eskuliburua, Arrisku penalen plana, Ustelkeriaren aurkako politika (30. orr.) Ingurumen Politika (102. orr.) Gardentasun konpromisoa Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko gure 10 Konpromisoetan (18. orr.)
Klima aldaketaren eragina balio katean	Hondamendi naturalak, ezbeharrak edo tenperatura aldaketak, eta horien ondorioz lehengaiak urritzea, zailtasuna sortzea produktu freskoak eskuratzeko eta/edo hornidurak mugatzea edo denda bat edo batzuk aldi batez ezin irekitzea, eta horrek kostuak igoaraztea.	Ingurumen Politika (102. orr.) eta Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 Konpromisoak. (16. orr.) Hurbileko kontsumoa eta ingurumen ziurtagiriak dituzten produktuak sustatzen dituen estrategia komertziala. (96. eta 106. orr.) Prozesuak eta instalazioak egokitzea ekoefizientzia handiago edukitzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko. (114. orr.)
Pertsonak eta lan baldintzak arduraz kudeatzea	Lan baldintza egokiak bermatzeko beharra, arreta berezia jartzen zaiola aukera berdintasunari eta diskriminazioaren aurkako borrokari.	Kode etikoa (31. orr.) Jokabide kodea (31. orr.) Salaketa kanala (30. orr.) Berdintasun Plana (62. orr.) Kalitatezko enplegua sortzea (51. orr.-tik 75.-era)
Langilearen osasuna eta segurtasuna	Istripuak izateko arriskua lanean, dendan, plataformetan eta egoitzetan.	LAPen formazioa jasotzeko planak (66. orr.) Laneko arriskuen prebentzio plan eta zerbitzuak (66. orr.) Barne auditoretzat (66. orr.) Larrialdi simulakroak (66. orr.)
Digitalizazioa	Igoera azkarra bezeroek kanal digitalen bidez egindako eskarietan, eta horretara egokitu beharra.	Omnikanaltasunerako estrategia eta proposamena. (45. orr.) Berrikuntza proiektuak digitalizazioan aurrera egiteko. (45. orr.)
Giza eskubideak balio katean	Hornitzaileek giza eskubideak eta lan eskubideak ez betetzeko arriskua.	Gure hornitzaile guztiei eskatzea sinatu dezatela gure kode etikoa. (93. orr.) Kanpo auditoretzen bidez jarraipena egitea arrisku gehien duten hornitzaileei: ehungintzako eta elikagaietatik kanpoko sektoreak Asiako herrialdeetan. (155. orr.)
COVID-19ak izandako ondorioen eta eraginaren jarraipena	Aldi baterako murrizketak hornigaietan edo dendak irekitzeko garaian, pertsonen osasuna edo segurtasuna arriskuan dagoelako, eta mugikortasuna mugatzea administrazioak hala erabaki duelako osasun krisia kontrolatu nahian. Segurtasun neurriak egokitzea pandemiak duen bilakaeraren arabera.	Segurtasun protokolo berriak dendetan eta lantokietan. (50. orr.) Omnikanaltasunerako estrategia eta proposamena. (45. orr.) Hordidura prozesua egokitzea hornigaiak bermatzeko (89. orr.) Tokiko ekoizleak babestea (96. orr.) Inguru hurbilenari elkartasuna adierazteko ekintzak indartzea. (124. orr.)

VEGALSA-EROSKIren kudeaketa arduratsua

VEGALSA-EROSKI n Betetze Batzordearen ardura da araudia betetzen dela kontrolatzea, Kode Etikoa, politiketan eta prozeduretan ezartzen diren arauak eta jokabideak aintzat hartuz. VEGALSAren berezko organoa da batzorde hori.

Era berean, salaketa kanal bat ere badugu, barneko mar-ko etiko eta arautzailearen aurkakoak diren ekintza guztiak jakinarazteko eta biltzeko, eta berdin indarrean den lege-diaren aurkakoa den ekintzaren bat gertatzen denean ere.

Kode Etikoaz gain, zeina 2018ko maiatzean onartu zen eta 2019ko maiatzean sartu zen indarrean, bete beharreko arauak sei politikatan laburbiltzen dira VEGALSA-EROSKI n: pribatutasuna eta konfidentzialtasuna; ustelkeriaren aur-kakoa; interes gatazkak; erosketak eta kontratazioak; dona-zioak eta babesletzak; eta eskaintzak eta opariak.

Arriskuak kudeatzea

VEGALSA-EROSKI n bi sistema ditugu arriskuak kudeatzeko, bakoitza bere funtzionamendu bereziarekin baina koordinatu-ta daudenak. Azken ardura Administrazio Kontseiluarena da bietan.

Arrisku Korporatiboak Kudeatzeko Sistema da bat, eta Deli-tuak-Arrisku Penalak Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Programa bestea (Compliance). Sistema bakoitzak dauka bere egitura, bere kudeaketarekin eta kontrol organoekin.

Organo horiek dira, batetik, Arriskuen Analisisirako Batzordea, arrisku korporatiboez arduratzen dena, eta Betetze Batzordea, bestetik, arrisku penalak kudeatzen dituen.

Era berean, Administrazio Kontseiluak onartu ditu zuzemen arauen prozesuei dagozkien arauak eta metodologia. Deli-tuak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Eskuliburuan sartzen da Erabakiak hartzeko Protokolo bat, zeina kontuan hartu behar-

ko luketen erabakitzeko boterea duten organo guztiek eta sozietatearen borondatea eratzeko garaian funtzioen bat dutenek.

Arriskuen Analisisirako Batzordeak urtean bitan berri ema-ten dio Administrazio Kontseiluari, eta Betetze Batzordeak urtean behin, arriskuen deskargua eginez eta intereseko gaien berri emanez. Sail Juridikoaren Betetze Atalak bi des-kargu egiten ditu urtean, Betetze Batzordearen aurretik, zeinari informazioa bidaltzen dion anomaliaren bat antze-maten duenean.

Kode Etikoa

Gure Kode Etikoa jasota daude gure jardueraren alor guz-tietan aplikatzen ditugun printzipio etikoak eta balioak, eta horren osagarri dira Betetze Politikak eta horiei dagozkien prozedurak.

- **Legezkotasuna:** legea eta barne araudia zorrotz betetzea.
- Pertsonen osasunaren eta segurtasunaren aldeko **konpromisoa**.
- **Errespeturik handiena**, ekitatea eta duintasuna langile, kolaboratzaile, bazkide eta lehiakide guztientzat eta Sozietateari loturiko gainerakoentzat.
- **Irizpide objektiboak** langileak hautatzeko eta promoziorako.
- **Gardentasuna**, objektibotasuna eta profesionaltasuna jarduera guztietan eta interes taldeekiko harremanetan.
- **Zentzuz eta egoki erabiltzea** baliabide guztiak, Sozietatearen aktiboak babestuz.
- Intimitatea, **datuen babesa** eta isleko informazioa.
- **Konpromisoa** ingurumenaren alde.





2

"Zurekin" konprometitua dagoen negozio eredu bat

Gure bezeroen zerbitzura dagoen sare komertziala

Negozio eredua

102-2; 102-4; 102-6



Gure negozio eredua formatu askotariko enpresa bate-rantz doan eredu bat da, erantzuna emango diona gure bezeroei sortzen zaizkien behar desberdinei. Alde horretatik, izen sorta bat hartzen du gure negozio eredu nagusiak, hau da, elikadura, bidaia agentziak, gasolindegia, kirol dendak, optikak eta aseguruak

Hori dela eta, askotariko sare komertzial eraginkor bat dugu, 1.616 saltoki fisiko osatua, 1,2 milioi m² hartzen du-tenak, non guregan konfiantza jartzen dutenen erosketa

prozesuak erraztea eta estaldura ematea bilatzen baita. Era berean, jarraitzen dugu gure posizioa indartzen online salmentaren arloan; alde horretatik, zortzi online denda ditugu.

EROSKI Taldearen barruan zenbait entitate daude negozio lerroetan eta eskualde geografiko jakinetan espezializatuta daudenak, eskaintzen ditugun produktuen eta zerbitzuen kalitatea eta bikaintasuna gero eta handiagoa izan dadin saiatzen garenez gero. Hona hemen nabarmentzeko batzuk:



CAPRABO

Espainiako supermerkatu enpresarik zaharrena da: 60 urteko ibilbidea egina du, eta EROSKI Taldearen parte da 2007tik; haren supermerkatuak Kataluniako eta Andorrako zona estrategikoetan daude. 2021eko hasieran, bazkide berri bati eman diogu sarrera Kataluniako eta Balearretako supermerkatu negozioen kapitalean; horrek proiektua oro har indartzen eta eremu horietan handitzen lagunduko du.



VEGALSA-EROSKI

1998tik da EROSKI Taldearen parte, eta erreferentziazkoa da Galiziako banaketa komertzialean. Partaide-tza erdibana dute Ventura Gonzalez familiak eta EROSKIk. Gaur egun, inguruko erkidegoetara zabaldua du bere jarduera, hots, Asturiasera eta Gaztela eta Leonera, zeinetan sendo ezarria baitago, eta EROSKI izena ez ezik baditu Familia eta Onda izenak ere



FORUM SPORT

EROSKI Taldearen kirol arloa hartzen du; 25 urtetik gorako eskarmentua du kirol materialaren salmenta espezializatuan, eta 12 autonomia erkidegotan dago. Haren sare komertzialean zenbait denda daude, sneaker setan eta Dooers gazteen-tzako arropa markan espezializa-tuak.



GASOLINDEGIAK

EROSKik 2020. urte amaieran 40 ga-solindegia zituen, bere hipermerka-tuen eta supermerkatuen ondoan estrategikoki kokatuak. EROSKI ga-solindegiek kooperatibaren politika bera dute, hau da, beren bezeroei ahalik eta preziorik onenak eskain-tzea, ordaintzeko erraztasunak jart-zea eta deskontuak egitea.



EROSKI Bidaiak

EROSKI Taldearen bidaia agentzia (hor sartzen dira Viatges Caprabo, Katalunian, eta www.viajeseroski.es eta www.viatgescaprabo.com on line bulegoak). Oporren sektorea ez ezik, enpresentzako zerbitzu eskusi-boak ditu hiri handienetan (besteren artean, Madrilan eta Bartzelonan), eta dibisio berezi bat du konben-tzioak eta biltzarrak antolatzeko, Travel Air Events izenekoa. Travel Air, era berean, partaide da GEBTAn (Guild European Business Travel Agents) eta ITPn (Internacional Travel Partnership).



OPTIKAK

EROSKik 11 zentro optiko ditu, profe-sionalik, produkturik, zerbitzurik eta bermerik onenekin. Haren optiketan, kalitate eta diseinu askotako pro-dukto gama zabala eskaintzen da: betaurreko graduatuak eta eguzki-takoak, ukipen leiarrak, likidoak eta osagarriak, eta abar.

Elikaduraren arloko
1.348 saltoki.

Askotariko
268 negozio saltoki, hala nola bidaia agentziak, gasolindegia, kirol dendak eta optikak.

Gainera, denda propioak ditugu Espainiako Autonomia Erkidego askotan, baita frankizia erako dendak ere, batzuk An-dorran eta Gibraltarren (Erresuma Batua).

EROSKI Taldearen saltoki eta frankizia kopurua negozioaren arabera

1.624

Denda guztira

1.066

denda propioa

558

frankizia denda

Ikus adierazleen eranskinen 1. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Negozia	Propioak	Frankiziatuak	Guztira
Hipermerkatuak	37	-	37
Supermerkatuak	761	532	1.293
Cash&Carry	18	-	18
Gasolindegia	40	-	40
Optikak	11	-	11
Bidaia agentziak	123	25	148
FORUM SPORT kirol dendak	68	1	69
On line dendak	8	-	8

EROSKI Taldearen supermerkatu eta frankizia kopurua negozioaren arabera

1.293

Denda guztira

761

denda propioa

532


frankizia denda

Ikus adierazleen eranskinen 2. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Supermerkatuen izena	Propioak	Frankiziatuak	Guztira
EROSKI/City*	307	267	574
CAPRABO	213	74	287
EROSKI/Center	164	2	166
ALIPROX	0	114	114
FAMILIA	76	0	76
ONDA	0	48	48
RAPID	1	27	28

*EROSKI/Cityren kopuruan sartzen dira MERCA saltokiak, aurreko urteetan desglosatuta agertzen zena.

Banaketa, autonomia erkidegoen eta saltokien negozioen arabera



Denda seguruak eta ziurtatuak

EROSKik Bureau Veritasen Clean Site ziurtagiria atera du bere denda guzti-guztietan; horren bitartez, bermatzen du saltokietan behar bezala aplikatzen dituztela garbiketa eta desinfekzio protokoloak, baita segurtasun neurri egokiak ere, bai bere langileentzat eta bai bezeroentzat, COVID-19. Ebaluazioan, Bureau Veritasek desinfekzioa, segurtasuna eta higieena nola egiten diren aztertzen du pandemiaren ondorioz indarrean den legedia kontuan izanda eta osasun agintari baimenduek prebentzio arloan emandako gomendio askotarikoak aintzat hartuta.

Saltoki propioak Frankizia erako saltokiak

	Negozioak elikadura							Negozioak dibertsifikatuak						
	Hipermerkatuak	Supermerkatuak	Cash&Carry	Gasolindegia	Optikak	Bidaia agentziak	Aisia-Kirola*	Propioak guztira	Hipermerkatuak	Supermerkatuak	Bidaia agentziak	Aisia-Kirola	Frankizia guztira	Guztira
Andaluzia	3			1	1			5		51	1		52	57
Andorra								0		4			4	4
Aragoi		36		1		4	2	43		25			25	68
Asturias	1	11	1	2		5	7	27		1			1	28
Kantabria	1	8		1		5	5	20		9	3		12	32
Gaztela eta Leon	1	20		1		8	12	42		11	1	1	13	55
Gaztela-Mantxa	1			1		2		4		3			3	7
Katalunia		213		2		1	1	217		75	1		76	293
Ceuta								0					0	0
Valentziako Erkidegoa	1			1		1	2	5		7			7	12
Extremadura						1		1		2			2	3
Galizia	5	147	17	3		4	2	178		116	4		120	298
Gibraltar								0		3			3	3
Balear Uharteak		107		3				110		72			72	182
Kanariar Uharteak								0					0	0
Errioxa	1	10		1		6	3	21		7			7	28
Madril						3	1	4		18			18	22
Melilla								0					0	0
Murtzia							1	1					0	1
Nafarroa	2	53		4	1	14	6	80		33	4		37	117
Euskal Autonomia Erkidegoa	21	156		19	9	69	26	300		95	11		106	406
Guztira	37	761	18	40	11	123	68	1.058	0	532	25	1	558	1.616

* Aisia-Kirola atalean FORUM SPORT eta Dooers sartzen dira

Ikus adierazleen eranskineko 3. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Balio partekatua sortu dugu 102-7; 201-1; 203-2; 413-1

2020ko ekitaldia ezohikoa izan da pandemiagatik, bai ho-
rrek eragindako mugikortasun murrizketengatik eta bai fa-
miliek eta oro har kontsumitzaileek egin behar izan dituzten
ohitura aldaketengatik.

Jeneralean, taldearen jardura bolumena igo egin da,
nahiz eta behera egin aisiari, kirolari eta turismoari eragiten
dioten zenbait jarduerak. Taldeak egokitzen jakin du behar
berrietara, eta lan bikaina egin du, behar bezala erantzun
baitie gure bezeroen beharrei, bai zerbitzu aldetik eta bai
segurtasun aldetik. Ondorioz, hala gure jardura nola gure
gastuak igo egin dira segurtasun eta higiene behar berrien
izenean, baina ondorioa izan da etekin operatiboa hobetu
dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta hala azken

urteetako hazkunde joerari eutsi dio. Joera horrek indartu
egiten du datozen urteetarako daukagun estrategia, eta
jarraipena ematen die proiektuak eraginkortasunaren ar-
loan hobetzeko dakartzan planei.

Gainera, urtea amaitu dugu bazkide berri bati sarrera
emanez Kataluniako eta Balearretako supermerkatu ne-
gozioen kapitalean; horrek proiektua oro har indartzen eta
eremu horietan handitzen lagunduko du.



EROSKI Taldearen ustiapen kontuak (Datuk milaka eurotan)

Zuzenean sorturiko eta banaturiko balio ekonomikoa	2020	2019	2018
Ohiko sarrerak	5.051.869	4.835.650	4.958.957
Banaketaren salmenta garbiak	4.807.439	4.584.227	4.698.075
Ibilgetuaren salmentatik etekinik ez duten beste sarrera batzuk	244.430	251.423	260.882
Etekin operatiboa (ibilgetu salmentek eta aktibo ez-korronteek eragindako narriaduren aurretik)	252.410	193.840	163.616
Narriadura, ibilgetu salmenten emaitzak eta aktibo ez-korronteak	-198.765	-162.602	-42.883
Finantzarioen eta zergen aurretiko etekinak	53.449	31.238	120.733
Emaitza finantzarioa	-104.503	57.526	-114.513
Partaidetza inbertsioen etekinak/galerak partaidetza metodoa aplikatuta	232	1.436	-1.711
Mozkinen gainerako zergak	-26.740	-45.028	-2.923
Etendako jardueren etekin garbia	0	0	0
Ekitaldiko emaitza	-77.562	45.173	1.586

Aberastasuna sortzen dugu gure ingurunean


EROSKIn, gure jarduerarekin lorturiko etekinak kooperati-
bako bazkide-langileei eta taldeko gainerako sozietateei
banatu ez ezik, aberastasuna sortzen dugu zuzenean gure
balio kateko eragile askotarikoetan:

- bezeroetan, eskaintza pertsonalen, kanpainen eta sustapenen bidez;
- gure hornitzaileetan, harreman komertzialengatik egindako erosketen bidez eta gure erosketa eta

hornidura politikaren bidez nekazaritzako elikagaien
sektore jasangarri bat bultzatzea bilatzen baitu;

- langileetan, beren zereginengatik ordainaren eta beste ekarpen batzuen bidez;
- Estatuan, ekarpen sozialen, zergen, irabazien gaine-ko ekarpenen eta beste tributu batzuen bidez;
- gizartean, Taldeak eta EROSKI Fundazioak xede sozialekin egindako jardueren bidez eta ingurume-na babesteko garatzen ditugun ekintzen bidez.

Balioa sortzen gure ingurunean



"Zurekin" eredu komertziala


Gure xedearekin bat etorritik, "zurekin" eredu komertzialaren asmoa da gure bezeroei kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzea, haiek espero duten hori betetzea eta hazten jarraitzea osasunaren eta jasangarritasunaren bultzadaren oinarrituta.

Alde horretatik, Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartuak ditugun Konpromisoak betetzen saiatzen gara, ere-

du estrategikoak diseinatuta. Eredu horiek modua ematen digute negozio unitateen garapenean txertatzeko .

Bereizten gaituena: ohitura osasungarriak eta jasangarriak sustatzeko erantzunak ematen dizkiogu kontsumitzaileari.

"Zurekin" ereduaren ardatz estrategikoak.



Erakargarri komertzial berezia

EROSKIn, "zurekin" eredu komertzialaren bitartez, gure bezeroei produktu gama zabal bat eskaintzeko lan egiten dugu, freskoetan espezializatuta eta tokiko produktua balioan jarrita. Gure helburua da bezeroari balio berezia eskaintzea eta eskaintza inklusiboa egitea kalitatearen eta elikadura osasungarriaren bitartez, haren behar espezifiko askotarikoei erantzunak bilatuz eta aipaturiko ezaugarriak dituen hautu posibilitate handiagoei emanez. Azken horretarako, gure sortaren dentsifikazio proiektu bat dugu martxan, aukera emango duena bera %15 handitzeko, dendan beste 800 erreferentzia inguru izango direlarik. Horrek estatura handia-

goa emango die tamaina txikiagoko dendetan sortzen diren behar askotarikoei.

Horrez gain, prezio lehiakorrek ezarritik hauturik onena izateko lan egiten dugu, horrek modua ematen baitigu gure produktuak kalitate-prezio aldetik posizio indartsu batean kokatzeko, eta hala errazagoa da gure kontsumitzaileei aurrezteko modua ematea. Alde horretatik, gure bezeroen erosketan aurrezpen zuzena dakarten kanpainak bultzatzen ditugu; esaterako, BEZa oparitzen dizugu.

Balioa sorrarazten dugu gure marken bitartez

Gure marka propioak produktu bereziak eta erreferentziatzeko kalitatea dutenak dira, baita prezio harreman bikainekoak ere. Gure helburu nagusia da bezeroei produkturik onena eskaintzea, haiek espero dutena betetzea eta alderdi onetik ezustekoa ematea gure saltokietara datozenean.

Kalitatezko produktuak eskaintzearekin batera, gure bezeroen gogoa asebetetzeko, gure marka propioen gaman sartu ditugu produktu berriak, eta, gainera, produktu ekologikoen marka berri bat atera dugu elikagaietan, EROSKI Bio eta EROSKI Natur Bio izenekoak eta drogerian EROSKI Eco. Hala, 2020an, guztira 251 erreferentzia berri sartu ditugu marka propioan, eta dagoeneko 5.000tik gora daude. Horien artean, nabarmentzekoak dira EROSKI SeleQtia-aren errege opil berriak, EROSKI Euskadi urdaitegia eta EROSKI Natur frutatxoaren gama.

Marka propioko produktu kopurua

		2020	2019	DESKRIBAPENA
	EROSKI SeleQtia	226	359	Onetan onena. Basque Culinary Centerrek egiaztatuta datozen produktuak
	EROSKI	2.172	2.724	Gama zabala, behar duzun guztia, prezio-kalitate harremanik onena bermatuta.
	EROSKI Natur	457	490	Zapore guztia, trazabilitate osoa eta kalitate kontrolatua duten produktu freskoak, sorbururik onenetik eta unerik onenean ekarriak.
	EROSKI Bio, EROSKI Natur Bio eta EROSKI Eco	68	0	2020an ateratako marka berria, ekologikoaren ziurtagiria duten ontziratutako elikagaietarako eta freskoetarako eta drogeriako produktuetarako, zeinak ekoitziak eta landuak izan baitira ingurumena babesteko baldintzarik onenetan.
	belle	437	464	Kosmetikako, higieneko eta zainketa pertsonalerako produktuak, parabenorik eta triklusanik gabeak, dermatologikoki testatuak eta preziorik onenean.
	EROSKI Basic	227	315	Diseinu propioko arropa eta oinetakoak eta kalitate/prezio onena.
	Visto Bueno	1.405	1.747	Diseinu propioko arropa eta oinetakoak eta kalitate/prezio onena.
	Romester	151	316	Diseinu propioko kiroltako arropa eta ekipamendua eta kalitate/prezio onena.
	Ecron	35	53	Aparatu elektronikoak eta etxeko aparatu elektrikoak funtzionaltasun maila askotakoak eta kalitate/prezio onena.

Belaunaldi berriko dendak

"Zurekin" eredu komertzialak gure belaunaldi berriko dendak definitzen ditu, sare komertziala eraldatuta gure saltokietan esperientziarik onena eskaintzeko helburuz. EROSKI erantzuna eman nahi dio gizartean sortu diren eskariei jasagarritasunaren eta digitalizazioaren joera berrien barnean.

Hala, belaunaldi berriko gure denden bitartez, irtenbide berritzaileak eta eraldatzaileak bultzatzen ditugu, nola eta formatu ugariako ereduak ezarrita, saltoki eraginkoragoak eginda eta tratu pertsonala eta hurbila autokudeaketarekin uztartuta.

Pandemiak markatutako testuinguru berri honetan, gizarteak gero eta gehiago eskatzen ditu tokian tokiko produktuak eta produktu freskoak. EROSKIren nortasun ikurra izateaz gain, belaunaldi berriko denden bultzadaz, berme handiagoarekin bete ditzakegu gizartearen eskakizunak.

Irekiak eta eraldaketak

2020an, nahiz eta COVID-19aren ondorioz urte hau berezia eta egokitzapenezkoa izan den, jarraitu dugu 92 supermerkatuak eta hipermerkatuak "zurekin" eredu komertzialera eraldatzen.

2020an, elikadurari loturiko negozio unitateetan, 71 irekiera berri kudeatu dira (20 denda propio eta 51 frankizia erakoak), gure presentzia erreferentziazko operadoreak garen eskualdeetan indartzeko planaren harira. Era berean, 70 itxiera egin ditugu (30 denda propio eta 40 frankizia erakoak.), negozio egitura ingurune behar berrietara egokitzeko helburuarekin. COVID-19ak sorrarazi duen testuinguruan, bereziki kaltetu da turismoaren sektorea, eta, horrekin batera, bidaiaria agentziena; hala, itxierak egin behar izan ditugu, gehienbat ezarri diren murriztapenengatik jarduera faltagatik.

Nola eragin dien COVID-19ak elikaduraren arlokoak ez diren negozioei

EROSKI Bidaiak

2020. urtean pandemiak turismoaren sektorea paralizatu du inoiz ez bezala. Izugarri eragin dio balio kate osoari, bai arlo ekonomikoan eta bai martxan ziren proiektuen garapenean ere. Horren ondorioz, EROSKI BIDAIK agentziak 2020 amaieran ez du izan 2019ko kopuruen %20a gainditerik.

Ezjakintasuna oso handia da oraindik, eta, nahiz eta txertoa lortu duten, badirudi biztanleriaren immunitatea ez dela lortuko uda arte. Hortaz, sektorearen berreskurapena motela dago oraindik ere.

Kontuan izanda nolako erronkak ditugun, EROSKI BIDAIK lanean ari da bere ikuspegia betetzeko, hau da, erakunde digital, errentagarri eta omnikanal bat izatea, zeina osatua baitago horko langile izateagatik harro dauden profesional engaiatuz; izan ere, gure ospea hortik dator, bidaiariei

laguntzeko egiazko borondatek, haien leialtasunetik eta gure prozesuen eraginkortasunetik.

Alde horretatik, 2021ari heltzeko orduan, sare eta prozesuak ugartzea eta optimizatzea izan dugu jopuntuan, bezeroari gure zerbitzuaren berezitasuna erakusteko.

FORUM SPORT

Kirol merkatuaren negozioan askotariko osagaiak eta joera desberdinak egon dira, COVID-19agatik eta jendearen eta eguneroko ohituren murriztapenak direla medio eragin duen testuinguruagatik. Adibidez, banaka praktikatzen den kirolak gora egin du taldekakoari erasan zaion bitartean, eta horrenbestez, horrek kontsumitzaileen beharrei eragin die, eta arazo puntualak izan dira ziklismoaren, home fitnessaren, padelaren eta abarren horniduretan.

Gainera, joera globalen eragina ere izan du. Esaterako, salmenta kanal digitalen bultzada, turismoaren sektorearen eta eskaera handiko produktu kategorien eragina (dela txirrindularitza eta dela home fitness). Hortaz, 2020an, gure jarduera baldintzatu egin du kanpoko testuinguruak.

Alde horretatik, lanean aritu gara sortu diren aukerak aprobetxatzeko ezjakintasun ingurune batean, nola eta gure guztitarako kanaleko eta onlineko produktu gama hobetuta eta gure komunikazio eta entzuketara prozesuak finduta, besteak beste.



Indartu egin dugu gure posizio omnikanala. EROSKI lehen baino digitalago

EROSKI gure proposamen omnikanala indartu dugu gure kanal digitalen posizionamendua bultzatuta; hala, denda fisikoek bezala, kanalok aukeraren erosotasuna eskaintzen diote bezeroei, eta behar duten horretara egokitzen dira, erosketa esperientzia hobea emanez eta online-offline muga ezabatuz.

Online supermerkatua

Online supermerkatuan, gure digitalizazio estrategia eta proposamen omnikanala islatuta dago, web plataformaren bidez zein EROSKI aplikazioaren bidez. 2020an, online negozioak hazkunde handia izan du, eta EROSKI Onlinek baita laukoiztu ere egin ditu kanal horren ohiko salmentak.


Gainera, pandemiak eta murrizketek kontsumo ohiturak aldarazi dituzte. Kanal digitalak bezero berrien ehuneko handi bat izan du, erosketa lehenengoz egin dutenak eta gainera prozesua beste behin errepikatu dutenak.

Online supermerkatuak bezeroen arteko erosketa prozesua eta interakzioa errazten digu, nola eta erosketak etxera eramateko aukera emanda, produktuen balorazioa eginda eta dendan edo armairu adimendunetan jasota, zeinak modua ematen baitu bezeroak online eskaria doan jaso dezan egunean bertan.

2020an, zerbitzu berriak jarri ditugu martxan; esaterako, online eskarien jarraipena, etxera eramateko orduan itxaroten denbora gutxiago emateko. Horretaz gainera, gure proposamen komertziala zabaldu dugu elikagaiak ez diren beste 3.000 artikulurekin baino gehiagorekin; hala, aukera handiagoa du orain bezeroak.

EROSKI arreta berezia jarri dugu adinekoetan eta etxetik atara ezin zutenetan, ulertzen baikenuen nolako zeregina egokitu zitzaigun une zail horretan. Hori dela eta, kanal digitala jarri dugu haien eskura, eta doan eraman dizkiegu eskariak etxera.

Era berean, etxera eramateko protokolo bat jarri dugu, batez ere etxeko tresna elektrikoaren kasuan, prebentzio neurri zorrotzekin.



EROSKI aplikazioa

Tresna horrek arinagoa egiten du online erosketaren prozesua, eta, gainera, abantaila sail bat dakar erabiltzaileentzat. Eraldaketa digitalaren aldeko gure apustuan, aplikazioa bera eta haren funtzionaltasunak indartu ditugu, batik bat honela:

- Erabiltzailearen esperientzia hobetuta hasiera orri pertsonalizatuarekin.
- Funtzionaltasun berriak txertatuta, hala nola produktuen eskanerra, errezeta bideoak sasoiko produktuenak, deskontuak aktibatze modu berriak eta eskuorri digitalak.

Bestalde, COVID-19a dela eta, aplikazioa garrantzizko informazio kanal bihurtu da.

Alde horretatik, **COVID-19aren gaineko berrien** atala sortu dugu aplikazioan. Atal horretan, erabiltzaileak bere zailantzak argitu ditzake, eta behar duen informazioa jaso:

- Ordu-tegi aldaketak.
- Gomendioak eta neurriak dendetako segurtasuna bermatzeko.
- Zerbitzuak eta abantailak kolektiborik zaugarrienei laguntzeko.

Horretaz gainera, zabaldu egin dugu EROSKIren den-dei buruz eskura jartzen dugun informazioa: ordu-tegiak, kokapena, kontakturako telefonoa, eskuorriak...

Azkenik, jende askoko egunetan, informazioa jartzen dugu dendetan dagoen jende kopuruaz eta kopuru horien gora-beheraz egunka eta orduka. EROSKI aplikazioa bezeroaren laguntzaile aparta bihurtu da une zail horietan, eta izaten ari da oraindik ere. Joan den urtean, %34 igo zen aplikazioaren deskarga kopurua.

Urteko Merkataritza Sariak

Laugarrenez, urteko WebShop saria eman digute, urteko Merkataritza Sarietan, online supermerkatuen kategorian. Kontsumitzaileek bere ere proposamenik onena gaila iritzi diote kategoria hauetan: Hurbileko supermerkatuak, Bezeroaren gogobetetzea eta Frankiziak.

Harremana Bazkide Bezeroekin

EROSKIn ohitura osasungarriagoak eta jasangarriagoak sustatu, eta eskura jarri nahi dizkiegu bezeroei, elikaduratik hasi eta beren beharrak modu arduratsuagoan beteko dituzten zerbitzuetaraino.

Era berean, merezi duten arreta pertsonalizatua eskaintzen diegu, baita fidelizazio programak ere abantailak izan dit-

EROSKI Cluba

EROSKI Cluba gure fidelizazio programa da, eta haren bitartez gure bazkideek eskaintza eskusibook lor ditzakete. EROSKI Clubarekin gehiago aurrez dezakete eta erraztasun handiagoa izango dute erosketa prozesuetan. Gaur egun, sei milioi lagunek baino gehiagok dituzte EROSKIren, CAPRABOren eta FORUM SPORTen txartelak, eta salmenten %70 baino gehiago hartzen dituzte batez beste.

Uda honetan, pandemian, EROSKI clubeko 118.700 bazkide berri atzeman ditugu eta, gainera, 10.300 lagunek deskargatu dute gure aplikazioa.

- EROSKI Cluben Urrezko txartelak %4ko aurrezpen finkoa eta unibertala ematen du erosketa guztietan; dagoeneko 148.470 Bazkide Bezero ditu eta 35 enpresa, 3.662 langile biltzen dituztenak eta Urrezko Enpresa Bazkideak direnak.
- EROSKI Cluben ordainketa txartelak EROSKI Club programaren abantaila guztiak batzen ditu, eta, gainera, EROSKItik kanpo erositakoaren %1 bueltan jasotzeko modua ematen du, diru hori EROSKI Club txartel elkartuan sartuta; dagoeneko, 286.789 titular ditu.

Kalitatezko arreta pertsonala. Zurekin gaude

EROSKIn, funtsezkotzat dugu bezeroarekin konfiantzazko harremana izatea; horixe da "zurekin" ereduaren lehentasunetako bat eta hala jasota dago Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartuak ditugun 10 Konpromisoetan.

Pandemiak markatutako urte honetan, jarraitu nahi dugu geure ezaugarri den gertuko eta konfiantzazko harremana izaten; lanean ari gara geure bezeroen beharrak betetzen, espero duten hori ematen eta beharrean direnean laguntzen. Gure bezeroei helarazi nahi diegu ondoan gauzkatela!

EROSKI bere proposamen komertzialaren aldetik apustu egiten ari da kontsumitzailea erdigunean jarritz eta haren erosketa esperientziari lehentasuna emanez. Ikuspegi horrek bereizten gaitu, produktu freskoetan dugun espezializazioagatik eta mostradorean laguntzeko salmenta zerbitzua hobetzen jarraitzeagatik.

Alde horretatik, gure zutabeak dira langileen gaitasun profesionala eta prestakuntza etengabea, eta horren bitartez bihurtzen gara freskoeen arloan are eta espezialistagoak.

zaten eta beren eskarietara hobeto doitzen diren erosketak egiteko modua izan dezaten.

EROSKI beren ohiko denda izatea aukeratu eta eskaintzen ditugun abantaila guztiak aprobeitzatzen dituztenek 600 euro ere aurreztera iristen dira urtean, gure supermerkatu eta hipermerkatuetan.

COVID-19aren pandemian, inoiz baino gehiago egon nahi izan dugu jendearen ondoan. Bereziki, EROSKI Clubeko gure bazkideei lagundu diegu informazio xehea era pertsonalizatuan emanez, baita eskaintza bereziak eginez ere etxean behar gehiago eta kontsumo handiagoa sortzen ari den une hauetan; hona hemen nabarmen-zekoak:

- Etxeko aisiaz gozatzeko ideiak eta sustapenak, EROSKI aplikazioan eta webean zure etxeko aisiarako markarik gogokoenen Sustapen Gehiago eta opariak, Travel Club puntuekin familian une goxoak pasatzeko.
- Hurbileko merkataritzarekin bat egiten dugula erakusten dugu. Pandemiak udan jo zuenean, 33.000 bazkidek baino gehiagok ohiko %1a beharrean %4ko aurrezpen gehigarria jaso zuten, EROSKI Club ordainketa txartelean tokiko merkataritzan egindako erosketetan.
- Innovaré programa eta BCulinary Club, bideo tutorialak sukaldaritza teknika berriak ikasteko konfinamendu garaian.

Bezeroari erantzuteko zerbitzua

Aurten, bezeroekin batera gainditu ditugu bideko oztopoak; haren babesa sumatu dugu, eta geure harremana indartu dugu. Konfinamenduan, batik bat, nolako traza hartuko zuen ez genekienean, gutunak, deiak eta era guztietako eskerrak jaso ditugu, gure talde humanoak egindako ahalegina aitortuz.

2020an, 720.990 lagunek jo dute guregana bezeroari erantzuteko zerbitzuaren bitartez, eta erreklamazio guztien %91,8ri eman diogu irtenbidea aurreneko kontaktuan. EROSKIn, betetzen dugu zalantza guztiak berehala argitze-ko eta iradokizunei eta erreklamazioei laster batean erantzuteko konpromisoa, eta, kudeaketaren bat egin behar baldin bada, gehienez ere 48 orduan erantzuten dugu.

Nabarmenizekoa da aurten EROSKI BIDAIAK agentziak bezeroei emandako arreta; izan ere, nahiz eta COVID-19a dela-eta hegaldiak eta abar baliogabetzearen ondorioz 20.000 itzulketa espediente kudeatu behar izan dituzten, 500 erreklamazio formal baino ez dira izan, eta horiek berak bezeroa konforme gelditzeko moduan konpondu ditugu.

EROSKIn Bezeroari Erantzuteko Zerbitzuak lau hizkuntza-tan hartzen ditu kontsumitzaileak, euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz; zerbitzu hori, gainera, bai telefonoz eta bai posta elektronikoz ematen du, baita webgure netik ere: **www.eroski.es**. Gainera, beste webgune batzuk ditugu Taldearen beste negozio eta sozietateetarako, eta, horretaz gainera, geure sare sozialak.

Sotto Tempo Advertising aholkularitza enpresaren sarietan parte hartu duten kontsumitzaileek bederatzigarrenez aitoritu dute banaketa handiko enpresetatik gurea dela bezeroari erantzuteko zerbitzurik onena.

Gure bezeroei entzuten diegu

Kolektibo askotarikoen kezak aintzat hartzeko eta gardentasunarekin dugun konpromisoa betetzen jarraitzeko helburuz, komunikazio kanal gehigarriak ditugu haiekin guztiekin. Hala, 2020an, bezeroei entzuteko 45 saio baino gehiago egin genituen, eta 64.200 lagunek parte hartu zuten, dela bezero, dela kontsumitzaile eta dela hornitzaile; hala, gure eskaintza komertziala eta gure dendak hobetzeko balio duten iritziak, iradokizunak eta gomendioak jaso genituen.

Gainera, EROSKI 21 Batzorde Kontsumerista ditu Bazkide Bezeroen parte hartzea egituratzeko; horiek eztabaidatu egiten dute, jarrerak hartu eta jarraibideak finkatzen dituzte belaunaldi berriko dendak hobetzeko.

Era berean, 2020an, sare sozialetan 44 milioi truke baion gehiago izan ditugu erabiltzaileekin eta 374,3 milioi iritzi baino gehiago.

Datuen babesa

EROSKI kontsumo kooperatiba bat da; hortaz, interes bereziz zaintzen ditu bezeroen eskubideak. Horietako bat datuen babesa da, eta Etengabe Hobetzeko Plan baten gisa kudeatzen dugu. 2007an, RLOPD onartzearekin batera (1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, 15/1999 Lege Organikoaren garapen araudia onartzen duena), Datuak Babesteko Kudeaketa Sistema sortu genuen, metodologia propioa aplikatuta, arriskuaren analisia eta kudeaketa eginez bera betetzen dela zaintzeko. Datuak Babesteko gure sistema egokitu egin genuen 2018ko arauzko eskakizun berrietara.

Hura koordinatzeaz arduratzen dira zuzendaritza, sailetako eta arloetako arduradunak, sistemen administrazioa eta erabiltzaileak berak.

Etengabeko hobekuntza plana lotu-lotua dago erantzukizun proaktiboaren printzipioari. 2020an, bultzada eman diogu gure bazkideen eta langileen formakuntzari. Helburua da datuen babesaren inguruan kultura bat sortzea, zalantzarik gabe hura betetzeko bokazioa dugula erakusteko.



Twitter
59.239
jarraitzaileak



Instagram
38.859
jarraitzaileak



Facebook
228.938
jarraitzaileak



LinkedIn
55.982
jarraitzaileak

3

Ahalegina eta erabakitasuna

Dena ematen duen giza taldea



Konpromisoa eta esker ona gure profesionallekiko



EROSKI osatzen dugun guztiok gogoratuko dugu 2020. urtea dena emateko eta erronkak gainditzeko urtetzat. Negozio guztietako lantalde guztiek eman dute beren onena eta, kasu askotan, beren ongizate pertsonala sakrifikatu dute kolektiboaren zerbitzura jartzearen. Gure kultura kooperatiboa dela eta, gure abiapuntu egoera bereizgarria zen profesionaltasunari eta lankidetzari dagokienez, eta, horri esker, aurre egin beharreko erronkak gainditu ahal izan ditugu. Funtsezko zerbitzu garen alde-tik, dendak bezeroentzako baldintza onenetan egongo zirela ziurtatu behar genuen, hornikuntzaren eta zerbitzuaren aldetik, nahiz eta ia egunero husten ziren.

Gure lantokietako prebentzio eta babes neurriak, COVID-19ari aurre egiteko

EROSKItik, gure kezka nagusia lantaldeen eta bezeroen osasuna eta segurtasuna bermatzea izan da beti. Horregatik, COVID-19aren osasun krisia dela eta, honako jarduerak hauek egin ditugu, besteak beste, gure langileak babesteko:

- Negozio bakoitzerako COVID-19 jarduera-protokoloak prestatzea. Gainera, Elorriko eta Jarduera Logistikoetako Eremuko egoitzetan, akreditatutako kanpoko erakunde baten ziurtapena izan dugu.
- Gaixotasunaren sintomak dituzten pertsonen kasu eta koronabirusaren kasu positiboaren aurrean jarduteko protokoloa zehaztea.
- COVID-19aren arrisku biologikoak ebaluatzea.
- Lantokietan babes neurri fisikoak eta seinaleak ezartzea, baita kutsatzea prebenitzeko higiene neurriak ere. Información a los trabajadores en relación con la exposición al COVID-19, las medidas preventivas básicas y la utilización de los equipos de protección establecidos.

Gure esker ona, bihotz-bihotzez, EROSKIko langileei pandemia honetan egindako ahaleginagatik eta lanagatik. Unerik zailenetan erakutsi dute, berriz ere, lan ona egiten dutela eta erakundearekiko konpromisoa dutela.

- Langileei informazioa ematea COVID-19aren eraginpean egoteari, oinarritzko prebentzio neurriei eta ezarritako babes ekipoen erabilerrari buruz.
- Gure zentroetan lan egiten duten kanpoko langileentzako prebentzio neurriak zehaztea eta jakinaraztea.
- Langile kalteberen osasunaren arloko kudeaketa egokia.
- Laguntza psikologikoa emateko zerbitzua doan langileentzat.
- Osasuna zaintzeko kontratatutako kanpoko prebentzio zerbitzuaren osasun arloari jakinaraztea COVID-19aren kasu positibo baieztatuak eta horiek izan ditzaketen kontaktu zuzenak, ikertzeko.

Kalitatezko enplegua duten arduradunak

102-8; 102-41; 401-1

EROSKlrentzat, Gizarte Erantzukizuna erakunde guztian partekatutako balioa da, eta Presidentetzaren erantzukizun zuzena. Gure Estatutu Sozialetan, Barne Araudi Kooperatiboan eta Kudeaketa Etikoko Eskuliburuan lan gaitako gure konpromisoak biltzen dira, bai gure langileentzat, bai azpikontrata eta hornitzaileentzat. Kudeaketa etikoa Zuzendaritzaren helburu nagusien artean txertatuta, gure honako konpromiso hauek lortzen ditugu:

- Indarrean dagoen legedia eta laneko eta kooperatibetako araudia betetzea, baita EROSKlren berezko konpromisoak betetzea ere.
- Kudeaketa etikoko sistema eraginkor bat ezartzea.
- Erakundearen portaera etikorekin etengabeko hobekuntza.
- Nazioarteko esparruan aldarrikatutako giza eskubide eta laneko eskubideen babesa indartzea eta errespetatzea.

Gure erakundeko pertsonen kudeaketaren ezaugarri nagusia da langileak garela, baina baita jabeak ere: EROSKlren plantillako 8.954 pertsona (guztizkoaren % 30) bazkide langileak gara; horrek esan nahi du enpresaren kudeaketa kooperatiboan parte hartzen dugula.

Ezaugarri horrek beste banaketa enpresetatik bereizten du EROSKI Taldea: jarrera proaktibo bat eta proiektuarekiko konpromiso maila handia, eta hori jardunean islatzen da erakundearen maila guztietan.

Sortzen dugun enpleguak gure kudeaketa ereduari eta plantillarekiko, bezeroekiko eta gizartearekiko konpromisoari jarraitzen dio, eta horregatik ahalegintzen gara egonkorra eta kalitatezkoa izan dadin. Hala, EROSKl 2020an sorturiko enpleguaren % 74 baino gehiago finkoa izan zela azpimarratu beharra dago. Era berean, gure langileen artean soldata mailako elkartasuna, berdintasuna, kontziliazioa eta osasuna eta segurtasuna sustatzen ditugu, baita haien garapen profesionala eta erabakiak hartzen parte hartzen ere, eskaintzen dugun enpleguaren kalitatearen funtsezko ardatz diren aldetik.


Gure giza taldearen kudeaketa ardura-suaren ardatzak

- Soldata mailako elkartasuna
- Berdintasuna
- Lana eta familia bateragarri egitea
- Laneko osasuna eta segurtasuna
- Garapen profesionala
- Lan munduan txertatzea eta gizarte berrikuntza


Gure lanaren funtsezko 10 balioak

1. Parte hartzea sustatzen dugu.	2. Garapen pertsonala eta profesionala sustatzen ditugu, ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak hobetuz.
3. Kide izatearen sentimendua: EROSKlko kide izateaz harro gaudete, eta hobekuntza arloak bilatzen ditugu.	4. Informazioa eta komunikazioa sustatzen ditugu erakundearen barruan, bi noranzkoetan.
5. Barne elkartasunari esker, kolektiboa indibidualari nagusitzen zaio, eta epe luzea epe laburrari.	6. Dinamismoa aldaketara egokitzeko eta berrikuntza bultzatzeko.
7. Bezeroa aintzat hartzen dugu, haren beharretara egokitzeko eta aurrea hartzeko.	8. Lan baldintzak etengabe hobetzen ditugu, bizi kalitate egokia bermatzeko.
9. Kanpoko elkartasuna, gizarteari ematen diguna itzultzeko.	10. Kooperatiban lan egiten dugun pertsonok ahalik eta profesionalizazio mailarik handiena lortu nahi dugu.


Langile kopurua, guztira




Langile kopurua kontratu motaren eta autonomia erkidegoaren arabera




Langile kopurua kontratu motaren, generoaren, adin tartearen eta lan kategoriaren arabera




Aldi baterako plantilla, ordezkapenak egiteko




Langile kopurua lanaldi motaren, generoaren, adin tartearen eta lan kategoriaren arabera



Langileen urteko batez bestekoa, lanaldi motaren, generoaren eta lan sailkapenaren arabera




Txandakatze kopurua eta indizea (borondatezko joatea, kaleratzea, erretiroa edo heriotza) generoaren eta adin tartearen arabera




Ikus adierazleen eranskineko 13. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Kaleratze kopurua generoaren, adin tartearen eta lan kategoriaren arabera, eta 2020ko datuen gaineko %-a



Txandakatze kopurua autonomia erkidegoaren arabera



Soldata mailako elkartasuna 102-35; 102-36; 102-37; 102-38; 102-39; 202-1; 405-2

Soldata mailako elkartasunaren printzipioa erakunde osoan aplikatzen dugu gure balioei jarraikiz, eta gure kultura korporatiboa egunez egun jarduteko gure moduarekin bat dator. Horrela, barne mailan, erantzukizun gutxiena duten postuen eta goi zuzendaritzakoen artean dagoen soldata aldea txikituko da. zehazki, EROSKI Koop. Elkartean 2020ko soldata aldea 8,43 izan zen. Horrela, bada, ordainsari handiena jasotzen duen pertsonaren gutzizko ordainaren eta gainerako langileen ordainaren medianaren arteko erlazioa 7,78 da kooperatiban. Ratio hori askoz txikiagoa da IBEX 35eko enpresetakoena baino; haietan, eta 2019ko datuei erreparatuta, goi exekutiboen batez besteko ordainsaria 118 aldiz handiagoa da gainerako langileen batez besteko soldata baino.

Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Sozialak izendatzen duten Balarazio Batzordeak du kooperatibako ordainsari maila zehazteko ardura, lanpostu bakoitzean egin beharreko lanak eta horretarako beharrezkoak diren ahalmen eta gaitasunak aztertu ostean. Bestalde, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak proposatzen dio Kontseilu Errektoreari goi zuzendaritzarako ordainsari politika.

EROSKiko ordainsariak publikoak dira, berdinak gizon eta emakumeentzat, eta lanpostuaren araberrakoak, ez bes-

te faktore batzuen araberrakoak, hala nola antzinasuna edo banakako negoziatzioa. Gainera, beharrezko giza baliabideak erakartzeko eta atxikitzeko, kanpoko lehiakortasunaren printzipioa erabiltzen da; alegia, sektoreko enpresetako ordainsarien maila orokortuenak hartzen dira aintzat ordainsariak zehazteko garaian. Hortaz, supermerkatuen hitzarmenari erreparatuta, gutxienerako oinarritzko soldata % 5,2 handiagoa da Espainiako lanbide arteko gutxienerako soldatarekin alderatuta.

Bestalde, kanpo mailan, ordainsari mailako elkartasunak honako hau dakar berekin: Zuzendaritza Kontseiluaren ordainsaria merkatuko balioa baino % 69tik % 77ra bitarte txikiagoa da. Hala, 2020. urte osoan, presidentearen eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen ordainsariaren gutzizkoa, oro har, 679.332 euro izan zen, merkatuarekin alderatuta. Horrek ez dauka inolako zerikusirik IBEX 35eko enpresen errealitatearekin; izan ere, enpresa horietan, kontseilarien batez besteko ordainsaria EROSKiko Zuzendaritza Kontseiluko kide batek batez beste jasotzen duena baino 6 aldiz handiagoa da. Orobat, gure gobernu organo gorena den Kontseilu Errektoreko kideek ez dute ordainsari finkorik edo aldakorrik jasotzen lan horren ordainetan (organo horren bileretara joateko gastuak izan ezik).

	EROSKI Koop. E.	Gainerako sozietateak
Soldata aldea	8,43	8,22
Erakundean gehien irabazten duenaren urteko gutzizko ordainaren eta gainerako langileen urteko gutzizko ordainaren medianaren arteko ratioa	7,78	6,81
Urteko gutzizko ordainaren igoeraren ratioa 2019tik 2020ra	%1,0	% 1etik % 2,25era bitarteko hazkundea oinarritzko soldatan, sozietate guztietan
Erakundean gehien irabazten duenaren urteko gutzizko ordainaren hazkundearen eta gainerako langileen urteko gutzizko ordainaren medianaren arteko ratioa	1	1
Zuzendaritza Kontseiluko kideen eta gainerako langileen batez besteko ordainsariaren arteko ratioa	3,78	4,47
		% 5,2
Oinarritzko soldataren eta lanbide arteko gutxienerako soldataren arteko ratioa	% 20,6	*2020an, gutxienerako soldata % 5,5 baino gehiago handitu zen alderatuta
Soldata arrakala haztatua, lan kategoria bakoitzak langileen gutzizkoan duen garrantziaren arabera	% 8,1	% 7,0

Lanbide kategoriaren araberrako erreferentziazko ordainsaria berdinzalea da kooperatibako gizonen eta emakumeen artean. Soldata arrakalaren arrazoietako bat da lanbide kategoria beraren barruan generoaren araberrako banaketa ez dela orekatua erantzukizun maila ezberdinen artean; bestea, ordainsarien indizeen bilakaera historikoa da. Espe-

ro dugu soldata arrakala pixkanaka-pixkanaka murrizten joango dela kooperatiba barruko langileen berritze naturalaren ondorioz eta emakumeek lanbide kategoria beraren barruko erantzukizun handiagoko postuetan presentzia handiagoa izatearen ondorioz.

Zuzendaritza Kontseiluaren batez besteko ordainsaria, generoaren arabera



Batez besteko ordainsaria, generoaren eta lan kategoriaren arabera

Lanbide kategoria	EROSKI Koop. E.			Gainerako sozietateak		
	Emakumeak (€)	Gizonak (€)	Soldata arrakala	Emakumeak (€)	Gizonak (€)	Soldata arrakala
Zuzendaria	73.739	79.817	% 8	66.329	85.856	% 29
Kudeatzailea	44.526	47.117	% 6	54.930	57.595	% 5
Agintaria	32.029	31.971	% 0	28.984	33.289	% 15
Profesionala	17.191	18.924	% 10	16.375	17.229	% 5
Arduraduna	23.401	23.689	% 1	19.833	22.401	% 13
Teknikaria	31.109	31.854	% 2	28.780	31.584	% 10

Ikus adierazleen eranskineko 16. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Batez besteko ordainsaria generoaren eta adin tartearen arabera

Adin tartea	EROSKI Koop. E.			Gainerako sozietateak		
	Emakumeak (€)	Gizonak (€)	Soldata arrakala	Emakumeak (€)	Gizonak (€)	Soldata arrakala
< 30	17.543	17.396	%-1	15.168	15.744	% 4
30-49	19.527	25.236	% 29	17.324	20.587	% 19
> 50	19.601	28.070	% 43	17.694	25.697	% 45

Ikus adierazleen eranskineko 17. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Soldata arrakala autonomia erkidegoaren arabera eta lan kategoria bakoitzak langileen gutzizkoan duen garrantziaren arabera

Autonomia Erkidegoa	EROSKI Koop. E.	Gainerako sozietateak
Aragoi	-	6,2%
Balearrak	-	5,3%
Katalunia	-	5,4%
Galizia	-	9,5%
Nafarroa	3,8%	-
Euskadi	8,5%	-

Autonomia erkidegoaren araberrako emaitzak lehentasunerako eremuetan baino ez dira aurkeztu; izan ere, gainerako eskualdeetako langileen lagina txikiagia baita soldata arrakalaren emaitzak lortzeko.

Berdintasuna 405-1

EROSKIn emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna oinarritzko printzipioa eta printzipio estrategikoa da erakundearen kudeaketan. Desparekotasuna ezabatzeak gure kultura kooperatibo eta parekidearekin zuzenean lotutako aldaketa prozesu bat dakar. Ildo horretan, EROSKik diskriminaziorik ezaren printzipioari jarraitzen dio, Fundazio estatutuetan jasota baitago, eta ez bakarrik generoari dagokionez, baita arrazari, sexu orientazioari, erlijio sinetsmenei, iritz politikoei, nazionalitateari, gizarte jatorriari, desgaitasunari edo diskriminazioa eragin dezakeen beste edozer ezaugarriari dagokionez ere.

Horretarako, 2005ean, Berdintasunerako Batzordea sortu genuen. Haren ardura EROSKiren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Diagnostikoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egitea eta aldin-aldian eguneratzea da. Gainera, Berdintasun Behatokiak printzipio hori erakunde osoan betetzen dela zaintzen du.

Organismo horretan, kooperatibako bazkide langileen ordezkariak hartzen dute parte. Honako sei lan arlo hauek biltzen ditu: hizkuntzaren erabilera, gorputzerako eta osasunerako oztopoak ezabatzea, gizarte oztopoak ezabatzea, garapen pertsonala eta profesionala, eta bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egitea.

Gainera, salaketa kanal bat ere badugu eta, 2015az geroztik, aholkularitza zerbitzu bat (isilpekoa) ere bai, laneko jazarpen kasuak saihesteko eta gertakari oro bideratzeko. Era berean, genero indarkeriaren aurkako protokolo bat ere badugu, eta Mundu Itunaren Espainiako Sareak Garapen Jasangarriako 5. Helburua, hau da, Genero Berdintasuna lortzeko jardunbide egokitzat hautatu du gure protokoloa.

2020an, Berdintasun Plana berrikusteko aldizkako jarraipena egiten jarraitu dugu, betiere 2017-2020 Plan Estrategikoan zehaztutako Berdintasunaren kontzeptuaren ikuspegian txertatuta; aurtun, honako zutabe eta ekintza nabarmen hauek sartzen dira:



Pertsona guztiek aukera berdinarik

- Emakumeen ikusgaitasuna lanpostu maskulinizatuetan, Madrilgo gure Plataformako kudeaketa taldeko barne komunikazioko gure kanalen bitartez; talde horretan emakumeak dira nagusi.
- Talentua garatzeko SUMMA programaren beste edizio bat; 2020ko 13 parte-hartzaileetatik 12 emakumeak dira.



Enpresa kultura eta horrek berdintasunean duen eragina

- EROSKik Target Gender Equality programan parte hartzen du; programa hori genero berdintasunaren azeleragailua da, Nazio Batuen Mundu Ituneari parte hartzen duten enpresetarako.
- Gure estatutuak eta gure barne araubideko arauak genero hizkuntzara egokitzea.
- Leaders in Tech konferentzia parte hartzea; bertan, emakumeak buru diren azken aurrerapen teknologikoei lantzen dira.
- Genero indarkeriaren eguneko kanpaina, langileak sentsibilizatzeko.
- Nafarroako, Euskadiko eta Espainiako Berdintasun Ministerioarekin lankidetzat, Genero Indarkeriaren Biktimentzako Koronabirus Kanpaina.
- Gay Harrotasunaren eguna ospatzea, barneko sentsibilizazio kanpaina bat eginez LGBTI kolektiboaren aldarrikapenekin eta ospakizunekin bat egiteko.
- CÓMPlices programa, EROSKI Taldeko Berdintasunerako Programaren barruan antolatzen da urtean behin eta, aurtun, digitalki. Hona aurtengo protagonistak: Marina Marroquí, genero indarkeria jasan eta bizirik atera zen; Mbaye Gil, 15 urte zituela ziurgabetasunez betetako bidaia bati ekin zion beretzat eta bere familiarentzat etorkizun hobea bilatzearen; eta Edurne Pasaban, munduko zortzi milako gailur guztiak konkistatu dituen lehen emakumea, baina erronka handiena eragin dion oztopoa depresioa izan da.




Osasuna eta jasangarritasuna berdintasunarekin txertatuta

- EROSKiren Zeresana duten emakumeak programan, gure produktuen eta gizartearen jasangarritasunean eta osasunean aurrera egiten laguntzen duten emakumeen benetako historien berri ematen da; bideoak webgunean aurkitu daitezke

Berdintasunarekiko dugun konpromisoaren erakusgarri, azpimarratu nahi dugu gure langileen %77 emakumeak direla eta, 2020an, emakumeek erantzukizuneko lanpostuen %73 betetzen zituztela. Ehuneko hori sektoreko batezbestekoa baino askoz handiagoa da.


Halaber, gobernu korporatiboko organoetako kide gehienak emakumeak dira. 2018an parekidetasuna lortu zen EROSKI Koop. E.-ren organo gorenean: Kontseilu Errektorrean.

Langileen banaketa generoaren eta adin tartearen arabera, lan kategoria bakoitzean



Ikus adierazleen eranskinen 18. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

■ Gobernu organoen banaketa generoaren eta adin tartearen arabera



Ikus adierazleen eranskinetako 19. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Lana eta familia bateragarri egitea 401-3

Gure Berdintasun Planaren lan arloetako bat lana eta familia bizitza bateragarri egitea da. Arlo honetan, EROSKik beste baimen batzuk ditu legeek ezartzen dituztenez gain, eta bizitza pertsonala eta profesionala orekatzea ahalbidetzen duten laneko inguruneak eta ordutegiak bultzatzen ditu. Esate baterako, 2020an, langileen % 11 lanaldi murriztu edo eszedentzian zegoen, legezko zaintzarako edo senideak zaintzeko.

Gainera, aurtan, seme-alabak zaintzeko aldi baterako eszedentzia bat ere ezarri dugu, Eusko Jaurlaritzaren 164/2019 Dekretuaren esparruan. Eszedentzia hori aldi baterako da 2020. urterako, eta seme-alaben zainketa arloan erantzunkidetasuna sustatzea du helburu, aitatasuneko eta amatasuneko baimenak lege parekatzen diren arte. Gainera, aurtan, pandemia dela-eta, eta gure erakundea funtsezko zerbitzua dela kontuan izanik, bateragarri egiteko prozesuak norbanakoaren premietan oinarrituta kudeatu ditugu, hau da, pertsonaz pertsona.

Halaber, EROSKik langileen beste proiektu pertsonal batzuen berezitasunak ere hartzen ditu aintzat, eta hala, aukera ematen die ageriko kausarik gabe lanaldia murrizteko, murrizketa aldia amaitutakoan lanaldi osoa berreskuratzeko eskubideari eutsita, gainera. Bestela, borondatezko aldi baterako eszedentziak ematen ditu, lanpostuak gordeta, GKEekin lankidetzaren proiektuak edo garapen pertsonaleko beste plan batzuk gauzatzeko. Esaterako, lazko ekitaldian, 967 pertsonak baliatu zuten lanaldi murrizketa edo borondatezko eszedentzia.



■ Guraso baimenen banaketa, generoaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2020an guraso baimena baliatu duten pertsonak, guztira	326	190	516
2020an guraso baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren pertsonak, guztira	246	174	420
Lanera itzuli direnen tasa (2020an baimena amaitu ostean lanera itzuli ziren pertsonen ehunekoa)	% 99,2	% 99,4	% 99
2019an guraso baimen batetik itzuli eta 12 hilabeteren ondoren EROSKin jarraitzen duten pertsonak	267	136	403
Atxikipen tasa (12 hilabete geroago EROSKin jarraitzen duten pertsonen ehunekoa)	% 91,1	% 90,7	% 91

■ Lanaldi murrizketa duten langileak, generoaren eta kausaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Legezko zaintzagatiko lanaldi murrizketa duten pertsonen kopurua	2.644 (%97,5)	67 (%2,5)	2.711
Senideak zaintzeko lanaldi murrizketa duten pertsonen kopurua	244 (%92,8)	19 (%7,2)	263
Borondatezko lanaldi murrizketa duten pertsonen kopurua	53 (%86,9)	8 (%13,1)	61

■ Lanaldi murrizketa duten langileak, generoaren eta kausaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Legezko zaintzagatiko eszedentzian dauden pertsonen kopurua	257 (%95,5)	12 (%4,5)	269
Senideak zaintzeko eszedentzian dauden pertsonen kopurua	52 (%89,7)	6 (%10,3)	58
Senideak zaintzeko eszedentzian dauden pertsonen kopurua	640 (%70,6)	266 (%29,4)	906

Laneko osasuna eta segurtasuna 403-1; 403-2

Laneko prebentzioen arriskua

EROSKIn lan proaktiboa egiten dugu langile guztien segurtasuna eta osasuna babesteko eta hobetzeko konpromisoa gauzatzearren.

Laneko arriskuen prebentzioaren eta osasunaren arloko prestakuntzaren eta sustapenaren arloetan jarduten dugu, eta etengabe hobetzen ditugu laneko arriskuak prebenitzeko gure sistemak, eta enpresaren kudeaketa orokorrean txertatzen ditugu.

Laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzu propioa dugu, mankomunatuta, taldeko sozietate guztietarako. Honako espezialitate hauetaz arduratzen da: laneko segurtasuna, industria higiena eta ergonomia, eta psikologia aplikatua. Osasunaren zaintza kanpoko prebentzio zerbitzuen bitartez egiten da.

Gainera, langileak arriskuak identifikatzen eta laneko baldintzak hobetzeko proposamenak egiten parte har dezakegu, horretarako haiek osasun eta segurtasun batzordeetara aurkeztuta (hainbat arlotan jarduten dute), baita sozietate ordezkaritza beste organo batzuetara ere (haletan, EROSKiko langile guztiak daude ordezkaturik) eta laneko osasun eta segurtasunarekin lotutako gaien % 100 jorratzen dira.

Laneko arriskuak prebenitzeko neurriak

2020an zehar plantillaren laneko arriskuak prebenitzeko ekintzak gauzatu dira. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Taldeko negozioien prebentzio planak berrikustea eta eguneratzea, baita arriskuen ebaluazio orokorrak eta lanpostu edo zereginen ebaluazio ergonomikoak ere.
- Prebentzioko barne ikuskapenak eta ikuskapen programatuak egitea; azken horiek zentroetako ikuskaritza taldeek egiten dituzte, eta ondoren, antzemandako akatsak murrizteko eta hobetzeko proposaturiko neurrien jarraipena egiten dute.
- Larrialdietako simulakroak: languneetan bertan, ebakuatuz edo ebakuatu gabe.
- Prestakuntza: prebentzioari buruzko oinarritzko ikastaroak eta lanpostuko arriskuei edo larrialdietako jardueri buruzko trebakuntza espezifikoak eskaini dira.

Osasunaren zaintza

EROSKIn kanpoko prebentzio zerbitzu bat dugu hitzartuta osasunaren zaintzaren espezialitaterako. Zerbitzu horrek honako mediku azterketa hauek egiten ditu: ospitaleratzeak; aldizkakoak, lanpostuaren arriskuaren arabera; iraupen luzeko bajen ostekoak; lanpostu zehatzetako nahitaezkoak; haurdunaldietan eta langile sentikorren balioespen medikoak.

Bestalde, eta kontingentzia profesionalari dagokionez, mutualitatearekin berrikusi eta koordinatzen ditu gaixotasun profesionaltzat jotako kasu guztiak.




Laneko istripuen tasa, motaren arabera




Ikus adierazleen eranskineko 20. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

■ Bajadun istripu arinen banaketa, autonomia erkidegoaren arabera




■ Laneko absentismo tasa




Ikus adierazleen eranskinetako 21. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

■ Gaixotasun profesionalen tasa



■ Laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza tasa



Garapen profesionala 404-1; 404-2; 404-3

2020ko Kudeaketa Plana aldatu egin behar izan zen ia hasieratik bertatik COVID-19aren pandemiaren krisiak sortutako egoera berrira egokitzeko. Ezohiko egoera bizi izan dugu, eta erronka berriak eta lehenasunezko helburuak planteatu behar izan ditugu gure jardueraren normalarekin jarraitu ahal izateko eta 2020ko ekitaldiaren hasieran planteatutako helburuetarantz aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

Gure prestakuntza plana egokitu egin behar izan dugu egoera berritik babesteko, eta pandemiaren fase bakoitzari egokitutako segurtasun neurri berriak eta edukiera berriak ezarri dira. Egoera horrek guztiak bultzatuta, azkar jokatu eta egokitu egin gara, kolektiboaren eta erakundearen prestakuntza beharrei erantzuteko.

Prestakuntza jarduerak garatzeko kanal eta formatu berriak aztertu ditugu azkar, eta prozesu horretan nabigatzen eta hobetzen jarraitzen dugu. Aurten prestakuntza birtuala gure egunerokotasunean ezarri da, eta hazten jarraitzen du: 2020an, prestakuntzako 1.585 ordu eskaini dira plataforma birtualen bitartez. Online prestakuntzak, bestalde, prestakuntza osoaren %20 hartzen du dagoeneko; 22.000 ordu eskaini ditugu 9.900 pertsonari prestakuntza kanal horren bitartez emateko.

Aurten, 892.000 euro bideratu dira prestakuntza programe-tara; bestela esateko, guztira 109.549 ordu bideratu ditugu gure langileak trebatzera, hau da, batez beste 3,7 ordu lan-gile bakoitzeko.



2020ko prestakuntza programa nabarmenak:

- ✓ **Agintari Eskola**

Aurten, prestakuntzako bi eskaintza egin ditugu dendako buruentzat, eta beste bat arloko arduradunentzat. Guztira, 25 pertsonak jaso dute prestakuntza agintari eskolan, prestakuntzako 1.428 ordu inbertituta.
- ✓ **Fresh Master Arrandegia**

Arrandegiko Prestakuntza Zentroetako monitore eta adituei zuzendutako prestakuntza. Guztira 45 pertsona prestatu ditugu, 472 prestakuntza ordurekin, guztira.
- ✓ **Zuzendaritza Garapena**


2020. urtean prestakuntzako eta garapeneko hainbat ekintza egin dira potentziala duten zuzendarien eta kudeatzaileen kolektiboarentzat, garapen indibidualizatuko planetan oinarrituta. Zerbitzu horren bitartez, gure estrategiarako beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak eskuratu, hobetu eta perfektionatzea lantzen da Zuzendaritza Garapenenean. Zuzendarien kolektiboari 1.381 prestakuntza ordu eskaini dizkiogu.

- ✓ **Orain, COVID-19 prestakuntza**

En 2020, formamos e informamos a todos 2020an, COVID-19aren krisialdiari aurre egiteko jardunbide egokien eta babes neurrien gaineko prestakuntza eta informazioa eman genien gure langile guztiei. 1.020 pertsonak jaso dute prestakuntza, guztira 987 ordutan.
- ✓ **Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra**

Online prestakuntza horren bitartez, datu babesari dagozkion kontzeptu nagusiak aurkeztu eta informazio pertsonala lortzeko, erabiltzeko eta tratatzeko printzipioen berri eman diegu langileei. Horretarako, egituretako langile guztiei ez ezik, salmenta puntuko berariazko kolektiboari ere eman zaie prestakuntza.

Batez besteko prestakuntza orduak, generoaren eta lan kategoriaren arabera



Ikus adierazleen eranskineto 23. taula, aurreko urteekin alderatzeko.


Langileen prestakuntza orduak, generoaren eta lan kategoriaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendaria	624	758	1.382
Kudeatzailea	1.057	942	1.999
Agintaria	9.481	6.216	15.697
Profesionala	44.814	13.616	58.430
Arduraduna	10.808	2.732	13.540
Teknikaria	10.946	7.555	18.501
Guztira	77.730	31.819	109.549


Sustapen profesionala

Prestakuntzarekin batera, EROSKIko pertsonen kudeaketaren beste elementu garrantzitsu bat lanpostuz igotzeko aukera da, prozesu naturaltzat hartzen baitugu gure langileen bizitza profesionalan, eta gaikuntza profesionalan eta jardueraren kalitatean oinarritzen da. Ildo horretan, 2020an, gure langileen % 0,7 igo zen mailaz; hau da, 208 pertsona eta horietatik % 77 emakumeak.

Jardunaren eta garapen profesionalaren aldiaren behingo ebaluazioa egiten zaien pertsonen kopurua eta ehunekoa



Ebaluatutako pertsonen kopurua eta ehunekoa langile guztiei dagokienez, lan kategoriaren eta generoaren arabera



Ilus adierazleen eranskinetako 24. eta 25. taulak, aurreko urteekin alderatzeko.

Krea zurekin: autokudeaketaren lankidetzak kultura

Barne berrikuntzari emandako Errekonozimendu Korporatiboko Krea sariaren zazpigarren edizioa izan da. Modu berri-tzaileen ekimenak diseinatu eta abiarazi dituzten taldeen jardunbide egokiak eta esperientzia onak saritzen ditu Kreak. Izan ere, ideia horiek lagungarri baitira gure erakundearen nortasuna hobeto definitzen duten printzipio eta ardatzak are gehiago errotzeko.

Edizio honetan, COVID-19aren egoerak eragindako zailtasunak zailtasun, ekimen honetan parte hartzen jarraitu dugu. Kreaken aurtengo sarietan, dendaren segurtasunaren ingurukoak dira aurkeztu diren hautagaitzak. Hautagaitza irabazleetako askok jatorrizko dendaren eremua gainditzen dute, eta denda sare osoan ezartzen dira azkenean.

Aurten, denda frankiziadunek parte hartu duten lehen edizioa izan dela nabarmendu beharra dago.

Ekintzaile frankiziadunak

Negoioa propioa izan nahi duten langile bazkideek Zurekin Frankizian programari heltzeko aukera dute. Prestakuntza espezializatua eta zerbitzu zein abantaila pertsonalizatuak eskainiko dizkiegu, baita dendak kudeatzeko tresna aurreratuak ere. Gainera, konfiantzazko marka baten babesak izango dute: EROSKI. Gainera, finantzaketa erakundeekin eta Enpresaburu Gazteen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) akordioak ditugu, behar duten babesak emateko eta ekintzazailtzat sustatzeko.



Lan munduan txertatzea eta gizarte berrikuntza



EROSKIn, kontsumoko kooperatiba garen aldetik, kolektibo guztiak lan merkatuan txertatzearen aldeko gara eta horrekin konprometituta gaude. Enplegu publikoko zerbitzuekin eta Hezkuntza Ministerioaren sareko zentroekin elkarlanean jarduten dugu eta, hartara, lanerako prestakuntzaren bitartez, langabezian dauden ikasle gazteak eta gizartearen bazterfuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak lan munduan txertatzen dira.

Nazioan, besteak beste, Gurutze Gorriarekin, Cáritas edo la Caixaen Incorpora fundazioarekin lan egiten dugu. Eta Autonomia Erkidegoari dagokionez, besteak beste, Gureak, Erroak-Sartu eta Ilundain erakundeekin.

2020an, lanerako prestakuntzan garrantzitsuena den gure «Especializazioa freskoetan» programa lantzen jarraitu dugu; 2019an abiarazi genuen programa hori. Sukaldaritza eta Gastronomia erdi mailako graduako zikloko ikasleei zuzendutako programa da, eta gure freskoen sekzioetan gaiarekin lotutako prestakuntza eta gaikuntza jaso duten espezialistak txertatzea du helburu.

Lehen promozioiko ikasleek 2020ko uztaillean bukatu zuten especializazioa. Ikasleen %71 kontratatu zituzten, iraupen luzeko kontratuekin. 2020ko uztaillean bigarren promozioa hasi da, 14 ikaslerekin. Programa segidako bigarren urtez Bizkaian egiteaz gain (Leioako Sukaldaritza Eskolarekin batera), Gipuzkoara ere zabaldu dugu Donostiako Cebanc Ostalaritza Eskolari esker.

Desgaitasuna duten langileen banaketa generoaren eta lan kategoriaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%-a, desgaitasuna duten pertsonen kopuruari dagokionez
Zuzendaria	0	1	1	%0,3
Kudeatzailea	0	2	2	%0,6
Agintaria	5	7	12	%3,4
Profesionala	197	113	310	%86,8
Arduraduna	18	8	26	%7,3
Teknikaria	4	2	6	%1,7
Guztira	224	133	357	

Ikus adierazleen eranskinetako 26. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Supermerkatu inklusiboak

EROSKI desgaitasuna duten pertsonentzako enplegarritasun ereduak zabaltzen jarraitu du, 2015ean Gureak-ekin, 2017an CAPRABOn Ampans-ekin eta 2019an VEGALSA-EROSKIn Soltra-rekin hasitako ereduak, alegia. Ekimenaren bitartez, lan munduan txertatzeko aukera berriak eskaini nahi dizkiegu bestelako gaitasunak dituzten pertsonen.

2020. urtean sarean ditugun sei supermerkatu inklusibo frankiziadunei eutsi diegu.

Era berean, gizarteratzea sustatzen dugu gure balio katean. Horregatik, hornitzaileekin lankidetzan aritzen gara, hala nola Freshcut Galizian (Galifresh markaren fabrikatzailea), eta Ampans fundazioa Katalunian (Muntanyola gaztak merkatu-ratzen ditu); adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten eta egoera ahulean dauden pertsonen laneratzea sus-

tatzen dute. VEGALSA-EROSKIk Mulleres Colleiteiras kooperati-barekin sinatutako lankidetzak hitzarmenari eutsi dio; hitzarme-nari esker, Coruña-ko establezimendu sarean erabilitako olioak bildu eta kudeatzen da, ingurumena babesten eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden emakumeak laneratzen laguntzeko.

Gainera, bezeroek gure supermerkatuetan duten irisgarritasunari dagokionez, gure establezimenduek arlo horretan indarrean dauden legeak betetzen dituzte. Irekitzeko eta zaharbertitzeko proiektu guztiak onartu dira, agintaritza eskudunak egiaztapenak egin ondoren. Era berean, mugikortasun urriko pertsonen zuzendutako zenbait hobekuntza sartzen dira gure ereduaren: fruta pisatzeko balantzak baxuago jartzea, garaiera murriztua duten informazio mahaiak, eta orga bereziak.



4



Gure produktuen kalitatea eta elikadura osasungarria

Lanean ari gara dieta orekatua
egiteko aukera izan dezazun

Konpromisoa dugu elikadura osasungarriarekin

416-1



COVID-19aren osasun krisiak eguneroko osasunaren garrantzian jarri du fokua, nola bizimodu eta ohitura osasungarriak izateak lagundu gaitzakeen pandemia honi aurre egiten. Era berean, lehen HORECA sektorean kontsumitzen ziren zenbait produktu etxean kontsumitzen hasteak zertxobait geldiarazi du Piramide Nutrizionalaren oinarrian dauden elikagaien salmentaren gorako joera, gure dendetan azken urteetan sumatzen zena. Dena den, espero izatekoa da egoera normalizatu ahala, etxeko elikadura ohiturak hobetuko direla kontsumitzaileari emango diogun formakuntzaren eta sentsibilizazioaren ahaleginari esker.

Gure helburu nagusia da kontsumitzaile guztiei elikadura osasungarria eta orekatua ematea. Alde horretatik, dituzten beharrak era aktiboan entzun ez ezik, zenbait jarduerak gauzatzen ditugu gure produktu guzti-guztien kalitatea ziurtatzeko, eta jateko ohiturei loturiko osasun arazo jakinen

inguruan hezten ditugu prebentzio arloan; besteak beste, gizentasunaren inguruan.

EROSKIn, apustu egiten dugu elikadura orekatua eta segurua bermatzeko gai diren produktuetan oinarritutako eskaintza komertzialaren alde, eta, eskaintza horretan, behar jakinak dituzten kolektiboen eskakizun nutrizionalak estaltzea sartzen da; esaterako, gaixotasun zeliakoa dutenena.

Osasunaren eta elikaduraren inguruan egiten ditugun proposamenak bat datoz komunitate zientifikok aipatzen dituen behar eta lehentasunekin. Alde horretatik, EROSKI Fundazioak Zientzialari Batzordea du, zeina osasun arloko profesional espezializatuz osatua baitago, eta, 2020an berrituta, epe erdira eta luzera begirako estrategia zehazten digu elikadura osasungarriaren aldeko konpromisoa bete dezagun.



Elikaduraren kalitatea eta segurtasuna

EROSKI Taldearen Kalitatea Kudeatzeko Eredua giltzarritzko prozesu bat da, bezeroari produktu segurua bermatzeko orduan. Zenbait arau, prozesu, prozedura, tresna eta definizioen arabera egituratzen da; elementu horiek elkarri loturik doaz balio kate guztian, eta bermatzen dute merkaturatzen ditugun produktuek berme guztiak betetzen dituztela elikagaien segurtasunaren aldetik.

Aurten, pandemiak pandemia, bete ahal izan dugu ikuskaritzen eta produktuaren kontrol planaren jarduera, nahiz eta horietako batzuk idazki bidez egin behar izan diren. Hala, plataformetako ikuskaritzak bakarrik gelditu dira egin gabe.

Ikuskapenak saltokiei

Kalitatea eta higieena zaintzen ditugu gure saltoki eta plataforma logistiko guztietan, eta, hori bermatzeko, ikuskapen protokolo exhaustibo bat dugu. 2020an, 918 ikuskapen egin dituzte gure saltokietan, eta honako alderdi hauek kontrolatu dituzte:

-  Hotz katearen mantenimendua eta hornidura katearen kalitatea.
-  Egoitzen higieena eta garbiketa.
-  Produktuen kalitate mikrobiologikoa.
-  Trazabilitate sistemak produktu guztientzat.
-  Elikadura alertak kudeatzeko sistema eta produktuak kentzea.
-  Kalitatea kontrolatzeko sistemak eta tresnak.

ikuskapen saltokiei

918 auditoriak.

Ikuskaritzetan gorabeheraren bat detektatuz gero, ekintza zuzengarriak eta segimendu planak ezartzen ditugu gora-behera zuzentzeko.

Ikuskapena hornitzaileei

Gure balio katean sartzen da hornitzaileei ere helaraztea gure kalitate estandarrak eta produktuen eskakizunak. Europa mailako kalitate eta segurtasun estandarrak bultzatzen ditugu, hala nola International Food Standard ziurtagiria. Produktu freskoen kasuan, gure eskakizunak are zorrotzagoak dira; kasu horretan, garrantzi handikoa baita nola ekoizten, kontserbatzen eta garraiatzen diren.

Estandar eta eskakizun horiek behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, ikuskaritzak egiten ditugu, eta ekintza planak ezartzen, onespenerik lortu ez duten kasuetan. Erremediatu direnean eta dagokien ikuskaritzak gaindituta, hornitzailea homologatu egin daiteke.

2020an, 274 ikuskapen egin genizkien marka propioko hornitzaileen ekoizguneei. Ikuskatutako hornitzaile guztien %89k ondo gainditu zuten azterketa. Gainerakoek neurri zuzentzaileak aplikatu zituzten, edo utzi egin zitzaion EROSKIn hornitzaile homologatu izateari. Horretaz gainera, beste marka batzuetako hornitzaileen 44 lantegi ikuskatu genituen, eta %79k gainditu zuten.

Nabarmentzekoa da bilakabide positiboa izan dugula lehen sektoreko ikuskaritzetan (haragiaren, barazkien eta arrainaren sektorean), zeinarekin kontrol programa espezifikoa abiatu baikenuen 2018an.

Marka propioa

274 ekoizgune ikuskatuak.

Beste marka batzuk

44 ekoizgune ikuskatuak.

Produktuen eta zerbitzuen kontrol analitikoak

Gure produktuen eta zerbitzuen kalitatea birritan bermatzen dugu, zeren eta, hornitzaileek eta fabrikatzaileek egiten dituzten kontrolez gain, guk geuk egiten ditugu kontrol analitiko exahustiboak. 2020an, EROSKI Talde osoan 15.427 lagin analizatu genituen, eta horietatik %95ek lortu zuten emaitza egokia. Hiru analisi mota egin ditugu:

- **Kimikoa:** osasunerako eta segurtasunerako esanguratsua den substantziarik ez dagoela edo kopuru egokietan dagoela bermatzen dugu.
- **Mikrobiologikoa:** ez dagoela patogenorik eta egoitzen higieneari eta freskotasunari eusten zaiela bermatzen dugu.

- **Genetikoa:** animalia eta landare espezieak identifikatzen ditugu, eta genetikoki eraldatuta dauden organismoak detektatu.

Urte hau esanguratsua izan da produktu berri bat gaineratu dugulako, maskara, zeinaren kasuan legedi aldetik aztertu beharra izan baita eta fitxa teknikoa eta etiketa gehigarriak egin.

Emaitza balekoa ez bada, hornitzaileari neurriak hartzeko eskatzen zaio, eta ondoren beste kontrol bat egiten da gorabehera horiek zuzenduta daudela ziurtatzeko. Elikadura segurtasunerako arriskurik balego, badaezpadako printzipioa aplikatzen dugu, eta berehala kentzen salmentatik.

Laginak programa analitikoaren arabera 2020an aztertutak

Programa analitikoak	Egindako analitikak
Olioak	82
Trans erako gantz azidoak	25
Akrlamida	174
Gehigarriak*	80
Ura	47
Alergenoak	437
Amonio kuaternarioak	13
Analisi sentsozial konparatiboak fruta	573
Campylobacter	47
Erregaiak	179
Listeriaren kontrola zoruetan	2.345
Zoruen kontrola dendetan	836
Drogeria eta kosmetika	109
Ontziratze propioak	276
Iraupenaren gaineko azterketak	115
Fruta EROSKI Natur fisiko-kimikoak	682
Izotza	193
Histamina	21
Arrautzak	67
Hezetasuna urdaiazpikoetan	34
Espezieen identifikazioa	77
Esnea	36
Listeria	210
Arriskua duten lokalak	1.485
Eskuztatuak	2.304
Maskarak	14

Programa analitikoak	Egindako analitikak
Metal astunak	66
Mikotoxinak	88
Mikrobiologia gaztetan (listeria eta estafilokozia toxina)	18
Mikrobiologia orokorra patogenoak eta higienea**	280
Eztia	11
Ontzien migrazioa	6
Maskor biko moluskuak	13
Elikadurakoak ez direnak	982
OGEak	39
Haragi prestakinak	1.675
Hondakin fitosanitarioak	363
Haragi-arrainetako medikamentu hondakinak	158
Salmonella	365
Fruta eta barazkien jarraipena	30
Palma gantzik gabea	80
Stand sush	72
Turroiak	23
Fitxa teknikoaren egiaztapena	624
Ardoak	6
Zukuak	67
Guztira	15.427
Ondo atera ez diren analitikak guztira	839
Ondo atera ez diren analitiken ehunekoa	5%

* koloratzaila artifizialak, sulfitoak krustazeoetan, nitratoak eta nitritoak.
**Haragiaren eta egositakoen deribatutak, IV gama, ketuak eta erdikontserbak, arrain freskoa eta gezatua, fruta zatikatua eta soluzio kulinarioak..

Elikadura osasungarria eta orekatua 417-1

Osasunarekin dugun konpromiso ukaezina dela eta, saltzen ditugun produktuen elikagaien segurtasuna bermatu baino gehiago egiten dugu. Hori dela eta, kontsumo aukera orekatsuagoak eta osasungarriagoak eskaintzeko lan egi-

ten dugu. Alde horretatik, etengabe berrikusi eta hobetzen dugu haren fitxa, osasun adituek emandako gomendioei jarraituz.

Produktuaren hobekuntza nutrizio aldetik

EROSKIn gure produktu guztien osagaietan lan egiten dugu nutrizio aldetik duten soslai etengabe hobetzeko. Oreka handiagoko produktuak bilatzearen poderioz, gure gizarteko patologia orokorrenak sorrarazten dituzten mantengulak gufxitu ditugu; patologia horietako batzuk dira, esaterako, bihotz-biriketako gaixotasunak eta gizentasuna. 2020an, 58 erreferentzia birformulatu ditugu helburu horrekin, eta gure markako gamaren %70ek baino gehiagok lortu dute A, B edo C balorazioa Nutri-Scoreren eskalan.

2020an, jarraitzen dugu marka propioko salmentak berregituratzen nutrizio kalitatearen aldetik; Nutri-Scoreren aurrealdeko etiketatzearekin adierazia dago, eta bezeroek ontzian edo prezioaren etiketan ikus dezakete gure markako elikagai produktu ontziratu guztietan. Bi urtean, Nutri-Score duten produktuen salmenta guztiaren %50 baino gehiago izan dira A eta B produktuak, eta hala %49,89ko salmentatik %52,35ekora pasatu dira (hau da, 2,46 puntu igo dira, %4,93).

Gainera, konpromiso batera heldu gara *jan-edan*en *Osara Hobetzeko Neurriak* eta *Bestelakoak* izeneko 2020rako

*Lankidetz*a *Planarekin*; plan hori sartuta dago Elikaduraren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren *Nutrizioa, ariketa fisikoa eta gizentasunaren prebentzioa sustatzeko estrategia*-ren barnean, eta horren helburua da azukreen, gantz saturatuen eta gatzaren mediana %10 jaistea. Hala, aurtan, marka propioko 125 erreferentzia birformulatzez bukatu dugu, helburua betetzeko falta zirenak.

2020an, aurrera egin dugu marka propioetik palma eta koko gantzak errofik kentzeko konpromisoan, eta 2021ean amaituko dugu. Aurtan 86 erreferentzian kendu ditugu osagai eztabaidagarri horiek.

2020an, 236 produktu izan ditugu gantz gutxikoak, 74 azukre gutxikoak, 35 gatz gutxikoak eta 128 zuntz askokoak.

Horiek praktikan jarrita, saiatzen gara hobekuntzak gure kontsumitzaileei jakinarazten, gure produktuen etiketan behar den informazioa ipinita.

Produktuek nutrizio eta oreka aldetik dakarten informazioa

EROSKIn konturatzen gara kontsumitzaileei ematen diegun informazioa zein garrantzitsua den haien interesak zaindu eta babesteko; izan ere, horrela bakarrik har ditzakete beren beharren araberrako erabakiak. Hori dela eta, informazio zabal, osoa eta egiantzekoa eskaintzen dugu haren edukiaz eta elikadura osasungarria edukitzearen garrantziaz.

Aldi oro, produktu bakoitzaren etiketen arloan dagoen lege-dia betetzen dugu, baita geure markari jartzen dizkiogun eskakizunak ere; gainera, informazio gehigarria ematen dugu alergenoko identifikatzea errazten duten piktogramekin eta nutrizio arloko informazio sistemekin, dela Semaforo Nutrizionala eta dela Nutri-Score. Informazio falta dela-eta arrisku sanitarioan sartzen bagara, produktua berehala kentzen dugu salmentatik. Ikuskapen horiek eginda eta kontsumitzaileei entzunda, etiketan informazioa nola eman optimiza dezakegu, errazago ulertzeko modukoa izan dadin.

Horretaz gainera, badira eskuorriak, dendako kartelak eta webgunea ere. Hala, haurrentzako produktuen publizitatea egokitu egin dugu PAOS Koderak (*Adingabeei zuzendutako elikagaien autoarautze kodea eta gizentasunaren eta osasunaren prebentzioa*), zeina Elikaduraren Nutrizioaren Espainiako Agentziaren NAOS estrategian ere badatorren.



EROSKiren nutrizio arloko informazio sistema aurreratua: Nutri-Score eta Semaforo Nutrizionala

2018an, 10.000 laguni entzun ondotik, aitzindariak izan ginen Nutri-Score etiketa gure markako produktuetan sartzan, eta merkatuan parekorik ez duen nutrizio eredu berezia eratu genuen. Horri esker, kontsumitzaileek erraz jakin dezakete nutrizio aldetik nolako balorazioa duen produktu bakoitzak, eta antzekoak diren beste batzuekin konparatuz onena aukeratu, semaforo nutrizionalak ematen duen informazioaren xehetasunik galdu gabe.

2020an, Nutri-Score ipini dugu dendetan, gure markako elikagai guztietan, eta, gainera, 1.700 produktu baino gehiagoren ontzietan, baita gure Bazkide Bezeroei proposaturiko errezeta guztietan ere. Hala, 2021ean, Nutri-Score ipintzez amaituko dugu dagokien marka propioko ontzi guztietan.

Nutri-Scoreren etiketa, Osasun Ministerioaren balidazioa duena, grafiko edo semaforo moduko bat da, elikagai ontziratutak sailkatzen dituen bost letrarekin eta koloreekin, nutrizio aldetik nola osatua dagoen, A berde ilunetik B berde argira (osasungarrienak) eta D laranjatik E gorriara (nutrizio aldetik kalitate txikiagoa dutenak), tartean C horia dagoelarik, erdibideko lekuan. Produktu bakoitzaren letra algoritmo batekin kalkulatu da, eta algoritmo hori literatur zientifiko askorekin egiaztatua dago, zeinak modu negatiboan sailkatzen baititu kaloriak, azukreak, gantz saturatuak eta gatzak, eta modu positiboan, beriz, zuntza, proteinak eta fruta, berdura, fruta lehorrak eta lekaleak, betiere produktuaren 100 gramo hartuta. Hala, kontsumitzaileek, erosketak egiten ari direla, elkarrekin konparatu ahaliko dituzte antzekoak diren elikagaiak edo produktu beraren marka diferenteak erkatu nutrizio kalitatearen aldetik.

2007tik darabilgu Semaforo nutrizionala marka propioko produktuetan, eta Nutri-Score haren osagarria izango da. Nutri-Scorek erraztu egiten du dietako kaloriak, gantzak, azukreak eta gatzak kontrolatzea, premiaren bat badago osasun motiboren bategatik (diabetesa, hipertentsioa, pisu gehiegia...). Hala, elikagaiaren zati batek mantenugai jakin bat zenbateko kopuruan ematen duen ikus daiteke, eta erraz interpretatu kopuru txikia den, tartekoa edo handia. Nutri-Score bezala, kolore sistema hau beti dago ontziaren aurrealdean, eta informazioa dakar kalorien kopuruari buruz

Nutrizio behar espezifikoak



eta osasunarekin loturik diren mantenugai garrantzitsuenei buruz (gantzak, gantz saturatua, azukrea eta gatzak) kontsumo errazio bakoitzeko.



Nutrizio arloko informazioa erosketetan oinarriturik

EROSKI Clubek osasun arloko programa aurrerari bat du, eta doan eskaintzen ditu informazio pertsonalizatua eta pizgarriak, zertarako eta elikadura eta erosketak osasungarriago eta orekatsuago bat eraman dezaten gure Bazkide Bezero guztiek. 2020an, 29.000 lagunek baino gehiagok erabili zuten nutrizio arloko zerbitzu hori, EROSKI Club txartela erabiltzen dutenen erosketetan oinarriturik ematen duena.

Informazio horrek analisi xehe eta pertsonalizatu bat ematen du, etxeko erosketak nola doitu dieta mediterraneora. Haren helburua da bezeroa orientatzea elikagaien buruz: zein kopurutan eta maiztasunekin erabili —bai berak eta bai etxeko gainerako kideek— elikadura orekatu bat eramateko.

Gainera, 2020an, EROSKI Clubetik maiztasunez bidali diete osasunari loturiko informazioa eta jarduerak 300.000 Bazkideri baino gehiagori, eta 25.000 Bazkidek baino gehiagok era aktiboan parte hartu dute elikadura osasungarriari loturiko erronketan. Nabarmenezkoa da Familia Chef, Basque Culinary Centerrekin batera garatuta, eta doako sukaldaritza ikastaro digital bat zekarrena EROSKI Clubeko bazkideei laguntzeko jateko ohitura osasungarriak garatzen.

Bereziki aintzat hartzen ditugu gaixotasunak direla-eta sortzen diren elikadura behar espezifiko batzuk, hala nola zeliakia, alergiak eta intolerantziak. Lan egiten dugu gure produktu eskaintza haintzat segurua ez ezik erosketak arrunt baterako behar bestekoa eta prezio egokikoa izan dadin. Alde horretatik, komunikazio arina dugu haiek ordezkatzan dituzten erakundeekin eta kolektiboekin; besteak beste, Espainiako Zeliakoen Elkartearen Federazioa eta Diabetesaren Espainiako Federazioa. Horrela, zuzenean jakin dezakegu nolako eskariak eta kezak dituzten, eta gure elikagaien gama zabaldu, beren eskariei arabera horretara erantzuteko. Gainera, zenbait entitaterekin dihardugu askotariko kanpainetan haien gaixotasunak ikusarazteko eta jendea kontzientziatzeko.

2020an, Lankidetzak Hitzarmena berri du Euskal Autonomia Erkidegoko Zeliakoen Elkartearekin eta Errioxako Zeliakoen Elkartearekin. Horretaz gainera, Lankidetzak Hitzarmen berriak egin ditugu Kataluniako Zeliakoen Elkartearekin eta Nafarroako Zeliakoen Elkartearekin. Guztira, 2020an, lau elkarte horietako 1.600 bazkidek baino gehiagok jaso dute hitzarmenon onura; besteak beste, %20ko deskontua espezifiko glutenik gabe ekoitzi diren 200 erreferentzian baino gehiagotan.

Gaur egun, eta kolektibo horrek dituen behar espezifikoekin dugun konpromisoaren ondorio, jarraitzen dugu glutenik gabeko produktuen eskaintza hobetzeko lanean, bai geure markarekin eta bai fabrikatzaileenarekin; hala, gaur egun

3.000 produktu inguru ditugu glutenik ez dutenak, horietatik 2.500 inguru marka askotakoak eta 530 baino gehiago gure markakoak.


Horretaz gainera, hamar urte baino gehiago dira alergenoen gainera 2220/2004 Errege Dekretua bete ez ezik informazio gehigarria dakargula —aparte eta era ikusgarrian— ohartarazteko alergenoen trazak izan ote ditzaketen. 2020an, 536 produktu zenbatu genituen, marka propioan, glutenik gabekoak; beste 98 produktu, laktosarik gabekoak; 46, esnerik gabekoak; eta 6, arrautzarik gabekoak.

Osasunaren eta jasangarritasunaren gainera informazioa


EROSKI Taldearen informazio proiektuak CONSUMER EROSKI du izena, eta harekin gure kontsumitzaileak formatuta eta informatuta eduki nahi ditugu haiei bizimodu osasungarria eta jasangarria nola egin errazteko egiazko informazio produktu independenteekin, praktikoekin eta arinekin.

Euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz ateratzen den argitalpen honetan, gai askotarikoak lantzen ditugu, elikadurari, elikagaien segurtasunari eta osasunari loturik, baina baita gure kontsumitzaileen interesekoak diren beste gai batzuk ere: ingurumena, elkartasuna, maskotak eta haurtxoen mundua, aurrezpena eta etxeko ekonomia. 2020an gure irakurleei eta kontsumitzaileei zerbitzu emateko eta hobetzeko afanean jarraitu dugu, haren interesekoak diren atal berriak gaineratuta. Horietan, profesional askotarikoek ez ezik zenbait entitatek kolaboratzen dute, hala nola Diabetikoen Espainiako Federazioa, Minbizia Aurrerakuntza Espainiako Elkarteak, Zibersegurtasunaren Institutua Nazionala, UNICEF eta WWF.

Edizio digitala www.consumer.es



Papereko edizioa



Elikadura eta ohitura osasungarriak haurretatik 413-1

Informazioa eta formazioa funtsezko tresnak dira erabaki egokiak hartzeko elikaduraz denaz bezainbatean. Hori dela eta, haur gizentasunari aurre hartuko diogun elikadura sustatzen dugu, eta formazio tresnak eskaintzen ditugu hau-

rrentzat, beren elikaduraz erabakirik onenak har ditzaten modu kontziente eta dibertigarri batean.

Elikadura Eskola

EROSKI Fundazioaren ekimen hau 2013an jaio zen, eta haren helburua da elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak sustatzea herritarrengan, baita topagune izatea ere osasunaren arloko profesionalentzat, hezitzaileentzat, gurasoentzat, ikasleentzat eta elikadura eta ohiturak hobetzearekin konprometitu dauden gainerako herritarrentzat.

www.escueladealimentacion.es

Kalitatezko informazioa ematen du, ezagutza zientifikoan eta berak landutako ikerketetan oinarritzen baita, osasun arloko profesionaletan bermatuta. Ekimenak aurrera eramateko, autonomia erkidegoetako gobernuekin jarduten da, eta osasunarekin eta kontsumo arduratsuekin erlazionatuta dauden erakundeekin.



EROSKI Taldearen Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programak

Hazteko energia

Programa hau martxan jarri zen haur gizentasunaren tasa handiei aurre egiteko, eta hasiera batean 10 unitate didaktiko eta 3 tailer praktiko zituen, ikasgelatik kanpo gauzatzen zirenak (tokiko ekoizleen bisitetan, dendetan eta sukaldaritza ikasgelan); horien edukiak prestatzeko, Batzorde Zientifiko bat egon da alor askotako profesionalek osatua, medikuntzakoak, nutrizio eta dietetikakoak, psikopedagogia, pedagogia eta jasagarritasuna.

2020an, berriz diseinatu dugu programa, erakargarriagoa izan dadin, digitala, interaktiboa eta kostu aldetik eraginkorra. Diseinu berria 2020-2021ko ikasturte honetan aplikatu da lehenengoz.

Hauek dira aldaketa nabariak:

- Moduluak ditu egitura berriak, adin banatuak: izan ere, bizimodu osasungarria nola eraman ez da gauza bera adin batean eta bestean, eta gauza bera gertatzen da soluzioak proposatzeko orduan.
- Eduki espezifikoak ditu 3-6 urteko haurrentzat, ipuinekin, jarduera esperimentera eta sentsorialekin eta jolasekin.
- Eduki espezifikoak ditu 6-8 urteko haurrentzat, erronkak eta komikiak dituzten 5 saiorekin.
- Interakzio jolas bat du elikadura orekatua sustatzeko; maila bat baino gehiago izango du, adin tarte batzuetara egokituta: 6-8 urte, 8-10 urte eta 10-12 urte.
- Baliabide digital berriak (ipuina, jokoak, bideoak...) irakasleentzat eta gurasoentzat, tresna baliagarriak eta dibertigarriak izan ditzaten.
- Hobekuntzak egin zaizkio webean, programan modu errazagoan erregistratzeko eta ikastetxeek edukietara sarbidea izateko.
- Digitalizatuta daude 8-12 urtekoen gaur egungo programaren Unitate Didaktikoko zazpi saio.

COVID-19aren mugapenak direla eta, ohiko dendetara egiten diren bisita tailerren bideoak egin ditugu, bai ikasgelan eta bai familian ikusteko. Eta BCCk bertsio digital bat prestatu du bere Ikasgelako Chefa tailerrarena..

energiaparacrece.escueladealimentacion.es

Aukeratu ona, aukeratu sana, CAPRABOrena

Programa horrek, 2008an martxan jarria, aurrez aurreko online formatua du, eta haren asmoa da haurrei (2-3 urtekoak barne) modu osasungarrian jaten erakustea eta jateko ohitura orekatsuak sustatzea, nutrizioaren arloko profesional baten laguntzarekin; horrekin batera, besteak beste, garapen jasagarriaz, kontsumo arduratsuez eta gosea desagerarazteaz kontzientziatzea.

VEGALSA-EROSKI heziketa programak

VEGALSA-EROSKI beste programa batzuk ere gauzatzen ditu: Visita tu súper (Etorri supermerkatuta), ohitura osasungarriak eta erosketa arduratsua sustatzeko; Mates en tu súper (Matematikak supermerkatuan), dendara bisita eginez erosketak egiten ikasteko; eta Come Rico, Vive San (Jan gozo, bizi ondo), askotariko ekimenak batzen dituen proiektua, esaterako Sannifistas ikastetxeetan, eta proyecto nacional Prevención de la Obesidad. Aligera tu Vida (Gizentasunaren prebentzioa. Arindu zure bizitza) proiektu nazionalaren barnean sartzen da, zeina Gizentasunaren Azterketarako Espainiako Elkarteak baitarama.



EROSKI Taldearen heziketa programetako adierazle nagusiak 2019/2020 ikasturterako

126.002

ikasle parte hartzaileak

1.019

ikastetxe parte hartzaileak

438

dendara eginiko bisita tailerren kopurua

45

hornitzaileengana eginiko bisita tailerren kopurua

39

sukaldaritza ikasgelara eginiko bisita tailerren kopurua



5

Balio kate indartua

Babesa ematen diegu gure hornitzaileei eta haiekin lankidetzan ari gara

Gure salmenta guneetan hornikuntza bermatzen dugu

102-9; 102-10



Koronabirusaren krisiaren hasieran orokortutako ziurgabetasunak eta kezka orokorrak ezinegon kolektiboa eragin zuten, dendetan produkturik ez gelditzeko beldurragatik, eta horrekin batera, etxetik kanpoko kontsumoa desagertu zen. Ondorioz oinarrizko produktu jakin batzuen eskaria nabarmen handitu zen. Sortu ziren behar horiei ahalik eta hoberean erantzuteko eta dendan produktuak egongo zirela ziurtatzeko, EROSKIn gure gaitasun logistikoa areagotu genuen eta gure denden eta ekipoen hornikuntza indartu genituen.

Aplikaturako neurrien artean, eskariak berrikusi genituen, egunez eguneko eskariaren profileragokitzeko. Gure plataformetan segurtasun stockak areagotzeko, elikadura eta drogeria arloko eskaera handieneko mila erreferentziak identifikatu genituen, haien eskuragarritasuna indartzeko. Horrekin batera, lehenetsitako mila erreferentzia horien salmenta aurreikuspenak areagotu genituen gure entseina guztietan, eta produkzio formatu berriak ezarri genituen, batez ere denda txikienetan.

Gure plataforma logistikoaren gaitasuna ere handitu genuen, harrera prozesuetatik ekoizpen prozesuetara. Era berean, gure plataforma batzuek egokitu egin zuten lantzen zuten produktu aukera, gainerako sare logistikoari laguntzeko, eta zerbitzu deszentralizatua aktibatzen zen sal-

menta handiak zituzten erreferentzietarako eta gaueko txanda jarri zen guztietan. Gamak identifikatu eta hainbat plataformetan zentralizatu genituen. Era berean, hautsitako produktuen eta dendak betetzearen jarraipena egin genuen egunero. Gainera, beste zerbitzu aukera batzuk bilatu genituen gure hornitzaileekin plataformen gaitasunak arintzeko eta produktuak gure dendetara ahalik eta azkarren iristeko.

Era berean, gure online supermerkatuaren eskaria ikaragarri handitu zen. EROSKIn, etxeko eskariak bikoiztu genituen hainbat egunez, eta gure zerbitzua etenik gabe mantentzea lortu genuen. Eskariak gora egin zuen, hala-ber, online eskariak dendan (autoz edo oinez) jasotzeko gure zerbitzuetan; 40 gune baino gehiago genituen eskuragarri, eta denak erabilgarri izan genituen. Hori dela eta, gure online zerbitzuaren gaitasuna % 40 handitu genuen.

Bereziki eskertzen dugu gure nekazaritzako elikagaien katea osatzen duten enpresa eta pertsona guztien ahalegin handia, inoiz baino gehiago behar gaituen gizarteari irtenbiderik onena ematen lagundu baitigute. Erantzun bateratu onenen alde lan egiten jarraituko dugu, malgutasuna, borondatea eta egoki erantzutea bilatuz, gaur egungo egoera ezezagun eta aldakorrean.



Balio kate eraginkorra eta kolaboratiboa

"Zurekin" denda eredu, gure saltokietan eta gure bezeroekin harremanetan egoteko modu berri batean islatzen den estrategia izateaz gain, berrikuntza integralaren eta balio katearen optimizazioaren aldeko apustua ere bada. Gure kolaboratzaile nagusiek, enpresa hornitzaileek, estrategia eta ikuspegi komertzial horri jarraitu behar diote, modu aktiboan parte hartuz eta egunez egun elkarrekin eraikitzen lagunduz.

Geroz eta zabalagoa eta pertsonalizatuagoa den eta aurrezteko aukera handiagoa ematen duen produktu sorta bat lortzeko, balio kate bat dugu, gure marka propioari, beste marka batzuei eta tokiko ekoizpeneko elikagaien askotarikotasunari irekia, gure denda bakoitzetik gertu. Gainera, harreman komertzial onenak mantentzen ditugu kontsumitzaileei egiten diegun proposamena hobetzeko, prezioari dagokionez, eta nekazaritzako elikagaien ekoizpen sarearen askotarikotasuna indartzen jarraitzen dugu, tokiko sektorea jasangarria izan dadin. Horretarako, EROSKIn eta bezeroen arteko konpromisoaz baliatzen gara.

Hauk dira gure merkataritza lehiakortasuna hobetzeko gakoak



Optimizazioa

salmenta eta hornikuntza prozesuan, balio kate osoan eraginkortasun handiagoa lortzeko.



Berrikuntza

enpresa hornitzaileekiko eta elikaduran erreferentzia diren erakundeekiko lankidetzaren esparruan.



Prezio

egoki eta lehiakorragoak, merkataritza itunei eta promozio eta eskaintza pertsonalizatuen kudeaketari esker.



Aniztasuna

nekazaritzako elikagaien ehunaren ekoizpena, tokiko ekoizle txikiak sustatuz.




Erantzunkizuna

gizarte eta ingurumen enpresa hornitzaileak aukeratzeko irizpide gisa.



EROSKiren balio-katea

Hornitzailea



Hornitzaile
Bazkidea

AECOC
Estandarrak


Gizarte erantzukizuna

Fabrikatzailearen
markako

Tokiko
hornitzailea

Marka
propioaren

EROSKI



Merkataritza-formatuen etengabeko egokitzapena

Kudeaketa kategorien arabera, bezeroarentzako irtenbideak

Aliantzak

Erosketa zentroak

Taldeen autokudeaketa dendetan

Administrazio-kudeaketa

Gizarte erantzukizuna

Bezero Bazkideak

Bezeroak

Gure hornitzaileak 204-1

EROSKIn, 10.000 merkataritza eta zerbitzu enpresa hornitzaile baino gehiagorekin egiten dugu lan. Eta haiekin, 2020an, 4.900 milioi eurotik gorako transakzio ekonomikoak egin genituen. Beste era batean esanda, azken ekitaldian 126.000 produktu baino gehiago saldu genituen. Konpromiso nabarmena dugu Espainiako ekoi-zen ehunarekin; izan ere, enpresa hornitzaileei egiten diegun gastuaren % 98 baino gehiago Espainiako lurraldeko enpresei dagokie. Gainera, hurbileko kontsumoa sustatzen saiatzen gara. Horretarako, gure merkataritza hornikuntzako katearen % 58tik gora tokiko eta eskualdeko enpresa hornitzaileak dira.

2017-2020 Plan Estrategikoaren barruan, Hornitzaileekiko Lankidetzaren Plan Orokor bat garatu dugu, gure erakundearen arlo guztiak barne hartzen dituen eta gure Osasun eta Jasangarritasuneko 10 Konpromisoekin bat datorrena. Planak 3 ardatz ditu: Bezeroa (arreta berezia jartzen dugu kontsumitzaileen beharretan), Osasuna (plan estrategikoaren palanka nagusietako bat da) eta Eraginkortasuna (apustu argia egingo dugu logistikaren aldetik).

Merkataritza eta zerbitzu hornitzaileak herrialdeka 2020

Espainia	10.072	Andorra	4	Hego Korea	1
Portugal	53	Bangladesh	4	Indonesia	1
Frantzia	49	Norvegia	4	Israel	1
Txina	45	Pakistan	4	Singapur	1
Alemania	26	Suedia	4	Taiwan	1
Erresuma Batua	25	Suitza	4	Turkia	1
Holanda	19	Grezia	3	Argentina	0
Belgika	18	Vietnam	3	Zipre	0
Irlanda	15	Luxenburgo	2	Eslovakia	0
AEB	13	Tailandia	2	India	0
Italia	11	kanada	1	Polonia	0
Danimarka	6	Kroazia	1	Tunisia	0
Enpresa hornitzaileak guztira				10.394	

Ilus adierazleen eranskineko 28. taula, aurreko urteekin alderatzeko

AGECORE, Europako negoziazio zentral handiena

Ingurune oso lehiakor batean, non, lehengaien merkatuak globalak diren eta marka lider handiak mundu mailakoak diren, EROSKIn indartu egin ditugu nazioarteko merkatuan ditugun aliantzak. Elementu erabakigarriak dira, gure lehiakortasunaren oinarri direnak eta kontsumitzaileei aurrezteko aukera berriak eskaintzeko aukera ematen dutenak.

AGECORE Europako erosketen zentrala da, hauez osatua: EROSKI, ITM Taldea (Frantzia), EDEKA (Alemania), COLRUYT (Belgika), CONAD (Italia) eta COOP (Suitza). Denek, enpresa independenteak sortzeko abiapuntutik, epe luzerako

ikuspegi estrategikoa partekatzen dute. Bere helburua da Europako kontsumitzaileei produktu sorta zabalagoa eskaintzea, aukeratzeko askatasun handiagoa izateko eta prezio onenak eskuratzeko. Era berean, gure enpresa hornitzaileei negoziatorako aukerak zabaltzen dizkie.

AGECOREren fakturazio globala 140.000 milioi eurora heldu da, eta haren merkataritza jarduera Europako 7 herrialdetan garatzen da (Alemania, Belgika, Espainia, Frantzia, Italia, Suitza eta Portugal).

Gure hornitzaileen gizarte erantzukizuna 102-9; 414-1; 414-2

Gure balio katearen ezinbesteko zati gisa, jasangarritasunari buruz ditugun gure konpromiso guztiak aplikatzen dizkiegu enpresa hornitzaileei, langileen kudeaketa arduratsua eskatuta eta ingurumen kudeaketarako sistemak ezartzen dituzten enpresak sustatuta.

Lan eta giza eskubideen arloetan eskatzen ditugun oinarritzko eskubideak Nazioarteko Lan Erakundeak eta Nazio Batuen Mundu Itunean (2002az geroztik haren parte gara) ezarritako eskakizunetan oinarrituta daude. Hauek dira:

Oinarritzko printzipioak:	1.	2.	3.	4.
	Haur lana baztertea eta ez erabiltzea.	Derrigorrezko eta nahitaezko lana baztertea eta ez erabiltzea.	Lan giro segurua eta osasungarria sortzea .	Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea errespetatzea .
5.	6.	7.	8.	9.
Edozer kausarengatik diskriminazioa baztertea eta ez gauzatzea.	Gorputz zigorrak, hertsadura mentala edo fisikoa, edo hitzezko abusuak baztertea eta ez erabiltzea langileekin.	Lanorduei eta jalegune bidezko legeak betetzen direla bermatzea .	Ordainsariak sektore bakoitzeko legeko araudiaren arabera izatea, langileen oinarritzko premiak betetzen direla eta bestelako gastu batzuetarako ahalmena ere izango dutela bermatuz.	Arauaren printzipioak betetzen direla eta erakunde barruan haien berri ematen dela bermatzen duen kudeaketa sistema bat ezartzea .

Gure enpresa hornitzaileen eta frankiziatuen % 100ek eskakizun horiek bete behar dituzte, eta haiekiko merkataritza harremanak bere horretan jarraitzeko, giza eta lan eskubideak bete behar dituzte. Jarraipen berezia egiten diegu arrisku handieneko enpresa hornitzaileei; hau da, Asian dauden ehungintza sektoreko eta elikagaiak ez diren produktuen sektoreko enpresei. Era berean, barne araudi bat dugu jarduera ustelak prebenitzeko neurriak sustatzeko, hornitzaileak eta kontratafak kudeatzearan.

Bidezko merkataritza

EROSKI Espainiako merkataritza eskaintzan bidezko merkataritzako produktuak sartu zituen lehen banaketa enpresa izan zen. Gainera, Fairtrade International erakundeak produktu horiek inportatzeko eta gure merkataritza markarekin banatzeko legitimatutako eragile gisa aitortu gaitu. Hauek dira saltzen ditugun bidezko merkataritzako produktuak: kafea, kakaoa, tea eta azukrea, baita ziurtatutako ehungintzako zenbait produktu ere. Zigilu horrek bidezko merkataritzaren irizpide sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak betetzen direla bermatzen du.

Logistika eraginkorra

Gure logistika sarea berezko 23 plataformaz osatuta dago. Edonola ere, Taldeko saltoki guztiak hornitzeko, gure kamioiek 34 plataforma erabiltzen dituzte, tartean, kanpoko enpresa batzuenak ere. Guztira, biltegiek 337.000 m²-tik gorako azalera dute eta, haietatik, milioi bat kaxa inguru banatzen ditugu egunero.

2020an, produktu freskoen plataformen mapa berriz diseinatzea helburu duen proiektu global batekin jarraitu genuen. Instalazio berrien estrategia nagusia da gure instalazioak fisikoki berritzea, punta-puntako teknologia ezarriz, produktu fresko bakoitza ezin hobeto tratatu ahal izateko, eta tratamendu, manipulazio eta biltegitratze tenperaturaren baldintzak bermatzeko. Gainera, hazteko gaitasun handiagoa izan nahi dugu, eta jatorriaren eta gure bezeroen artean igarotzen diren denborak murriztu. Horrela, gure "zurekin" ereduaren parte gisa dugun espezializazioa eta konpromisoa sendotzen ditugu, kalitate handieneko produktu freskoak eskaintzeko, tokiko produktuen aukera zabalenarekin batera.

Instalazio moderno eta eraginkor berri horiek, gainera, bezeroen etorkizuneko eskaerei erantzuteko prest egoteko aukera ematen digute (irekierak, gama zabaltzeak, online merkataritza, tokiko produktu gehiago, etab.). Produktu galkorretarako logistikaren modernizazioari, ingurumena gehiago errespetatzen duten instalazioak, hotz ganbera

eraginkorragoekin teknologia eguneratzea eta plataforman lan egiten duen giza taldearen laneko erosotasuna eta segurtasuna areagotzea gehitu behar zaizkie. Higiezinak ekoeraginkortasun eta jasangarritasun estandar zorrotzei jarraituz eraikita daude.

Sare logistikoa eraldatzeko oinarrietako bat 2020an El Prat de Llobregateko (Bartzelona) Jarduera Logistikoaren Ereman (JLE) CAPRABOren produktu freskoak banatzeko plataforma berri bat inauguratzea izan da. Cienciasekoaren orde. Plataforma berriak 24.000 m² inguruko azalera du eta, egindako balioespenen arabera, 20 milioi euroko inbertsioa egin da hura eraikitzeko. Nabea ekoeraginkortasun eta jasangarritasun estandar zorrotzei jarraituz eraiki da, eta, horri esker, LEED Gold ziurtagiria lortu dezakegu instalazioetarako.

Bestalde, 2020an, 17.600 m2 baino gehiagoko plataforma berri bat eraiki zen Jundizen, (Gasteiz), produktu freskoetarako; punta-puntakoa jasangarritasunaren ikuspuntutik, eta 20 milioi euroko inbertsioarekin. Banaketa zentral berriak Euskadiko gure 300 denda baino gehiago hornituko ditu, eta gaur egun Euskadin kudeatzen ditugun freskoen bi instalazio txikiago ordezkatzuko ditu (Bekolarra eta Jundiz).



EROSKI Taldeak erabiltzen dituen plataforma logistiko nagusien mapa



Fakturazioa errazten diegu gure hornitzaileei

EROSKI eta CAPRABO AECOCen 2020ko Benchmarking Supply Chain delakoaren hirugarren eta laugarren postuan kokatu ziren, hurrenez hurren, non fabrikatzaileek eta banatzaileek hornidura katearekin lotutako jardueren eraginkortasun maila ebaluatzen duten. Bereziki nabarmendu zituzten gure fakturazio sistema eta lankidetzeta eta plangintza prozesuak, bai eta gure truke sistema ere.

Fakturazioari dagokionez, duela bi urte proiektu bat jarri genuen abian, hornitzaileei erreferentzien inguruko desadostasunen berri emateko, ez fakturen ingurukoak, eta horrek nabarmen errazten dio kudeaketa hornitzaileari. Gaur egun, 102 hornitzailek erabiltzen dute fakturak linean erkatzeko zerbitzua, eta oso balorazio positiboa egiten dute. Modeloa gure plataformaren batean entregak egiten dituzten gainerako hornitzaileei zabaltzen jarraitzen dugu.

Hazten ari gara, gure ingurunearekin batera


203-2; 204-1; 413-1

Ekoizpen sektore askotariko bat izateko aukera edukitzea, garapen jasangarria bideratua lehen sektoreko ETEen bidez, tokiko nekazaritzako elikagaien munduarekin dugun harremanaren elementu garrantzitsuenak da: gure kooperatiba geneetan daramagu askotarikotasun horrekin konprometitzea, lankidetzaz inguruneak sortzea eta enpresa hornitzaile askorekin lan egitea. Gure merkataritza politikak ahalik eta gehien bultzatzen ditu tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortuz eta nekazaritzako elikagaien, ekonomia- eta gizartearen garapena bultzatuz. EROSKIn Espainian dituen 4.000 merkataritza enpresa hornitzaileen

erdiak baino gehiago tokiko ekoizpen enpresa txikiak dira.

Estrategia horren onurak hainbat dira. Alde batetik, enpresa ekoizle txikiek EROSKIn merkaturatze kanala dute beren salgaiak banatzeko, eta horrek eragin handia du enpleguan, landa garapenean eta paisaia naturalak mantentzeko. Bestalde, kontsumitzaileek produktu freskoagoak, jasangarriagoak, osasungarriagoak eta kalitate handiagoak aurkitzen dituzte EROSKIn.

Hornitzaileen eta ekoizleen kopurua, autonomia-erkidegoka 2020an



Lankidetza tokiko nekazaritzako elikagaien ekoizleekin

EROSKik hornitzaileekin duen elkarlana hiru ekintza konpromiso nagusitan ardatzen du, tokiko nekazaritzako elikagaien ETEekin:

- 1 Ekoizpen enpresa txikien produktuak kontsumitzaileen esku jartzea.
- 2 Mikroenpresa, ETE eta kooperatibak aintzat hartzen dituen merkataritza kudeaketa garatzea.
- 3 Profesionalizatzeko eta enpresak hazteko planetan parte hartzea.

2020an, 1.974 alta berri izan genituen tokiko/eskualdeko produktuetan; horietatik 1.083 freskoak dira, eta 891, berriz, elikagaiak. Alta berri horiek 20 milioi eurotik gorako salmentak sortu zituzten.

Gainera, erakunde sektorialekin ditugun lankidetza hitzarmenak berritzen eta berriak sortzen jarraitzen dugu, tokiko elikagaiak, jatorri deiturak (JD) eta adierazpen geografiko babestuak (AGB) sustatzeko. Gaur egun, JDBko edo AGBko 2.700 produktu baino gehiago ditugu: JDBko 1.700 ardo inguru eta 190 gazta baino gehiago, JDBko edo AGBko 180 landare kontserba, olio, lekale eta arroz baino gehiago, eta AGBko 200 haragiki baino gehiago.

Era berean, Barazki Plana: Lankidetzako Dibertsifikazio Jasangarria proiektuari jarraipena eman diogu. Lankidetza proiektu hori Eusko Jaurlaritzak eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatzen dute, Euskadiko baratze ustiatzearen errentagarritasuna hobetzeko, dibertsifikazioaren eta labore berrien erabilera jasangarriaren bidez.

Tokiko nekazaritzako elikagaien enpresa ekoizleekin hitz egitea funtsezkoa da lankidetza eredu honetarako. Horregatik, aldian-aldian bilerak egiten ditugu haiekin, EROSKik eta ekoizle txikiak lehen sektorean aniztasuna sustatzeko duten estrategia komuna sustatzen eta berritzen jarraitzeko.



EROSKI suma tokiko ekoizleekin

2020an, Basque Culinary Centerrekin dugun lankidetzaren hitzarmena berritu genuen. Hitzarmen horren barruan, gure hornitzaileekin lankidetzan, EROSKI suma abian jarri da. Dibulgazio proiektu berri horren helburua da hainbat eragile biltzea elikaduraren eta gastronomiaren sektoreari eragiten dioten gaurkotasuneko gaiak, gai estrategikoei edo garrantzi sozialeko gaiak buruzko mahai inguruetan, ezagutza partekatzeko eztabaida ingurune bat sortzeko asmoz. Lehen edizioan (online egin zen, pandemiaren murrizketak direla eta), hain zuzen ere, gai horri heldu genion La mirada del productor local frente a la pandemia (Bertako ekoizlearen ikuspegia pandemiaren aurrean) kontuan hartuta.

Tokiko produktuen sustapena

Tokiko produktuak sustatzeko, EROSKik haiekin lotutako kultura, gastronomia eta sukaldaritza balioak ere zabaltu eta sustatzen ditu. Azken urteetan, hurbileko produktuen eskaintza handitu dugu etengabe, eta, aldi berean, EROSKin tokiko elikagai horien kontsumoa sustatzeko konpromisoa hartu dugu, gure kultura gastronomikoari, ekonomiari eta paisaiei eusteko bide bat dela uste dugulako.

Merkataritza dinamizazio horrek sasoiko produktu freskoetan jartzen du arreta, kontsumitzaileek bereziki estimatzen dituzte eta. Zentzu horretan, tokiko 50 kanpaina baino gehiago egin ditugu Espainiako zenbait eskualdetan eta autonomia erkidegotan, bai eta eskualdeko monografikoak ere.



Lehen sektoreari babesa COVID-19an

Tokiko ekoizleekiko lankidetzaren osasunaren eta jasangarritasunaren aldeko gure 10 konpromisoen ardatzetako bat da. COVID-19aren krisiak sukaldaritza negozioak itxia eragin zuen unetik, non nekazari eta abeltzain txikien ekoizpenaren zati handi bat erabiltzen den, EROSKin modu proaktiboan jarri ginen martxan lehen sektoreari laguntzeko. Gure esperientzia ekoizle txikien zerbitzura jarri nahi izan dugu, une hauek gainditzeko laguntzeko, eta ohiko merkaturatze bideak galdu dituzten familia ustiatzei gure dendak ireki dizkiegu. Geldialdiak fruta eta barazki ekoizleei, abeltzain txikiak, esne ustiatzei, gazta freskoen ekoizleei eta abarri eragin die, eta horiekin elkarlanean hasi gara, gauden autonomia erkidego guztietan beren produktuei irteera emateko. Gure ohiko hornitzaileen laguntzari esker, produktu horietako asko gure dendetara eraman ahal izan ditugu. Bestalde, zuzeneko komunikazio kanal bat ireki dugu, eta,

horren bidez, beren produktuei irteera emateko beharra duten ekoizle txikiak gurekin harremanetan jarri dira laguntza eskatzeko. Koiunturak eraginda eta azkar, alta eman diegu hornitzaile gisa, eta beren produktuei lekua egin diegu gure dendetan.

COVID-19ak eraginda, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian, Balearretan eta Galizian lankidetzaren ekintza bereziak egin ditugu, ardoak, gaztak, arkumea, patatak, barazkiak, zainzuriak, orburuak, txahala, piperrak, olioak, eztiak eta esnekiak merkaturatzeko.





6

Ingurumenaren hobekuntzarekin inplikatuta

Garapen jasangarriaren bultzada

Ingurumenaren kudeaketa arduratsua



EROSKIn gero eta konprometitua gaudela jasangarritasunarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin. Arlo horretan aplikatzeko den legeria jardun eremu guztietan betetzen dela bermatzeko lan egiten dugu, eta, horrez gain, etengabe ahalegintzen gara inpaktu negatibo nagusien identifikazioa, karakterizazioa eta minimizazioa hobetzen eta gure jarduerak ingurumenean dituen inpaktu positiboak optimizatzen.

Garrantzitsua da aipatzea aurten, COVID-19aren krisian gure langileen eta kontsumitzaileen segurtasuna eta osasuna lehenetsita, behin erabiltzeko plastikoen gastua igo dugula, dendetan prebentzio neurriak hartzearen beharriari erantzuteko (maskarak, eskularruak, gel hidroalkoholikoa, etab.). Gainera, pandemia garaian hondakinak kudeatzeari buruzko araudi berriak onartu ziren, eta horiek eskularru horiek eskuarki egiten dugun moduan birziklatzea eragotzi digute aldi batez, COVIDarekin kutsatuta egoteko arriskua dela eta. Hala eta guztiz ere, ingurumenaren gaineko inpaktuak murrizteko ahaleginean jarraitzen dugu, energia eraginkortasun neurriak implementatuz, material ez-berriztagarrien kontsumoa murriztuz eta negutegi efektuko gasen isurpenak gutxituz.

Ingurumen politika

Konpromiso hori zeharka sartzen da erakunde osoan, ingurumenarekiko errespetua eta gizarte ongizatea gure helburu estrategikoekin lerrokatzen dituen Ingurumen Politika baten bidez. Politika horrekin gure jarduerak klima aldaketaren gainean duen inpaktua minimizatu nahi dugu, natura baliabideak babestu eta modu jasangarrian erabili nahi ditugu, eta hondakinak kudeatu nahi ditugu, ekonomia zirkularreko eta biodibertsitatea kontserbatzeko ereduaren bidez. Gure politikaren oinarritzko printzipioak honako hauek dira:

- 1 Jarrera proaktibo bat mantentzea, indarreko ingurumen araudia betetzen dela bermatzeaz gainera, gero eta konpromiso zorrotzagoak hartzera eramango gaituena.
- 2 Kutsadura prebenitzea gure ingurumen kudeaketaren sistematizazioaren bidez; hartara, gure jarduerari lotutako ingurumen inpaktua kontrolatu, neurtu, saihestu edo murriztu ahal izango dugu.
- 3 Ingurumena kudeatzeko sistema erakundearen alderdi garrantzitsuenen etengabeko hobekuntzan oinarritzea. Horretarako, helburu zenbagarriak finkatu, eta horiek lortzeko beharrezkoak diren baliabideak esleitzen ditugu.
- 4 Eskaintzen ditugun zerbitzu eta produktuen ikerketan eta garapenean ingurumen aldagaia sartzea, praktikan jartzen ditugun ekintzen errendagarritasuna bilatuz eta negoziazio aukera berriak identifikatuz.
- 5 Guztion arteko lankidetzak eta partaidetza jarrerak sustatzea, garapen jasangarria lortzeko. Horretarako ezinbestekoa da pertsonen prestakuntza eta informazioa, erakundearen maila guztietan.
- 6 Komunikazio bideak ezartzea agintariekin, tokiko komunitatearekin, erakunde sektorialekin, hornitzaileekin eta kontsumitzaileekin, gure jardueraren inpaktuen difusio iraunkorra eta gardena bermatzeko, baita horiek gutxitzeko erabiltzen ditugun baliabide eta teknologia ere.

Helburu jasangarriak

2018an, Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko gure Konpromisoen parte gisa, ingurumen hobekuntzarako helburu batzuk finkatu genituen, eta hainbat lan ildo hedatu genituen, horiek lortzeari begira; 2020an, horiek lantzen jarraitu dugu, eta kapitulu honetan zehazten dira.



Gure CO₂ isuriak %25 murriztea 2025erako, gure jarduerak klima aldaketan duen inpaktua minimizatzeko. Horretarako, gure ekipo eta prozesuen eraginkortasuna hobetu, eta energia berriztagarrien erabilera areagotuko ditugu.



Merkaturatzen ditugun **plastiko konbentzionaleko ontzien tonak %20 murriztea** 2025ean, material horren bidez itsasoa eta lurra kutsatzeko egin dezakegun jarduera oro murriztu ahal izateko.



Gure prozesuak **zero hondakinera** eta **ekonomia zirkulararen** printzipioetara orientatzea, elikadurarik alperrik xahutzen ez dela bermatzeko, horrek sortuko lukeen ingurumen eta gizarte inpaktua saihestuta. Helburu horrekin, gure ontziak eta bilgarriak ekodiseinatzeko ari gara, 2025ean guztiz birziklagarriak izan daitezkeen.



Ingurumena eta animaliak gehiago errespetatzen dituzten moduen bidez ekotizitako produktuak bultzatzea, gure **EROSKI Natur produktu guztietan ingurumen ziurtagiriak** eskatuta eta produktu ekologikoen gama zabalduz (animalien ongizate ziguila...). Horrez gain, gure hornitzaileekin lankidetzan dihardugu hainbat proiektuen bidez, beren prozesuetan ingurumena hobetzeko irizpideak sar ditzaten bultzatzeko.



Ingurumen arriskuak eta klima aldaketa

Eroski Taldean konpromiso sendoa dugu jasangarritasunarekin, ingurumenaren errespetuarekin eta negutegi efektuko gas isurpenen murrizketarekin. Hori dela eta, gure ustez ezinbestekoa da ingurumen arriskuak eta haien finantza inpaktua zuzen identifikatzea eta kudeatzea, gure konpainiaren eboluzioa eta zeregina egokiak izan daitezkeen. Natura baliabideen eta ingurumenaren aurkako delituei dagokienez, EROSKIn hainbat departamentuk egin ditzaketen arrisku jardura jakin batzuk aurreikusten, eta horiek saihesteko prebentzio neurriak finkatzen dira, baita eta horien gaineko kontrol espezifikoak ere. Horrez gain, Ingurumen Erantzukizuneko poliza bat dugu, estaldura guztietarako 10 milioi euroko muga gehitua duena eta ezbehar bakoitzeko 5 milioi euroko muga bat estaldura guztietarako.

Bestalde, klima aldaketak funtsezko eragina du balio kate osoan, eta gehienbat arrisku fisikoak eragiten ditu, hala nola muturreko gertaera klimatikoak eta tenperaturen pixkanakako igoera, horiek guztiek eragina izan dezaketelako Eroski Taldearen zereginetan. Ostera, konpainiaren hornitzaileek % 59 tokikoak dira, eta gehien-gehienak estatukoak; horrela, azpiegiturak kaltetu edo saldu beharreko produktuen garraioa eta banaketa bideetan nahasmenak sor ditzaketen muturreko gertaeretatik —hala nola uholdeak eta ekaitzak— erator daitezkeen arriskuak gutxitzen dira. Era berean, EROSKIn jardun eremu nagusia Espainiako iparraldean kokatzen da, non txikiagoa baita lehorte arriskua eta tenperaturen igoera apalagoa aurreikusten baita. Harene, nekazaritza ereduaren aldaketek eta lehengaien urritasunak eragina izan dezakete produktuen eskaintzan; hori dela eta, gure hornidura kateak egokitzeko jarraitu beharko dugu, gertaera klimatiko horien eragina txikiagoa den eskualdetatik hornitzeko. Azkenik, tenperaturen igoerak ekar lezake, alde batetik, produktuak garraiatu bitartean hotz kateari eusteko arrisku bat, eta, bestetik, instalazioetan eta saltokietan klimatizazioak hobetzeko beharra. Horri dagokionez, EROSKIn banaketa zirkuitu laburrak ditu, bere logistika zentro nagusiak penintsularen iparraldean kokatuta, eta energia eraginkortasuna hobetzeko neurriak ere baditu, inpaktu horien eragina gutxitzeko.

Era berean, EROSKIn konpainiak izan ditzakeen trantsizio arriskuez jabetzen gara: erreputazio arriskuak, kontsumitzaileen lehentasunen aldaketari lotutakoak, eta araudi aldaketak. Bezeroak gero eta kontzientziatuago daude erosten dituzten produktuen jatorri eta kudeaketa jasangarriarekin; hortaz, jasangarritasun estrategia eta laneko adierazle argi, garden eta publikoarentzako eskuragarri batzuk definitzea ezinbestekoa da, erreputazio arrisku hori minimizatu ahal izateko. Horren harira, EROSKIn kontsumitzaileen portaera aldaketetara egokitzeko lan egiten du, produktuen eskaintza mailan, eskaintzako ondasunak bezeroen lehentasun berrietara ez egokitzearen ondoriozko salmenten jaitsierak izan dezakeen finantza inpaktua minimizatzei begira. Amaitzeko, etorkizun hurbilean, estatuko eta Europako araudiek gardentasunari garrantzi handiagoa eman go diote, konpainiek jasangarritasunaren aldeko ekintzak komunikatzeko garaian, eta txosten zorrotzagoak eskatuko dituzte. Ildo horretan, EROSKIn lanean jarraitzen du klimaren aldeko lanaren eta konpromisoen gardentasunaren alde.

CO₂ **Negutegi efektuko gas isuriak (NEG) - EROSKIren karbono orratza** 305-1; 305-2; 305-3; 305-4; 305-5

Memoria honetan sartutako NEG isuri motak eta jatorrizko iturriak

Aintzat hartutako negutegi efektuko gasak
CO₂, CH₄, N₂O, HFC

Zuzeneko isuriak	Zeharkako isuriak	
1. irismena - Erregaiaren kontsumoa errepidez eta itsasoz eginiko garraio logistikoa. - Hozgarrien ihesak hotz sistemetan. - Gas naturalaren errekuntza instalazio propioetan.	2. irismena Energia erabilera propioarako sortzea.	3*. irismena - Laneko bidaiak errepidez eta hegazkinez (erregai kontsumoa eta hoteletako gauak). - Errepideko garraioan kontsumitutako diesel produkzioa, logistikan eta laneko bidaietan. - Edateko uraren kontsumoa; paperaren kontsumoa egoitzan, publizitatean eta aldizkarietan.

Isurketak guztira
267.092
baliokidearen CO₂ eq.

-%9
2019
arekiko**

Berotegi efektuko gasen isurien intentsitatea

	Azalera komertzialen kg CO ₂ eq/m ²	Salmenta garbien g CO ₂ eq/€
1. irismena	128,0	31,7
2. irismena	77,0	19,0
1+2 irismena	205,0	50,7
3. irismena	19,6	4,8
Guztira	224,6	55,5

Ikus adierazleen eranskineko 30. eta 31. taulak aurreko urteekin alderatzeko.

*3. irismeneko zeharkako isuriak EROSKIren jardueraren ondorio bat dira, baina EROSKI ez da haien jabea eta ez du haien gaineko kontrolik. Orotara, 15 kategoria daude (erositako artikuluak eta zerbitzuak, sortutako hondakinak, saldutako produktuen erabilera, etab.), baina memoria honetan soilik horien zati txiki bat sartu da, datuen eskuragarritasuna dela eta. 2020an, itsas garraio logistikoa gehitu zailo 1. irismenari, eta laneko bidaietan hoteletan igarotako gauak, berriz, 3. irismenari. Datozen ekitaldietan EROSKIren karbono orratzaren 3. irismenean sartutako jardueren kopurua areagotzen jarraitzea aurreikusten dugu.


**Murrizketa gertatu da batez ere hozgarrien ihesak gutxitu direlako eta horiek berokuntza globalean ahalmen txikiagoa dutelako; baita elektrizitate kontsumoa jaitsi delako eta COVID-19aren ondorioz laneko bidaien kopurua gutxitu delako ere.

Berotegi efektuko gasen isurketak, irismenaren arabera

1. irismena
Igorpen zuzenak
152.233 tona
CO₂ baliokidearen

-%8
2019 arekiko


%57



***2. irismena**
Kontsumo elektrikoaren zeharkako isurketak
91.546 tona
CO₂ baliokidearen

-%8
2019 arekiko


%34



3. irismena
Zeharkako beste igorpen batzuk
23.313 tona
CO₂ baliokidearen

-%22
2019 arekiko

%9



*2. Irismeneko isurketak kalkulatzeko, kontratatutako merkaturatzaileen isurketa faktorea erabili da. Mix nazionalarekin kalkulaturako isurketak Eranskineko 30. Taulan jaso dira, eta aurreko urteetako datuekin alderatu da.

Ingurumen jasangarritasuna bultzatzeko ekintzak

Gure Ingurumen Politikarekin eta gure jarduerari lotutako ingurumen alderdi garrantzitsuenekin bat etorrira, EROSKI etengabeko hobekuntzan oinarritzen diren lan ildo batzuk ditugu, gure helburu estrategikoekin bat datozenak. Horietako asko jasotzen dira kontsumo arduratsuagoa sustatzeko 5. konpromisoan, tokiko produktu gehiago eskaintzeko 6. konpromisoan eta bizitza osasungarriagoa eta jasangarriagoa errazteko 10. konpromisoan. Hobekuntza ekintza horiek gure produkzio ibilbidearen hainbat etapatan eragiten dute; hortaz, gure erakundetik kanpo dauden eragileak ere inplikatzeko ditugu, gure ingurumen aztarna murrizten lagunduko dezaketen neurrian.

Produktuak

EROSKIn ezinbestekoa iruditzen zaigu garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa partekatzen duten enpresa hornitzaileekin lankidetzan aritzea, gure eskaintzan ingurumen faktorea txertatzeko. Prozesu guztiek, ekoizpenaren jatorritik hasi eta dendako eragiketetaraino, eraldaketa eta manipulazio guztiak barne hartuta, ingurumen inpaktua murrizten dutela zaintzen dugu. Horren barruan sartzen dira honako hauek: uza osteko tratamendu fitosanitarioak desagerraraztea, gure arrandegiak jasangarritasun zigiluekin ziurtatzea, antibiotikoen erabilera kontrolatzea, animalien ongizatea bermatzeko jardunbideak txertatzea edo gama ekologikoak sustatzea.

Gure bezeroek ingurumen portaera hobea duten produktuez goza dezaten, funtsezko hiru lan ildotan jarduten dugu: produktuen jatorri jasangarria bermatzea, tokiko produktuak eta hurbileko kontsumoa sustatzea, eta gure merkato ontzien eta produktuen ekodiseinua.

Erosketa pribatu berdea

2020an elkarlanean aritu gara IHOBErekin eta Basque Ecodesign Centerrekin, erosketa berde pribatua sustatzeko proiektu batean. Ingurumen profil hobea duten hornitzaileak hautatu eta saritu nahi ditugu, gure balio kate osoa garapen jasangarriago baterantz bultzatzeko. 2021ean, gure erakundearen adarretan ere ingurumen aztarna hobetzeko hainbat proiekturekin jarraituko dugu.

Jatorri jasangarri ziurtatua

Badira hamarkada batzuk kontsumitzaileei aukera osasungarriagoak eta jasangarriagoak eskaintzeko lanean ari gara. Hala, hainbat ziurtagiri, etiketa eta marka ditugu, gure produktuen jatorri jasangarria ziurtatzen dutenak eta gure merkataritza eskaintzaren eraketan lurreko eta itsasoko biodibertsitatea babesteko helburua txertatzea ahalbidetzen digutenak.

Ingurumen ziurtagiriak dituzten produktuak

- **1.100 produktu** ekologiko baino gehiago, 68 EROSKI Bio eta EROSKI Eco marka berrikoak.
- MSCk eta GGNk ziurtatutako arrantzako **461 salmahai eta 8 plataforma logistiko**.
- **Gure kontserbako atun guztiak** ISS-Fren printzipioak betetzen ditu.
- **457 EROSKI NATUR produktu**, hainbat ziurtagiri dituztenak, hala nola GlobalG.A.P., Ekoizpen Integratua, eta animalia ongizatea.
- **24 belle Natural produktu**, ECOCERTen COSMOS Natural ziurtagiria dutenak.
- FSC®, PEFC, Oeko-tex edo SFI zigilua duten **402 produktu**.

Produktu ekologikoak

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikotik datozen elikagaiak eskaintzen ahalegintzen gara, ingurumen jardunbide onenak bermatzen dituen ekoizpen eredu baina. Eredu horrek jatorri sintetikoa duten substantzia kimikoak eta gehigarri artifizialak erabiltzea saihesten du, eta bioaniztasuna eta baliabide naturalak babesten eta animalien ongizatea errespetatzen ditu. 2020an, gure eskaintzak hainbat ziurtagiriren bidez egiaztatutako 1.000 produktu ekologiko bildu zituen; horien artean, Europako logoa nabarmentzen da.

2020an, elikagai ekologikoen EROSKI Bio eta EROSKI Natur Bio eta drogeria produktu ekologikoen EROSKI Eco marka propioak merkaturatu ditugu fruta, barazki eta bestelako elikagaien eta garbitasun eta higiene produktuen 68 erreferentziarekin.

Konprometituak animalien ongizatearekin

- Gure dendetan saltzen ditugun lurreen hazitako oiloen arrautzen bolumena gure salmenten % 44 da dagoeneko. COVID-19aren eraginez, gure dendetako eskariak gora egin du, eta, ondorioz, apur bat moteldu da kaiolatik kanpo hazitako oiloen arrautzen salmentaren hazkundea. Dena den, 2024an denda sare osoan merkaturatutako arrautza guztiak horrelakoak izateko helburua beteko dugu.
- Welfair™ Animalien Ongizatearen ziurtagiri berria erantsi diogu EROSKI Natur-en Aragoiko txerri haragiari, oilaskoari eta txahalari, Animal Welfare printzipioetan oinarritutako estandar zorrotzak barneratuta, besteak beste, elikaduran, ostatuan, osasunean eta portaera naturalean. Horrez gain, gure EROSKI Natur oilaskoak European Chicken Commitment-en baldintza guztiak betetzen ditu, tartean, espezieei, ostatuen ezaugarriari eta hilketari lotutako baldintzak.
- Era berean, animalien ongizate baldintza are zorrotzagoak eskatzen dituen EROSKI Natur-eko landako oilaskoa merkaturatu dugu.
- Animalien ongizatearen zigiluak sartu ditugu hainbat lurraldetako (Galizia, Euskadi, Balearrak, etab.) EROSKI esnean.
- EROSKI Natur hazkuntza arrainak akuikulturako GlobalG.A.P. ziurtagiria du, zeinak arrainen animalia ongizateari buruzko betekizun espezifiko eta zorrotzak baititu bai hazkuntzan, bai garraioan eta hiltzeko moduan.



Arrantza jasangarria EROSKI

Ozeano eta itsasoetako bioaniztasunaren kontserbazioaren alde lanean jarraitzeko, itsas baliabideen aprobetxamendu arrazional baten bidez, 2017ko apirilean, EROSKIren Arrantza Jasangarriaren aldeko Politika onartu genuen. Arlo honetan hartutako konpromisoei erantzuteko, 2020an arrantza jasangarriaren aldeko lanean jarraitu dugu, nazioarteko erreferentziatzko erakundeen eskutik.

Beste urte batez ongi gainditu dugu arrantzaleku jasangarrietatik datorren arrainerako Marine Stewardship Council-en (MSC) zaintza katearen ziurtagiriaren auditoria, eta, horrela, arrandegiko salmahai ziurtatuak dituen Espainiako txikizkako banatzaile handi bakarra izaten jarraitzen dugu. Era berean, hazkuntzako arrainerako akuikulturako GlobalG.A.P ziurtagiria mantendu dugu. 2020an, ziurtagiriaren irismena CAPRABO dendetara zabaldu dugu, eta, beraz, dagoeneko arrandegiko 461 salmahai eta ziurtatutako 8 plataforma ditugu.

2020an, 3.600 tonen kopurua gainditu ditugu, jasangarritasun ziurtagiria duen arrainaren erosketan. Kopuru osofik, 2.000 tona inguru arrantzaleku jasangarrien jatorria bermatzen duen Marine Stewardship Council-ek ziurtatutako arrainari dagozkio, eta 1.600 tona, berriz, GGN (GLOBALG.A.P. Number) zigilua duen akuikulturako arrainari. 2020an, gainera, arrain

jasangarriaren erreferentzia berri bat merkaturatu dugu: GGN ziurtagiria duen EROSKI Natur langostinoa. Horrez gain, nabarmentzekoak dira kanaberaz arrantzatutako hegaluzeak (920 tona) eta AENORen Atun Arrantza Arduratsua (APR) ziurtagiria dutenak (1.288 tona).

Arrantza tresna jasangarriagoak erabiltzearen aldeko erronkan, hitzarmen bat dugu gure kontserbako atun hornitzaileekin, eta, horren bidez, Arrantza Jasangarriko Nazioarteko Fundazioaren (ISSF) printzipioen arabera jarduteko konpromisoa hartzen dute. Soilik arrantza tresna jasangarriagoak (kanabera, APR, FAD objekturik gabe, MSC eta FIP) erabiliz arrantzatutako atunaren kopurua areagotzen ari da; hala, erositako kontserbako atun guztiaren % 77 arrantza jasangarri eta arduratsuaren bidez lortu da. EROSKI bere arrantza jasangarriaren politika sinatu duten hornitzaileekin soilik egiten du lan; horren arabera, hornitzaile horiek ez dute onartzen EBk txartel horia ezarri dien herrialdeetatik datorren atuna, Eskualde Erakundeek onartutako neurriak betetzen ez dituztelako eta legez kanpoko arrantzarekin amaitzeko neurririk hartu ez dutelako.

Gure Arrantza Jasagarriaren Politikak hamabi printzipio ditu, eta horren barruan sartzen dira bai egun martxan ditugun jardunbide egokiak, bai etorkizunerako ezarri ditugun erronkak.

Printzipioak eta konpromisoak EROSKIren Arrantza Jasangarriaren aldeko Politikan

Arrantza aparailu eta arrain jasangarriak gure merkataritza eskaintzan

- 1 Arrantza baliabideen jasangarritasuna aintzat hartzea, merkataritza eskaintza prestatzean.
- 2 Soilik baimendutako arrantzaleku eta pertzetako produktuak merkaturatzea.
- 3 Tamaina txikia dutenak errespetatzea eta gutxieneko tamainaren langa gorago ezartzearen alde egitea.
- 4 Hornitzaileen artean arrantza aparailu jasangarrien erabilera sustatzea.
- 5 Erauzketa arrantzarako MSC (Marine Stewardship Council) zigilua duten produktu jasangarriak sustatzea.

Hornidura katearen jasangarritasuna

- 6 Dendetatik hurbilen dauden kofradiak eta tokiko hornitzaileak bultzatzea.
- 7 Arrantza banatzeko jarduerak ingurumenean duen eragina txikitzea.
- 8 Langileen oinarrizko eskubideak errespetatzen dituzten hornitzaileak aukeratzea, LANEren arrantza lanari buruzko 188. hitzarmena betez.

Gardentasuna eta gobernantza

- 9 Etiketa eta komunikazio gardena kontsumitzaileekin.
- 10 Arrantza sektoreari eta gainerako interes taldeei entzutea, eta haiekin elkarlanean jardutea.
- 11 Kontsumitzaileei arrantza jasangarriari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
- 12 Gobernantza sistema bat izatea kontrol neurri efizienteekin eta ikuskaritzekin; horrela, sendotu egingo da EROSKIren arrantza jasangarriaren aldeko politika.



Ontzi eta bilgarrien ekodiseinua

EROSKI ondo ezagutzen dugu gizarteak plastikoen kutsadurarekin duen kezka gero eta handiagoa, eta urteak daramatzagut kutsadura hori txikitzeko jarduerak egiten. Gure marka propioa sortu genuenetik, gure produktuen ontziak hobetzeko egin dugu lan, eta 2013an Basque Ecodesign Center-ekin bat egin genuen. Bertan, enpresa pribatuek eta IHOB-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak lankidetzan dihardugu ekodiseinuko proiektu berritzaileak kontzeptualizatzen eta abiarazten; elkarlanean ari gara ere Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU) eta nazioarteko ezagutza zentro liderrekin.

2018an helburu hauek ezarri genituen: 2025. urterako gure ontzi guztiak ekodiseinatzea, % 100 birziklagarriak izan daitezen, gehiegizko ontziak kentzea, eta material birziklatuen eta jatorri jasangarriko materialen erabilera sustatzea. Hori lortzeko, 2020an marka propioko 2.000 ontzi baino gehiago aztertu ditugu, gure azterna plastikoa murriztea ahalbidetuko duten hobekuntzak identifikatu eta aplikatu ahal izateko.

Ekodiseinurako aztertutako marka propioko ontzien datuak

2.025 erreferentzia aztertu dira. marka propioko 314 hornitzaile aztertuta

Marka propioko etxeko ontzien azterna plastikoa orotara: 7.590 tona urtean % 14 material birziklatua edo bioplastikoa da (konpostagarria edo jatorri berritzailekoa).

Sortzailearen Erantzukizun Hedaturako Sistema Kolektiboai aitortutako produktuetan eta ontzietan erabilitako materialak.

2.875 tona Ontziak eta bilgarriak

Berriztaezinak	Berriztagarriak
Altzairua 389	Kartoia/Papera/Edarietako kartoia 1.118
Plastikoa 1.213	Zura/artelazkia 1
Aluminioa 63	Zeramika 6
Beste batzuk 1	Beira 84
Guztira 1.666	Guztira 1.209

*Gure ontzi gehienak fabrikatzaileek deklaritzen dituzte; hori dela eta, marka propioaren gure ekodiseinu proiektuan kalkulaturako datua osatuago dago.

119 tona Pilak

0 tona Lanpara fluoreszente konpaktuak

1 tona Olia

937 tona Tresna elektriko eta elektronikoak

Ikus adierazleen eranskineko 32. taula, aurreko urteekin alderatzeko

Ekodiseinuko ekintza nabarmenak

2018an helburu hau finkatu genuen: 2025erako ontzietan erabilera bakarreko plastiko konbentzionaleko tonak % 20 murriztea, gutxienez, eta 2021erako dendan ontziratutako gure produktu freskoen plastiko konb

2018az geroztik, ekodiseinuko 145 ekintza baino gehiago ezarri ditugu marka propioko gure ontzietan.

Lehenik eta behin, ontzia kentzeko neurriak ezartzen saiatzen gara; hori dela eta, produktu freskoak soltean saltzearen aldeko apustu garbia egiten dugu. Hala, gure fruta eta barazkien % 60 inguru ontzirik gabe saltzen da, eta beste atal batzuetan soltean saldutako produktuen portzentajea are handiagoa da, hala nola arrandegian % 85etik gorakoa da.

Horrekin batera, gure bezeroen artean berrerabilera bultzatzeko ekintzak egiten ditugu. Hala, bezeroari harategian eta arrandegian bere ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko aukera ematen diogu, hala nola taperrak eta zakote ontziak, edo gure sare erako poltsa berrerabilgarri berria erabili daiteke, erabilera bakarreko plastikozko poltsaren ordez, fruta eta barazkiak soltean erosteko. Halaber, CAPRABOtik, Europako LIFE programako ReWINE berrikuntza proiektuan parte hartu dugu, ardo botilen berrerabilera erazteko.

Horrez gain, plastikoa ingurumen inpaktu gutxiago duten beste material batzuekin ordezkatu nahi dugu marka propioko ontzietan. Adibidez, 20 fruta eta barazkitan plastikozko erretiluak kendu, eta jatorri arduratsua bermatzen duen FSC® ziurtagiria duten kartoizko erretiluak jarri ditugu.

Gainera, erabilgarritasunari edo elikagaien segurtasunari dagokionez ontzietan ezinbestekoak ez diren elementuak kentzen, eta material birziklatuen erabilera sustatzen ari gara, ekonomia zirkularraren ereduarekin dugun konpromisoa beteta. Horiek horrela, haragi eta arrainen erretiluen plastikoaren % 80 baino gehiago birziklatua da; opilgintzako poliestirenozko erretiluen ordez PET % 80koak jarri ditugu; eta, jatorri fosileko plastikozko poltsa, 15 erabilerakoa, aldatu, eta horren ordez % 55etik gora plastiko birziklatuarekin egindako poltsa jarri dugu.

2020an, gainera, gure dendetatik erabilera bakarreko plastiko konbentzionaleko poltsak kentzen amaitu dugu. Hala, kutxetako poltsa sorten aldatuta amaitu dugu, eta horien ordez, paperezko aukera berriak, % 55ean material birziklatuz eginiko poltsak eta poltsa konpostagarriak jarri ditugu. Hori guztia dagoeneko eskura dauden oihalezko poltsa berriztagarriei batu behar zaie.

Horrez gain, produktu freskoen ataletako poltsa guztiak ordezkatzeko amaitu dugu, eta orain paperezko poltsak edo landare jatorriko materialez eginiko poltsa konpostagarriak daude.

Ekintza horiei guztiei esker, dendan ontziratutako gure produktu freskoen ontzietan plastiko konbentzionala %21 murrizteko helburua lortu dugu 2021ean, murrizketa %30etik gorakoa izan baita.





Kutxa-lerroetan merkaturatutako poltsak



Ikus adierazleen eranskineko 33. taula, aurreko urteekin alderatzeko.



Dendan ontziratutako bilgarriak (poltsak, filma eta freskoen erretiluak)



** 2018a erabiltzen dugu oinarri urte gisa, 2021erako dendan ontziratutako plastiko konbentzionala % 21 murrizteko konpromisoa urte hartan hartu genuelak, *** 2018a ez genuen bioplastikorik erabili

Ikus adierazleen eranskineko 34. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Fruta eta barazki itsusiak, elikagaien zarrastelkeriaren kontra

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) emandako datuen arabera, munduan ekoizten diren elikagaien herena zaborretara joaten da. EROSKIn, nekazaritza sektorearen jasangarritasunaren alde eta elikagaien zarrastelkeriaren kontra hartu dugun konpromisoaren baitan, itxuragatik edo tamainagatik *itsusiztat* jotzen diren fruten eta barazkien barietateak merkaturatzea erabaki dugu. 2020an, guztira, 586 tona *fruta eta barazki* itsusi merkaturatu genituen sarean

Aitzindariak marka propioko elikagaien ingurumen adierazpenak argitaratzen.

EROSKI izan da marka propioko elikagaien ingurumen adierazpenak argitaratu dituen kontsumo handiko lehen banaketa katea; adierazpen horiek AENOR GlobalEPD programan egiaztatu dira, EPD System nazioarteko programak ezarritako Produktuen Kategoría Arauen arabera (PKA). Ingurumen adierazpenak lankidetzan egin dira Euskadiko baserriko arrautzen hornitzaileekin (Euskaber), esne hornitzaileekin (Karrantza Harana ENS, ontziratzeaz arduratzen den Lácteos de Santander enpresarekin) eta Basque Ecodesign Center-ekin. Proiektu horrek Cerda Institutuaren Kontsumo Handiko Berrikuntza Behatokiaren aitortza jaso du, 2020an sektorean izandako berrikuntza nabarmen modura. Era berean, proiektuak ekoizleei beren produktuen ingurumen inpaktu zehatzak ezagutzen laguntzen die, eta horrela inpaktuak gutxitzeko hobekuntzak identifikatu ditzaizkete. Horrez gain, kontsumitzaileek informazio gardena, alderagarria eta egiaztatua jasotzen dute. Produktuaren ingurumen adierazpenak argitaratzea EROSKIk gardentasunarekin eta kontsumitzaileen prestakuntzarekin hartu duen konpromisoetako bat da, kontsumo jasangarriagoa bultzatze aldera.

Euskadiko EROSKI esnearen ingurumen adierazpena

Euskadiko EROSKI Natur arrautzen ingurumen adierazpena

EROSKIn gure produktuen ingurumen profila egiten jarraituko dugu, eta horretarako adituekin eta hornitzaileekin elkarlanean arituko gara, bezeroei ingurumenari lotutako informazioa ematen lagun diezaguten. Hala, 2020ko martxoaren amaieran EUSKO-PEF proiektua bukatu dugu, AZTI-ren eta Euskadiko zenbait ETEn partaidetzarekin. Bertan, sistema aurreratu bat garatu dugu Euskadiko elikagaien ingurumen azterna kalkulatzeko, informatzeko eta egiaztatzeko. Proiektu horiek Eskualde Garapeneko Europako Funtsoak (EGEF) eta lhobek finantzatu dituzte, proiektu ekoberritzaileak egiteko laguntza gisa.

Logistika

EROSKIk *LEAN & GREEN* proiektuaren lehen izarra eskuratu du Ekoizleen eta Banatzaileen Elkartearen (AECOC) eskutik, bost urteko epean bere CO₂ isuriak gutxienez %20 murrizteko ekintza planari esker. Azken lau urte hauetan, EROSKIk bere eragiketa logistikoen isuriak %25 baino gehiago murriztea lortu du, 2025erako ezarritako murrizketa helburua nabarmen gaindituta. *LEAN & GREEN* Europa mailako lankidetzako plataformarik handiena da, eta hornidura kateko isuriak murriztea du helburu.



Plataforma ekoeraginkor berriak

Caprabok El Prat de Llobregaten jarduera logistikoen eremuan duen zentro logistiko berriak, produktu freskoaren kudeaketa osoa hartzen duenak, Capraboacasa plataformak eta egoitza nagusi berriak *LEED Gold* ingurumen ziurtagiria eskuratu dute, aitortza bat, energia efizientziaren arloko eraikin liderrek bakarrik eskuratzen dutena. Capraboren plataforma berriaren *LEED Gold* eraikuntza irizpideek, 2021ean inauguratuko den Gasteizko Jundiz Berria plataforman ere aplikatuko direnek, alderdi hauek jasotzen dituzte: ur kontsumoaren aurrezpena, energia fotovoltaiakoaren ekoizpena eta ur bero sanitarioaren sorrera. Horiez gain, beste neurri batzuk ere jasotzen dira, hala nola kontsumoen monitorizazioa, hozgarri ekologikoak, bertako espezieen lorategiak eta eraikuntzan erabiltako materialen birziklapena.

EROSKIk bere isuriak minimizatzeko lanean jarraitzen du helburu berri bat finkatuta: hiru urtean isuriak % 10 murriztea 2019. urtearekiko. Hori lortzeko neurri nagusiak honako hauek izango dira.



Aprovisionamiento más Horniketa efizienteagoa

- Logistikaren berrantolaketa: 2020an, ZAL plataforma berriak irekitzea; 2021ean, Jundiz Berria amaitzea; eta, 2022an freskoen banaketa berria egitea VEGALSA-EROSKIn.
- Efizientzia prozesuak hobetzea, kamioiak gehiago betetzeko eta kilometroak murrizteko.
- Hornitzaileekin kolaboratzea ibilbideak optimizatzeko.



Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak eta gidaritza

- Ibilgailuak berritzea, pixkanaka kamioi zaharrenak kenduz.
- Ibilgailu elektrikoak sartzea.
- Erregai alternatiboak darabilten ibilgailuak jartzea, hala nola gas natural likidotuta eta konprimatuta.
- Errepideko garraioaz arduratzen diren gidariei modu ekologikoan gidatzen irakastea.



Plataforma jasangarriagoak

- Energia berdea erostea.
- LED argiak, mugimendu detektagailuak eta tenperatura robotak erabiltzea eta argi naturalaz baliatzea, plataformetako energia efizientzia hobetzeko.
- Eguzki plakak instalatzea ingurumenean inpaktu txikiagoa izango duen argindarraz hornitzeko.
- Bilgarrietarako erabiltako material kopurua, gutxitzea



Alderantzizko logistika

- Dendetan sortutako hondakinak kudeatzea eta balorizatzea. Horretarako, plataformara itzultzen diren kamioi berberak erabiliko dira, haien inpaktua garraioan txikituz. Neurri hori zero hondakinak sortzeko gure helburuaren barruan sartzen da; izan ere, azpiproductu organiko eta ez-organiko guztiak biltzea eta tratatzea ahalbidetzen du, bai eta behar bezala birziklatzea ere.



Berrerabilitako ontzi logistikoak 301-3



5.085.707
Berrerabilitako ontzi logistikoak



45.584.346
Plastikozko kaxa berrerabiliak

Ontzi logistikoaren haustura % 0,3-30 artekoa da, ontzi motaren arabera. Haustura guztiak aintzat hartuta, ontzi logistikoen % 2 baino ez dira.

Ontzi logistiko hauek berrerabiltzean, CO₂ baliokidearen 10.000 tona baino gehiago igortzea ekiditen dugu.

Ikus adierazleen eranskineko 35. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Denda ekoeraginkorrak

EROSKiren sare komertziala "zurekin" eredura berritzeak eta zabaltzeak orobat dakartza ingurumen irizpideen arabera hobekuntzak, dela eraikuntzan, dela kudeaketan.

Ekoberrikuntza EROSKI denden ezaugarri nagusietako bat izan da hasieratik. Horren froga gisa, hona adibide bat: duela 20 urte baino gehiago, Espainian ISO 14001 ziurtagiria lortu genuen, eta, hala, ingurumen kudeaketako lehen sistema ezarri genuen Arteako gure hipermerkatuan, Leioan (Bizkaia). Gure nahia da energia berriztagarri hornitzen diren eta CO₂-aren balantze neutroa lortzen duten supermerkatuak izatea.

Horretarako, I+G+b proiektuak egiten ditugu gure dendetan. Ildo horretan, adibide esanguratsua da Oñatiko (Gipuzkoa) zero igorpen denda, zeinak 2019an berriitu baitu bere ISO 50001 energia ziurtagiria. Denda horietan ikasitako jardunbide onek eredu berri bat definitzea ahalbidetu ziguten energia efizientzia hobetzeko hotz, klimatizazio eta argiztapen sistema berrien eta ekipamendu eraginkorren bidez, eta

jardunbide berberak aplikatzen ditugu irekitzen edo eraberritzen ditugun supermerkatu eta hipermerkatu guztietan.

Energia efizientziak eta zero hondakinen kudeaketak bat egiten dute, eta horri esker, Eroski «zurekin» dendak punta-puntako establezimenduak dira, jasangarritasun eta ingurumen politiketan.

Jasangarritasunez eraikitzea eta hornitzea

Energia gutxiago kontsumitzen duten eta ingurumen eragin txikiagoa duten diseinu eta ekipamenduen alde egiten dugu. Horren bidez, 2020an 2019arekiko % 8 murriztu dugu gas naturalaren eta elektrizitatearen kontsumoa EROSKI osoan. 2018. urteaz geroztik, % 22ko eta % 16ko murrizketak izan dira, hurrenez hurren.

Energia efizientzia hobetzeko ezarritako neurriak

Argiztapena optimizatzea eta LED argiak

Argi guztiak azken belaunaldiko LED motakoak dira. Argi mota hori birziklatu egin daiteke, eta ez du merkuriorik, berunik, tungstenorik edo beste material kutsatzailearik. Horrez gain, gehiago irauten dute, argi kutsadura txikiagoa eragiten dute, eta berehalakoan pizten dira.

Argi horiek automata batetik ere piztu daitezke, eta horrela erabilera optimizatuen dugu, eta gaueko argi kutsadura gutxitzen. Gainera, kanpoko eta inguruko argiak pizteko eta itzaltzeko prozesua optimizatzeke, fotozelulak edo detektagailu krepuskularrak instalatzen ari gara, ekipamenduak benetan beharra dagoenean pizteko; hala, behar ez denean itzalita egongo dira.

Halaber, egunez, sabai leihoak dituzten zentroetan kanpoko argia aprobetxatzen dugu, argi maila hautematen duten zunden bidez, eta erregulazio proportzionaleko begizta baten bitartez salmenta aretoko argien intentsitatea erregulatzen da.


Hotz instalazio eraginkorrak eta gutxiago kutsatzen duten gasekin

Oro har, ozono geruza agortzeko ahalmen nulua, atmosfera berotzeko potentzial txikia eta energia eraginkortasun handia konbinatzen duten gas hozgarriak erabiltzen ditugu. Gainera, DNI detektagailu sistema adimenduna instalatu dugu, 27 zentro baino gehiagotan, horrelako gasen isuririk ahalik eta gehien gutxitze aldera.

Hotzerako altzariak azken belaunaldikoak dira, beiraz hornitutako ateekin, dendako korridoreak ez hozteko eta produktuen kontserbazio hobea bermatzeko, tenperatura zorroztz mantenduz; gainera, horrek bezeroen erosotasunari ere mesede egiten dio. Hotzerako altzariak ixtean energia kontsumoa % 58-63 artean murriztu daiteke.

Ihesak konpentsatzeko kontsumitutako hozgarriak

52 tona Hozgarrien kontsumoa



Ikus adierazleen eranskineko 39. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

EROSKik 2020an ihesak konpentsatzeko kontsumitutako hozgarriek ez dute ozonoa agortzeko potentzialik (substantziok ez daude *Montrealgo* Protokoloko A, B, C eta E eranskinetan).

Klimatizazioa


Klima kudeaketa sisteman integratuta dago, eta horrek airearen tenperatura, hezetasuna eta kalitatea kontrolatzen ditu, urruneko zaintza sistema baten bidez, kontsumo elektrikoa handitzen duten gertakariak izaten direnerako. Instalazioak sare analizatzaileak ditu, kontsumoa kontrolatzeko, analisi software propio batean integratuta. Softwarea EROSKiko Energia lantaldeak egin du, eta funtzionamendu alarmak sortzen ditu kontsumo elektrikoa aurreikuspenetatik aldentzen denean.

Horrez gain, instalazio berriak bero hondarraz baliatzen dira dendaren klimatizaziorako. Horrek berokuntza energiaren kontsumoa nabarmen murrizteko aukera ematen du.


Energia berriztagarrien sorrera

Zentro batzuetan, 2020an Zizur Nagusian inauguratutakoan esaterako, estalkietan jarritako panel fotovoltaikoetan oinarritutako autokontsumoko instalazioak hasi gara jartzen. Horien bidez, sare elektriko tradizionalaren kontsumoa gutxitzeaz gainera, klima aldaketaren efektuak ere murrizten dira, energia garbian oinarritutako eredu baterako trantsizio energetikoan.

Era berean, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ditugu 10 dendetan, gure bezeroen artean mugikortasun jasangarria bultzatzeari begira.



Energia kontsumoa erakundearen barruan



Energia kontsumoa erakundetik kanpo 302-2

10.868.322 kWh

Hegazkinen egindako lan bidaetan kontsumitutako kerosenoa, errepidez zein trenen egindakoetan kontsumitutako diesela, eta trenen egindako lan bidaetako elektrizitatea.

Ikus adierazleen eranskineko 36, 37. eta 38. taulak aurreko urteekin alderatzeko.


Uraren kudeaketa 303-5

Kudeaketa telematikoko ur kontagailuak jarri ditugu, gure sarean egon daitezkeen ur isuriak denbora errealean hauteman eta minimizatu ahal izateko; horrela, ur kontsumoa murriztuko dugu. Horrez gain, lanean ari gara gure zentroetan ur grisak berrerabiltzeko aukera emango duten instalazioak jartzeko.

Gure denda, plataforma eta egoitzetan erabiltako ura edateko ura hornitzeko udal sareetatik eskuratzen da, eta sare horietan kudeatzen da banatutako uraren harrera eta potabilizazioa.

Ur kontsumoa

1.118.748 m³



Ikus adierazleen eranskineko 40 taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Isurketa eta isurien prebentzioa eta kontrola 303-2; 303-4; 306-3

Sortutako hondakin ura

1.107.561 m³

Sortzen dugun hondakin ura gure jardun eremua kokatuta dagoen udalerrietako ur araztegietan tratatzen dute. Estimazioen arabera, 2020an sortutako hondakin uraren bolumena 1.107.561 m³-koa izan zen. EROSKik kontrolik gabeko isurketa eta jarioen prebentzioari eta kontrolari buruz indarrean dauden legeak betetzen ditu, eta 2020an ez da isurketa edo jario adierazgarriak egon.

EROSKiren gasolindegia guztiek ihesak hautemateko sistema bat daukate, baina ez da horrelako ihesik erregistratu. Sareak mantentze-lan prebentiboetarako kontratu bat sinatu du petrolio instalazioen mantentzeaz arduratzen den enpresa batekin, instalazioaren funtzionamendu egokia zaintzeko. Gainera, estankotasun proba guztiak ondo atera dira, bai tangetan bai hodietan. 2020an, piezometroen sare bat jarri dugu Lugoko gasolindegian, Galiziako Xuntaren eskaerari

erantzunez; horren bidez, lurpeko uraren kalitatea kontrolatu ahal izango dugu. Sistema horrek uraren kalitatearen gaineko kontrolak maiztasun batez egitea ahalbidetuko digu.

2019an Usurbilen eta Abadiñon hautemandako uraren edo lurzoruen afekzioen bi kasuetarako, administrazioak zuzentzeko planak onartu ditu dagoeneko, eta ekipoak 2021eko martxoan martxan jartzea aurreikusten dugu. Horrez gain, aurreko ekitaldietan hautemandako bi kutsadura kasuetarako (Velez-Málaga eta Albacete) zuzentze planak amaitu dira, eta Jacako lurpeko uraren eta lurzoruen kutsadura konpontzen jarraitzen dugu, 2022an amaitzeko asmoz.

Gure zentroen kokalekua, bioaniztasuna babesteko. 304-1

Gure zentro guztiak hiriguneetan daude eta horiek kokatzeko garaian ingurumenari eta bioaniztasunari buruzko legedian ezarritakoa betetzen dugu; hortaz, gure jardueraren garapen egokia bermatzen dugu, ingurunea eta natura errespetatuz. Edonola ere, hainbat autonomia erkidegoetan, adibidez Galizia edo Balearretan, lurraldearen eremu handi bat bioaniztasunerako balio handiko espaziotzat hartzen da; hori dela eta, gure zentro batzuk babes figuren eraginpean dauden kokalekuetan daude. 2020an irekitako zentro propioen artean, bakar bat ere ez dago babes figura garrantzitsu baten eraginpean.

Horrez gain, ingurumen inpaktua gutxitzeko eta bioaniztasuna babesteko duten neurriak bultzatzeko lan egiten dugu hainbat ekintzen bidez; esate baterako, arrantza jasangarria bultzatzen dugu, eta 2007az geroztik ingurumenaren babesaren arloan munduko aditua den WWF (World Wildlife Fund for Nature) erakundearekin lankidetzan jardun dugu. Elkarlanean bideratutako ekintzen artean, honako hauek nabarmenak dira: arrantzako produktuei buruzko jasangarritasun politika eguneratzea eta kontsumo arduratsua sustatzea Elikadura Eskolaren bitartez.



Hondakinen kudeaketa zirkularra

Hondakinen kudeaketa eta balorizazioa prebentzioan eta ekonomia zirkularreko eredu baten erabilieran oinarritzen ditugu. Gure ingurumen eragina murrizteko funtsezko ardatzetako bat denez, ahalegin handiak egiten ditugu sortzen ditugun hondakinen prebentzioan, kudeaketan eta balorizazioan.s.

Hondakinak gutxitzea

Gure jardueran sortzen diren hondakinak gutxitzeko lan egiten dugu. Besteak beste, ekodiseinua aplikatzen dugu marka propioko produktuetan, iraungitze data hurbil duten produktu freskoen promozioa egiten dugu, eta kontsumorako egokiak izan arren salmentatik kendu diren elikagaiak eman egiten ditugu gizartean baztertuta geratzeko arriskuan diren pertsonentzat, *Zero Hondakin* programaren bitartez. Horrela, bada, 2020. urtean 20.000 tona produktu saldu genituen deskontuekin iraungitze data edo kontsumo lehenetsiaren data hurbil zutelako, eta elikagaien eta behar-beharrezko produktuen 4.400 tona baino gehiago eman genizkien gizarte erakundeel.

Horretaz gain, bezeroak erosketa poltsak berrerabiltzera, fruta erosteko behin baino gehiagotan erabil daitezkeen sareak baliatzera edo harategian zein arrandegian taperrak erabiltzera animatzen ditugu, dendetan erabilera bakarreko plastikoaren kontsumoa murrizte aldera.

Gainera, 2019an tiket digitala ezarri genuen gure bezeroek erosketari buruzko informazioa zuzenean EROSKIren APPan izan dezaten, papera kontsumitu behar izan gabe. 2020an, tiketetako papera % 11 murriztea lortu dugu, 32 tona paper aurreztuz.

EROSKIren egoitza sozialean, tiketetan, aldizkarietan eta publizitatean kontsumitutako papera 301-1

3.919 tonak
Papera

Material berriztagarria	
Publizitate liburuxkak	3.265
Aldizkariak (PEFC)	391
Egoitza (EU Ekolabel)	10
Erosketa tiketak	253

Publizitatean erabilitako paper guztiak PEFC % 70 (Programme for the Endorsement of Forest Certification schemes) ziurtagiria du, hau da, modu jasangarrian kudeatutako basoetatik datorrela bermatuta dago. CONSUMER EROSKI eta EROSKI Club aldizkarietako papera basoen kudeaketa arduratsua bermatzen duen PEFC ziurtagiria du. Egoitzan, EU Ekolabel zigilua duen gramaje txikieneko papera erabiltzen dugu.

Ikus adierazleen eranskineko 41 taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Hondakinen kudeaketa eta balorizazioa

EROSKI, gure instalazio eta dendetan sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeaz eta balorizatzeaz arduratzen gara, eta birziklatzea eta berrerabilera sustatzen ditugu, lehentasunezko tratamendutzat. Ekonomia zirkularren ikuspegitik, alderantzizko logistikako prozesuak bultzatzen ditugu, dendetatik plataformetara eta enpresa hornitzaileetara, sortzen ditugun hondakin organiko eta ez-organikoak behar bezala berrerabili eta birziklatu ahal izateko. Horrek zera esan nahi du, hondakin kantitatea minimizatzeaz gain, beste prozesu produktibo batzuetan lehengai birjinarik ere ez dela erabiltzen.

Hondakin organikoak

Alderantzizko logistika erabiliz edo baimendun kudeatzaileen bitartez, gure dendetan sortutako hondakin organikoak jasotzen ditugu, irinak eta animalia olioak zein animaliei jaten emateko pentsuak egiteko lehengai gisa erabiltzearren..

Hondakin ez-organikoak

Marka propioaren ekoizleak garen aldetik, urtero gure produktuen ontzien, gailu elektrikoek, pilen, olioek eta argien aitorpena egien diegu Sortzailearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboek, hala nola, ECOEMBES eta ECOVIDRIO erakundeek. Gure produktuak erabiltzean sortutako hondakinak behar bezala berreskuratu eta kudeatzen direla bermatzen dute erakunde horiek. Gainera:

- Gure instalazioetan sortutako kartoia, plastikoa, papera eta zura birziklatzen ditugu. Horretarako, gure dendetan baztertutako materialak jasotzen ditugu, eta haiek tratatzeko baimena duten Kudeaketa Sistema Integratuekin elkarlanean aritzen gara.
- Gure banaketa eragiketetan, ontzi logistikoak berrerabiltzen ditugu.
- Kontsumitzaileei beren hondakinak birziklatzeko aukera ematen diegu. Horretarako, gure dendetan garbiguneak jartzen ditugu pilak, gailu elektrikoak, lanparak, arropa, etxeko olio eta tonerrak, besteak beste, jasotzeko.s.

Kafe kapsulak birziklatzea

2020an, CAPRABOra ere zabaldu dugu EROSKI 2019an ezarri genuen kafe kapsulak biltzeko sistema, betiere kapsula horiek birziklatzeko. Ekimen aitzindaria da Espainiako banaketa handian eta, horri esker, 2020. urtean kafe kapsulen 84 tona baino gehiago berreskuratu ahal izan ditugu.

Berrikuntza elikadura hondakinen kudeaketa zirkularrerako

2020an LIFE CITRUSPACK proiektua bukatu dugu; 2017ko uztaillean abiarazi zen proiektua, ekonomia zirkularrean erre-balorizazio estrategiak bilatzeko asmoz, ontzietan eta kosmetiko berdeetan hondakin zitrikoak erabil zitezen.

Halaber, Ausolan, Gaiker, BCC eta ISEArekin batera *NU-TRACEUTICAL OMNIUM* proiektuan jarraitzen dugu. HAZITEK 2020 programaren barruan finantzatuta dagoen proiektua da, eta elikadura hondakinekin neutrazeutikoak ekoiztea du xede.


Eta Robin Food proiektua abiarazi dugu, gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea elikagai soberakinen balorizazioarekin eta merkatuan berriz txertatzearekin uztartzen duena.




Memoria honetako datuak hondakin hauei dagozkie: alde-
rantziko logistikaren edo kanpoko kudeatzaile baten bitar-
tez biltzen diren eta elikaduraren esparruko gure negozioe-
tan sortzen diren hondakinei.

Kudeatutako hondakinak 306-2

Hondakin ez arriskutsuak
47.168 tonak



Hondakin arriskutsuak
26 tonak




Sortutako hondakinak, guztira
47.194 tonak

Ikus adierazleen eranskinen 42. taula, aurreko urteekin alderatzeko.


Gure bezeroengandik jasotako
hondakinak, birziklatzeko

Hondakin ez arriskutsuak
654 tonak




Ikus adierazleen eranskinen 43. taula, aurreko urteekin alderatzeko.


Birziklatutako hondakin ez arriskutsuak
40.018 tonak



Balorizatutako hondakin organikoak
4.807 tonak



Hondakin arriskutsuak
1.508 tonak



Kontsumitzaileen sentsibilizazioa eta prestakuntza

EROSKIn, ondo dakigu pertsona bakoitzak ingurumena ba-
besten lagundu dezakeela, kontsumo eredu jasagarri eta
arduratsu bat aukeratuz gero. Kontsumitzaileen prestakun-
tzara eta kontzientziara bideratzen dugu gure ahalegina,
sentsibilizazio kanpainak eginez eta eduki pedagogikoak

argitaratuz gure web-plataformetan eta beste euskarri in-
formatibo batzuetan. Gainera, helburu horrekin bat, beze-
roekin, langileekin eta erakundeekin elkarlanean jarduteko
ekimenak sustatzen eta garatzen ditugu.

Planetaren Ordua

Ondoz ondoko bederatzigarren urtez, EROSKik bat egin du
Planetaren Ordua ekimenarekin. WWF elkarteak antolatu
eta Nazio Batuek babesten dute ekimena, eta guk ere bat
egiten dugu ingurumenaren aldeko ekimen sinboliko globa-
lik handienarekin: ordubeteko itzalaldia. Aurtengo leloa *Ko-
nekta zaitez naturarekin* izan da, eta, COVID-19a dela eta,
digitalki egin da.

Camiño a Camiño ingurumen programa

VEGALSA-EROSKik, beste behin ere, Vigoko Concello-aren
ingurumen ibilbideen *Camiño a Camiño* programan par-
te hartu du. Programa horren bitartez, biztanleak eskualde
horretako flora eta fauna hurbildu nahi dira, eta ohitura
osasungarri eta jasagarriak sustatu.

Hondakinak Prebenitzeko 2020ko Europako Astea
CAPRABOn

CAPRABOn bat egin dugu Hondakinak Prebenitzeko 2020ko
Europako Astearekin, kontzientziatze eta sentsibilizatze jar-
dueren bitartez, arroparen eta oinetakoen berrerabilera
eta birziklapena sustatzeko eta zabortegetan sortzen duten
zaborra gutxitzeko.

CONSUMER EROSKIren kontsumo arduratsuko gida

2020. urtean, EUSKOPEF berrikuntza proiektuaren barruan,
kontsumo jasagarriko gida bat argitaratu dugu kontsumit-
zaileentzat; comprasostenible.consumer.es webgunean
aurki daiteke jada. Gainera, ingurumeneari espezializatu-
tako kanal bat ere badugu www.consumer.es webgunean,
pertsonei kontsumo ohitura jasagarriak irakasteko. Horre-
tarako, besteak beste, naturari, hiriko ingurumenari, parke
naturalei, energiari eta zientziari buruzko edukiak argitarat-
zen ditugu.

EROSKI Elikadura Eskola

EROSKI Elikadura Eskolako Elikadura eta Ohitura Osasunga-
rrii buruzko Heziketa Programan jasagarritasunari buruzko
modulu espezifiko bat dago, eta WWF erakundeak ere
parte hartzen du bertan, edukiak eskainita. Gainera, gure
www.escueladealimentacion.es webgunean elikagaiak al-
ferrik galtzea nola saihestu daitekeen azaltzen duen edukia dago.

Berraktibatu+ programa

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen *Berraktibatu+* pro-
graman parte hartzen dugu. Ekimen hori Global Action Plan
(GAP) nazioarteko programan dago oinarrituta, eta herrita-
rrek ingurumen jasagarritasunaren alde egitea du helburu,
kontsumo ohitura egokien bitartez. Gure bezero eta langi-
leek izena eman dezakete www.reactivatemas.eus webgu-
nean, EROSKIren kode hau erabilita: 64007.





7

Lankidetzan ari gara gizartearekin

Babesa eta elkartasuna gure inguruarekin

Gure ekarpena komunitateari 203-2; 413-1



EROSKIn, sortu ginenetik, gizarte ekintzan dihardugu, modu batera baino gehiagotara, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat posible egiten laguntzeko. Horretarako, langileak inplikatzan ditugu, eta, aldi berean, bezeroen parte hartzea sustatzen dugu kanpainak eta gizarte ekintzak arlo lokalean eta nazionalen proposatu eta garatzeko orduan. Horrela bideratzen dugu gizarte ekintza gure interes taldeen premia eta joeretara

Gizartearen aldeko ekintzak gauzatzeko, gutxienez gure etekin %10 darabilgu Heziketa eta Promozio Kooperatiborako Nahitaezko Ekarpen Funtsean eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetan. Baliabide ekonomiko horiek EROSKI FUNDAZIOAREN bidez kanalizatzen dira; 1997an eratu zen, eta lau ardatz handiren inguruan jarduten da:

1. Kontsumitzaileen formazioa eta informazioa.
2. Heziketa, kultura eta lanbide arloak sustatzea, bereziki kontsumerismoaren gaian eta ingurunearen eta ingurumenaren aldeko konpromisoan.
3. Elkartasun eta sustapen asistentziala.
4. Kontsumerismoari, elikadurari, ingurumenari eta bizi ohitura osasungarriari loturiko ikerketa, garapena eta berrikuntza lantzea.

Ardatz horiek artikulatzeko, FUNDAZIOAK talde tekniko bat du diziplina anitzetako adituz osatua; hala, kontsumitzaileen aldeko ekintzak sustatzen ditu, zabalpen kanpainak egiten ditu eta aldizkariak eta gidak argitaratzen ditu, bekak eta laguntzak eskaintzen ditu eta gizarte erakundeekin kolaboratzen du. Hala, fundazioko patronatuak ziurtatzen du urtero prestatzen den Jarduera Plana aurrera ateratzen dela honako printzipio hauek kontuan izanik: inpartzialtasuna, independentzia, gardentasuna, efizientzia eta erantzukizuna.

Horrenbestez, ekimen propioz zein hirugarrenekin egindako hitzarmenen bidez bultzatzen dugu gure ingurunearen garapen sozial eta kulturala.

EROSKI osatzen dugunontzat harrotzeko modukoa da 2020an nolako erantzuna eman genuen COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoagatik gure ingurunea premiarik gorrienean zenean. Hala, Gurutze Gorriaren eta Elikagaien Bankuen aldeko kanpainak gauzatu ditugu, helburu gisa harturik kolektiborik zaurgarrien premiazko beharrak estaltzea gure jarduera garatzen dugun probintzietan.

2020an ingurunea garatu eta hurbileneko kolektiborik behartsuenak babesteko egindako ekarpen ekonomikoak 12.419.918 eurokoak izan ziren guztira, honako gizarte ekintza hauetan banatuta:

■ Gizarte ekintzarako ekarpenen banaketa

	8.425.550 € Solidaridad Elikadura arloko elkartasuna	873.298 € Gizarte bazterketan diren pertsonak (elikagaiak ez diren dohaintzak)	1.961.152 € Familiei laguntzea	266.244 € Larrialdia, nazioarteko kooperazioa eta errefuxiatuak
138.878 € Haurtzarora	40.000 € Droga mendetasuna	89.140 € Bestelako gaitasunak edo gaitasunak	615.669 € Kultura, aisia eta ingurune lokala	9.987 € Beste kolektibo batzuk



COVID-19ak eragindako larrialdiaren erantzuna

Familia askorentzako pandemia eta zailtasun ekonomikoko garaiak diren hauetan eta hilabete gutxian beren enplegua eta diru sarrerak galdu zituzten honetan, elkartasunak garrantzi handia hartu du aurrera ateratzeko. Urte honetan, COVID-19ak sorrazitako krisi soziosanitarioak are larriago

utzi du jende zaurgarriena, eta gosearen ilarak biderkatu egin dira herri eta hirietan. Testuinguru horretan, EROSKI bere elkartasun ekimenak indartu ditu gehien behar dutenen oinarriko nutrizio eta higiene beharrak estaltzeko.

Elkartasun kanpainak dendetan

EROSKik martxoan kanpaina bat jarri zuen martxan **Gurutze Gorriaren RESPONDE Planaren** alde; hari esker, 120.000 euro eman zituzten dohaintzan gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren haurrak eta familiak elikatzen laguntzeko. EROSKI ere gure bezeroek emandako kopurua berdindu zuen.

Ondoren, apirilean, **Miloi bat otordu FESBALen alde** erronka abiatu genuen, eta uda aurretik lortu genuen, udaberriko Kilo Operazioa amaitu ondoren. Ekintza horri esker, 1,4 milioi otordu baino gehiago eman zituzten dohaintzan Elikagaien Bankuentzat.

Azaroan, urtero bezala, **Elikagaien Bilketa Handia** antolatuta genuen FESBALen alde; dena den, aurten bilketa fisikorik gabe gure denda gehienetan COVID-19aren mugak direla medio. Hala ere, gure bezeroek dena eman zuten, eta ekimenarekin eta EROSKI ipinitakoarekin ia 2 milioi euro bildu ziren lehen mailako elikagaiak erosteko.

EROSKI eta haren bezeroek 6,5 milioi otordu baino gehiago eman dituzte 2020an Elikagaien Bankuen aldeko kanpainetan, eta hala 2.400 familia elikatzea lortu dute urtebetez.



Maskaren dohaintza kolektibo zaurgarrientzat

Maskarak lehenengo mailako behar bihurtu dira. Hori dela eta, apirilean, 100.000 maskararen aurreneko dohaintza bat egin genuen Euskal Autonomia Erkidegoko zahar etxeetarako foru aldundien bitartez; izan ere, une horretan material eskasian ziren, eta COVID-19ak gogorren jo dezakeen kolektiboak arriskuan zuen osasuna. Gainera, azarotik lan egin dugu milioi bat maskara inguru dohaintzan emateko gizarte bazterketa jasateko arriskuan direnei. Dohaintza ekitaldiaren amaieran gauzatu da, 70 toki eta gizarte erakunderen

laguntzari esker, zeinak ohiko kolaboratzaile baititugu erosketa txartela erabiltzen dutelako gizarte xedeetarako eta Zero Zabor programan elkarrekin aritzen garelako.

Ekintza horretaz gain, maskararen prezio beheraldiak egin ditugu maiz publiko ororentzat, eta hala kontsumitzaile guztiek hura erosteko erraztasuna izan dute.

Gizarte xedeetarako erosketa txartela

COVID-19ak eragin duen krisia dela eta, EROSKI bikoiztu egin du helburu sozialetan erabiltzeko erosketa txartela eskatzen dioten administrazio publikoen eta gizarte eragile kopurua. Entitate horiek bideratzen dituzte, larrialdian diren herritarrei eta familiei laguntzeko. Tresna horrek haien helburua errazten du, hau da, gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren oinarriko elikadura eta higiene beharrei erantzutea. Txartel pertsonal bat ematen zaio norbakoari, hasierako diru kopuru jakin batekin, eta aukera du era automatikoki diru sartzeko maiztasun pertsonalizatuen bidez, erakundeak adierazten duenaren arabera.

EROSKiren opari txartelen edo fidelizazio txartelen antza du, eta modua ematen du oinarriko premiak era integratzailean eskuratzeko eta ez soilik bertaratu.

2020an, 70 administrazio eta gizarte erakunderekin baino gehiagorekin kolaboratu dugu larri dabilen herritarrei eta familiei laguntzak bideratzeko, gizarte xedeetarako 15.000 erosketa txartel pasaren bitartez.

FORUM SPORTEk dohaintzan emandako babes ekipoa eta berokiak

Pandemiaren unerik kritikoenean, behar beste babes ekipoa ez zegoenean osasun langile guztientzat, FORUM SPORTEk urpean aritzeko maskarak eta lurraren aurkako espraiak eman zizkien dohaintzan Galdakaoko Ospitaleko zainketa intentsioetako unitateari prebentzio eta babes gisa erabil zituzten koronabirusari aurre egiteko orduan. Horretaz gainera, 400 beroki eman dizkiogu Bizkaiko Gurutze Gorriari, etxerik ez zutenen eta aterpeetan konfinatuta egon diren artean banatzeko.



Pertsonekin konprometituta

Elkartasun Zentimoen programa berria

Behartsuenen aldeko konpromiso eta elkartasun lerro horretan, EROSKI *Elkartasun Zentimoak* jarri ditu martxan; programa berri bat da etengabe laguntzeko gizarteko kausa askotarikoetan. Helburua da gehien behar dutenei laguntzea bezeroek modu errazean ordainleku egindako dohaintza txikien bidez

Maiztasun batekin, laguntza jasotzen duten erakundeak aldatu egiten dira boladaka, eta, haiek hautatzeko, bazkide-bezeroak gehienbat zein kausak kezkatzen dituen jasoko du EROSKI. Hona hemen kooperatibak Elkartasun Zentimo-ekin laguntzen dituen kausetako batzuk: haurtzaroaren beharrak, ingurumenaren zaintza, gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren kolektiboak edo minbiziak edo beste gaitz batzuk jota daudenak, nazioarteko kooperazioa eta genero indarkeriaren biktimak. EROSKIko bazkideei galdetuta, kausa horien alde egin zuten 3.500 lagunek párrafo 2: Maiztasun batekin, laguntza jasotzen duten erakundeak aldatu egiten dira boladaka, eta, haiek hautatzeko, bazkide-bezeroak gehienbat zein kausak kezkatzen dituen jasoko du EROSKI. Hona hemen kooperatibak Elkartasun Zentimo-ekin laguntzen dituen kausetako batzuk: haurtzaroaren beharrak, ingurumenaren zaintza, gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren kolektiboak edo minbiziak edo beste gaitz batzuk jota daudenak, nazioarteko kooperazioa eta genero indarkeriaren biktimak. EROSKIko bazkideei galdetuta, kausa horien alde egin zuten 3.500 lagunek baino gehiagok.

2020an lagundutako kausak

Azaroaren 5ean abiatu zen ekimena, eta aurren-aurren El-kagaien Bankuaren Espainiako Federazioak jaso zuen EROSKIren bezeroen ekarpena; kooperatibak 20 urte baino gehiagok daramatza harekin lankidetzan. Emandako dirua, 670.000 euro baino gehiago, tokian tokiko El-kagaien Bankuei eman zitzaion, osasun larrialdian zaurgarri gelditu diren familiei elikagaiak banatzeko.



Bigarren elkartasun kausa, Mugarik Gabeko Medikuentzat eta ACNURentzat izan zen; horrekin, EROSKI lagundu du garapen bidean diren herrialdeetako haurrak txertatzen. Kanpaina horretan —indarrean urtarilean egon dena—, 100.000 haur txertatzen lagundu da askotako gaitzen aurka, hala nola elgorria, polioa eta kolera; besteak beste, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Txad ekialdeko eremuetan.

EROSKI eta haren bezeroek jada milioi bat euro bideratzea lortu dute Elkartasun Zentimoak programarekin, eta zazpi milioi dohaintza baino gehiago egin dituzte elkartasun kausen alde.

Borondatezko dohaintza anonimoa

Elkartasun ekintza honetan parte hartzea oso erraza da. Programarekin bat egin duten 1.000 saltokietako —supermerkatuak, hipermerkatuak eta EROSKIren frankiziak, Vegalsa eta Caprabo— ordainlekuetan txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzean, dohaintza txiki bat egin ahalko duzu aukeraturiko ongintzako kausaren alde. Dohaintza, betiere borondatezkoa eta isilpekoa, kopuru finko bat da tiketeko zenbatekoaren arabera aldatzen dena. 5-30 euro bitarteko erosketetarako, 10 zentimo. Eta 20 zentimo, berriz, 30 eurotik gorakoetarako. EROSKI ez ditu gordetzen emandako zentimoak, eta zuzenean bidaltzen ditu bezeroaren bankutik indarrean den elkartasun kanpainako kontura (erosketa egin duen dendan aktibatuta dagoen kontu jakinera.

Bankuko txartelarekin edo PayPalekin ere lagundu daiteke, **eroski.worldcoo.com** edo **caprabo.worldcoo.com** webetan; hortik ekarpena handitu ahal da. Horretaz gainera, web honetan, dohaintzaren ziurtagiri bat eskatu ahal da, eta zerga kenkariak eduki errenta aitortpenean.

EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko 10 Konpromisoe-tan sartuta dago *Elkartasun Zentimoak* programa, eta horien xedea da EROSKIren kontsumo arduratsurako politika batzea eta beren dendetan ingurune hurbilago bat garatzea.

Zero Hondakin programa

EROSKI, jarraitzen dugu janaririk ez alferrik galtzeko borrokan, nola eta jarduera protokolo bat artikulatuta ziurtatzeko emandako elikagai guztiak freskoak eta jateko moduan daudela. Hala, gure bezeroekin freskotasan maximoaren eta ontzia iren itxuraren konpromisoa betetzen ditugu. Hotz-katea behar bezala mantentzen dela ziurtatzen dugu dohaintza hartzen duten erakundeetan instalazioetan, eta berme berak ziurtatzen ditugu haien garraioan, elikagaia kontsumitua den arte.

EROSKI, jarraitzen dugu janaririk ez alferrik galtzeko borrokan, nola eta jarduera protokolo bat artikulatuta ziurtatzeko emandako elikagai guztiak freskoak eta jateko moduan daudela. Hala, gure bezeroekin freskotasan maximoaren eta ontzia iren itxuraren konpromisoa betetzen ditugu. Hotz-katea behar bezala mantentzen dela ziurtatzen dugu dohaintza hartzen duten erakundeetan instalazioetan, eta berme berak ziurtatzen ditugu haien garraioan, elikagaia kontsumitua den arte.

Programaren beste helburu bat kontsumo arduratsua sustatzea da. Horretarako, elikagaien dohaintzarekin batera, kontsumitzaileak kontzientziazteko kanpainak egiten ditugu, informazioa zein prestakuntza emateko. CONSUMER EROSKIren bitartez, EROSKI ezagutzak, baliabideak eta tresna praktikoa ipintzen ditu kontsumitzaileen esku, erosketa arrazionalizatzeko, ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta etxean elikagaien zarrastelkeria ahalik eta txikiena izateko; horrek, gainera, aurrezpena ekarriko die gizarteari zein familien ekonomiei.

Zero Hondakin programa garatzeko, EROSKI gizarte erakunde askorekin jarduten da; besteak bestea Elikagaien Bankuak eta Caritas.

2020. urtean, EROSKI eta haren bezeroek 9 milioi otordu baino gehiago eman dituzte behar gehien duten kolektiboentzat. Kopuru horrekin, 3.000 familia mantendu daitezke urte oso batez.

Gainera, 2020an, beste behin parte hartu genuen AECOCek antolatzen duen elikagaien zarrastelkeriaren aurkako as- tean, jardunbide onak partekatuz kontsumitzaileekin.

EROSKI kooperatibak egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta **Urrezko Galburua saria** eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeetara ematen diena.



Bestelako gaitasunak dituzten edo gaixorik diren pertsonekin lankidetzan aritzea

EROSKIn, ondo dakigu egunero zer erronka dituzten beste-lako gaitasunak dituzten edo gaixotasun baten ondoriozko behar bereziak dituzten pertsonak. Hori dela eta, lankidetzak estua daukagu pertsona horien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duten dozenaka erakunderekin. Hala, 2020an, lankidetzan aritu gara, besteak beste, Esklerosi Anizkoitzeko Euskal Fundazioarekin, Down Galiciarekin, Bizkaiko Eritasun Neurom.

Minbiziaren aurkako borroka

EROSKI beste urte batez aritu da Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin ekintza askotarikoetan, nahiz eta aurten desberdina izan den bularreko minbiziaren aurkako lasterketak egiteko modurik izan ez delako. Horren ordez, elastikoak saltzeko kanpaina bat egin dugu kausa horren alde, eta larruazaleko minbiziari aurrea hartzeko udako kanpainan lagundu dugu. AECC ere onuradunetako bat izan da gure *Elkartasun Zentimoen* programan. Hala berean, Ibizako Elena Torres minbiziaren aurkako Elkartearekin jardun gara.



CAPRABO Alzheimerren aurkako borroka

CAPRABO laguntzen ari da PENSA proiektuan, zeina orientatua baitago analizatzen ea dementzia galarazterik ote dagoen agerpenaren aurreko estadioetan, eta konbinatzen ditu elikagai prestakin bat hartzearen eta bizitzeko ohituren esku hartze programa bat. Ekimena elkarrekin darumate Ikerkuntza Medikoen Hospital del Mar Institutuak eta Barcelonaβeta Brain Research Centerrek, Pasqual Maragall Fundazioaren ikerketa zentroa bera, zeinarekin CAPRABO jarduten baita joan deneko 7 urtean.

Elkartasun poltsaren bitartez eginiko kolaborazioa

2020an, EROSKIk ehun berrerabilgarritz eginiko 140.000 elkartasun poltsa baino gehiago saldu ditugu. Horri esker, lankidetzan jardun ahal izan gara besteak beste honako entitate hauekin: AECC, ONCE, Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzeko Euskal Fundazioa eta Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarte.

Nazioarteko lankidetzak

EROSKIn uste dugu elkartasunak gainditu egin behar dituela mugak, eta horregatik, gugandik urruti dauden beharriaz-nei erantzuteko ere egiten ditugu kanpainak.

Mundukiderekin dugun hitzarmenez eta Elkartasun Zentimoen kanpainaz gain, aurten ere jarraitu dugu elikagaiak ez diren kontsumogaiak dohaintzan ematen (jostailuak, oinetakoak, arropa, eskolako materiala eta optikako produktuak besteak beste) Latinoamerikako haurrentzat **Munduko Haurrak Federazioaren bitartez**, giza garapen jasangarriaren eta nazioarteko kooperazioaren alde diharduen erakundea bera. 2020an, 105.000 eurokoak izan ziren dohaintzak.

Beste elkartasun ekintza batzuk

Elikadura arloko elkartasunaz gain, beste kanpaina batzuk ere egiten ditugu: gizarte egoera ahulean diren kolektiboek laguntzen diegu, eta ingurumenaren aldeko konpromisoa sustatzen dugu kontsumo ohituren bitartez baliabide naturalak zainduta.

Gizakia Helburu kanpaina Balearretan

2020an, *Zurekin bizitzak kolorea hartzen du* kanpaina egin dugu Balearretan; hala, bezeroei objektu original bat eskaini diegu euro baten truke, Gizakia Helburu fundazioan kolaboratzearen truk. Erakunde horren alde 40.000 euro bildu genituen, eta drogen mende daudenei laguntzeko uhar-tean dituen programetan erabiliko dute.

Ehun hondakinen kudeaketa solidarioa eta jasangarria

Urtero bezala, Koopera, Humana Fundacion Pueblo para Pueblo eta INS3RTEGA erakundeek kudeatu dituzte bezeroek gure dendetara eramaten dituzten arropak eta oinetakoak, berrerabiliak izateko edo birziklatzeko, eta etekinak gizarte proiektuetara bideratu dira. Adibidez, Bartzelonan Hort al terrat ekimenean erabili da bildutako dirua; desgaitasuna duten 120 lagunek parte hartzen dute hartan.

Familiei laguntzea

EROSKIk familia ugariet laguntzeko lankidetzak hitzarmenak ditu hainbat erakunderekin, hala nola Hirukiderekin, Fannoc-ekin eta Familia XLrekin. Horretaz gainera, familia mota horren behar partikularrak aintzat hartuta, abantaila bereziak eskaintzen ditugu gure fidelizazio txartelen bitartez. Hala, 2020an **12.000 familia ugari 1,4 milioi euro baino gehiagoko aurrezpena lortu dute**.

Horrez gain, badago familiei laguntzeko beste programa bat: *Ongi etorri, haurtxoa*. Iaz, programa horretan, 18.759 saskitxo eman genituen, baita haurtxoaren lehen urtean beharrezkoak diren produktuak lortzeko deskontuak eta promozioak ere. Programa hori osatzeko, *Ongi etorri, emagina* online tresna dago. Haren bidez, gurasoek erantzun guztiak aurkituko dituzte haurdunaldian, erditzean eta haurtxoaren lehen urteetan sor daitezkeen galderak eta zalantzak argitzez. Ekimen horrek zenbait talderen laguntza izan du, hala nola Emaginen Elkartearen Espainiako Federazioa, Espainiako Emaginen Elkarte eta J. Mateu Sancho peditra doktorea.

VEGALSA-EROSKIn, familiei laguntzeko beste pauso bat eman dugu, 2016an Galiziako Xuntaren *Tarxeta Benvida* programara atxikita. Horri esker, Galiziako EROSKI Center eta Familia establezimenduen eta EROSKI hipermerkatuen sarean erosketak egitean txartela aurkezten duten pertsonak %2,5eko zuzeneko deskontua dute. 2020an, 171.732 euro transferitu zaizkie familiei ekimen horren bitartez.

Kultura, aisia eta tokiko ingurunea sustatzea

Ekimen lokalagoak sustatzearekin, EROSKIk gure sare komertzialaren hurbileko jendearen ongizatean lagundu nahi du, eta balioan jarri hurbilagokoak diren kultura eta tradizioak.

Tokian tokiko hizkuntzen sustapena eta hedapena

EROSKIn, tokiko hizkuntzak gure inguruko komunitateen kultura ondarearen funtsezko atalak direla uste dugu, eta, hortaz, haiek sustatzeko eta hedatzeko lan egiten dugu etengabe.

Euskararen kasuan, Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartu dugu, hizkuntzaren arloan hain azoka garrantzitsua dena. Gainera, 2020ko abenduan, Ikastolak Herriari ekitaldian parte hartu genuen *Ikastolen Elkartearen* alde, ohiko aurrez aurreko ikastolen festa tradizionalen ordez. Urtero aritu gara laguntzen, eta, COVID-19a dela eta, ezin izan zuten egin.

Galiziako kultura eta hizkuntza ere balioesten ditugu. Alde horretatik, Galiziako gizartearekin lotura estua duten ekimen guztiekin egiten dugu bat. Esate baterako, aurreko ekitaldietan bezala, Dia das Letras Galegas ekimena babestu genuen 2020an ere.

Ekimen horiez guztiez gain, ahalegin handia egiten dugu EROSKI CONSUMER aldizkaria gaztelaniaz, euskaraz, galizieraz eta katalanez eskaintzeko.

Aisia eta kultura

Orobat, kultura kontsumitzaileei hurbiltzen saiatzen gara askotariko babesletza jardueren bidez. Esaterako, Elorrión, gure egoitza nagusia dagoen herrian, urtero egiten den Musikaire kultur jaialdia babesten dugu.


VEGALSA-EROSKIk beste behin kolaboratu du Emalcsa Fundazioaren *Cultura Accesible Inclusiva* programan, zeinak asmoa baitu aukera berdintasuna lortzea Coruña kultur ondareez gozatzeko sarbidea izateko orduan eta trabak kentzea herritar guztiek parte har dezaten, desgaitasunak dituztenetan arretra jarrita batik bat.

Beste maila batean, kirolak gaur egungo gizartean eta bizimodu osasungarria izateko zer-nolako garrantzia duen jakinda, gure ingurune hurbilenean antolatzen diren kirol jarduerak ere babesten ditugu.

Euskal Herrian, Artxandako igoera eta FORUM SPORT lasterketa ospetsuetan lagundu genuen; eta, *Bizkaian Kosta Trail* egin ezin izan bazen ere, bai egin ahal izan da *Bilboko Gaueko Maratoia*. Gainera, konfinamenduan, FORUM SPORTen lanean jardun ginen jendeak aktibo jarrai zezan murrizketak murrizketa. Hala, **#yomeentrenencasa** hashtagaren bitartez, entrenamendu bideoak egin genituen, baita edukiak ere blogetan eta sare sozialetan askotariko jendearentzat. Gainera, running kontsultategi bat atera genuen, eta beste bat nutrizio arlokoa, zeinetan Instagrameko jarraitzaileek galderak egin ziezazkieketen gure entrenatzaileei elikaduraren eta entrenamenduaren gainean.



Delegatuen Batzar Nagusia
Asamblea General de Personas Delegadas
2020ko Uztailaren 15a • 15 de Julio de 2020



8

Gardentasunarekin konprometituak

Prestatzeko irizpideak eta
informazio gehigarria

Memoriaren irismena eta prestatzeko printzipioak

EROSKIn, gure interes taldeei urtero aurkezten diegun jardunari buruzko informazioa hobetzeko eta zabaltzeko lan egiten dugu, erakundearen barruan eta kanpoan garden-tasunarekin dugun konpromisoaren barruan. Horregatik, Global Reporting Initiative (GRI) erakundearen estandarretan oinarrituta egin dugu. Erakunde hori 1997an sortu zen, eta jasangarritasunari buruzko txostenetan munduan gehien erabiltzen den erreferentzia-esparrua da. Global Reporting Initiative erakundearen estandarretan jasotako irizpideak eta printzipioak aplikatzean, memoriaren kalitatea eta edukia gure interes taldeek espero dutenarekin bat etortzea bermatu nahi dugu, eta, horretaz gain, emandako adierazleak hurrengo urteetako gure emaitzekin eta beste erakunde batzuek aurkeztutako txostenekin alderatzeko aukera ematen digu.

Memorian hainbat sozietateri buruzko datuak bildu ditugu;

